


NAFARROAKO
ESKOLA
KONTSEILUA
CONSEJO
ESCOLAR
DE NAVARRA

Monografia



0-6 Haur Hezkuntza



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Nafarroako Eskola Kontseilua
Hezkuntzako Batzorde Nagusia
Consejo Escolar de Navarra
Junta Superior de Educación

Titulua

0-6 Haur Hezkuntza

© 2016. Nafarroako Eskola Kontseilua

© Egileak

Azaleko marrazkia

Raquel Crespo Vergara

Maketazioa

José Joaquín Lizaur

Inprimaketa

Gráficas Lizarra S.L.

LG: NA 2048-2016

ISBN: 978-84-235-3428-9

Sustapena eta banaketa

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtza

Navas de Tolosa k. 21

31001 Iruña

Telefonoa: 848 427 121

fondo.publicaciones@navarra.es

<https://publicaciones.navarra.es>

Indizea

Aurkezpenak

- 9 José Luis Mendoza Peña. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Kontseilaria.
- 11 Aitor Etxarte Berezibar. Nafarroako Eskola Kontseiluko Lehendakaria.

Hitzaldiak

- 15 Jardunbide egokiei buruzko ikuspegia hezkuntzan: oinarri teorikoa eta baldintza teknikoak. Miguel Ángel Zabalza Beraza.
- 21 Praktika egokiak. Galdera egokiak. Alfredo Hoyuelos Planillo.
- 27 Jardunbide egokiak Haur Hezkuntzan. Iruñeko Haur eta Lehen Hezkuntzako “San Frantzisko” ikastetxe publikoaren kasua. Fermín González García.

Ekarpenak

- 39 Gure esperientzia Jauntsaratseko eskolan. Maite Rey Urmeneta, Nerea Mariezkurrena Ezkurra, Amaia Ariztegi Barberena, Arantza Guruceaga Zubillaga.
- 49 Ateraldiak auzoan barna. Mendillorriko H.H.-ko 0-3 Zikloa. Concha Gaztelu Albero, Maitane Melero Urzainqui, Naiara Domínguez Salvoch.
- 57 Hurrekin eta haien familiarekin bizitzea. 3-6 zikloaren eraldaketaren esperientzia Iruñeko Frantzisko Deuna HLHIPan. Joaquín Escaray Lozano, Pilar Gonzalves Calatayud.
- 65 Argiarekin elkarrizketa. Ana Araujo Hualde, María Ibero Irisarri, Izaskun Roncal Olcoz, Alfredo Hoyuelos Planillo.
- 73 Esploratzea, ikasteko: familientzako topaketa eta gogoeta gune bat. María Napal Fraile, Txusma Azkona Mendizabal.
- 81 Kalitatezko haur hezkuntza, lehen haurtzaroko zainketarik hoberena. Maider Gabilondo Ariznabarreta.
- 87 Aniztasuna, balio. Hezkuntza inklusiboa, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko. Ignacio Toni Echeverría.

Aurkezpena

José Luis Mendoza Peña
Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Kontseilaria

Nafarroako Eskola Kontseiluak burutu dituen Jardunaldietan Marina Mori pedagogoak gogora ekartzen zuen hezkuntza munduan ezaguna den Reggio Emiliako esperientziak sustrai sakonak dituela. 1860. urtean pobrezian bizi ziren neska-mutilentzako lehenbizi-aterpe laikoa ireki zela, garaian oso aurreratuak ziren pentsalarien ideietan oinarrituz: Aporti eta Froebel. Edo Roversi alkate sozialistak 1913. urtean lehenbizi-udal eskola eta maistren formazioa egiteko akademia bultzatu zuela.

Bigarren Mundu Gerra bukatzerakoan, 1945 urtean, Villa Cella eskola sortuko dute, ondorengo urteetan gaurko esperientziaren sorrera zuzena izango dena Loris Malaguzzi pedagogo ezagunaren gidaritzapean. Hezkuntza munduarentzat Reggio Emilia iturri aberatsa da, egiten dena eta egin beharrekoaren artean zubiak egiten laguntzen duena.

Nafarroan asko ikasi dugu eredu honekin ideia nagusiek duten erakargarritasuna uka ezina delako: haurren eskubideak babestu beharra, zerbitzuaren eskaintza unibertsalaren premia etikoa, hezkuntza 0 eta 99 urteen artekoa dela, hezkuntza inklusiboaren ezaugarria haurrak ardatz izanik, bizikidetza aniztasunetik lantzen dela, eguneroko xedeetan lankidetza ardatza dela, ikerketa eta adierazpenarako erregistro anitzen aldekoa edo komunitate osoaren garrantzia.

Jakin mina, interesa, sentikortasuna behar ditugu haurtzaroa ulertzeko. Eta, agian, lehenbizi-udal lana helduok ditugun estereotipoak auzietan jartzea da, haurra pertsona osoa sentitu eta aitortu behar dugulako. Zoritxarrez, haurra tratatzen dugu izaki osatu gabea, akasduna bezala, gutxitan aitortzen diogu subjektu osoa dela. Gianni Rodari, helduek haurrei entzuten jakiteko izan behar zituzketen heldugabeko belarriez idatzi zuen:

“Behin batean Caprania-Viterbo trenean/ belarri heldu gabea zuen gizona ikusi nuen han./ Ez zen da ez horren gazte, heldua baizik/ heldua zen dena belarria ezik./ Lekuz aldatu nintzen, haren ondoan esertzeko/ eta halako gauza bitxia sakonki aztertzeke./ Aizu gizona, esan nion, adin heldu jorrek/ zer egiten duzu halako

belarri heldugabearekin?/Adeitsua erantzun zuen:- Esan nahi baduzu naizela zeharra/ belarri hau geratu zait gauza gazte bakarra./ Belarri haurra da,ulertzeko beharrezko/ helduek inoiz aditzen ez dituzten ahotsak entzuteko: / zuhaitzak entzuten ditut, txoriak/ igarotzen diren hodeiak, errekek, harriak/ haurrak ere ulertzen ditut zer edo zer esaten dutela/ belarri helduarentzat misterioitsuak direla.../ Belarri heldugabeko gizonak hala esan zuen/ Caprania-Viterbo trenean hain zuzen”¹

Hori ikasi beharko dugu: belarri heldugabekoak edukitzen. Ospatu diren Jardunaldietan 0-3 eta 3-6an Nafarroako hainbat ikastetxeetan landu denaren lagina aurkeztu da, abian diren esperientzien bidez eta horren azterketa kritikoa proposatu da aurrera begira. Asko falta zaigu praktikak hobetzeko eta erronkak ez dira makalak. Dena dela, George Sand idazleak zioen: “Bide bat baino ederragorik ez da! Bizitza gogotsu eta anitzaren sinbolo eta irudia da.”

Hori ere da eskola: bidea.

.....
¹ RODARI, Gianni, *Parole per giocare*, Firenze, Manzuoli, 1979.

Aurkezpena

Aitor Etxarte Berezibar

Nafarroako Eskola Kontseiluko Lehendakaria

Nafarroako Eskola Kontseiluko XVII. Jardunaldiak martxoaren 8tik 11ra burutu dira Iruñean eta maiatzaren 24tik 26ra Tuteran. Aurtengo gaia "Haur Hezkuntza: 0-6" izan da.

Besteekin ikastea da helburua, baina baita 0-6 heziketaren garrantzia aldarrikatzea. Era pertsonalean, nazioarteko ikerketa askok kalitatezko eskolatze goiztiarrak bizitzan eta ondorengo eskola arrakastan duen eragina egiaztatu dutela azpimarratu nahiko nuke.

Garapen pertsonalari ematen zaion garrantzia gero eta handiago da, bai mundu akademikoan baita sozialean ere, eta ondorioz, gai hau aukeratu da. Miguel Ángel Zabalzak bere testu batean aipatzen duen bezala:

- "Bizitzaren lehenengo etapa honetan, haurren garapena 4 ardatzen gainean erakitzen da: familia, bere hedapen guztian, bizi den inguru sozial eta kulturala, haur eskola, garatzen duen curriculo eskaintza eta funtzionamendu dinamika barne, eta haurrak topatzen dituen heldu esanguratsuak. Azken hauen artean, garrantzi handikoak izan daitezke irakasleak.
- Seguraski, ez dugu familia haina garrantzirik (nahiz eta, batzuetan, osatzera deituak gauden), baina gurea ere nabarmengarria da (...). Eta Haur Hezkuntzaren kasuan, hezitzaile honen eragina, garrantzitsuagoa da, ahal bada. Beraiek dira funtsezko faktorea.
- Eskola programen hobekuntza, hauek aurrera eramateko pertsonen kualifikaziotik pasatzen da. Espazioak, baliabideak, familien inplikazioa, etab. hobetu ditzakegu, baina azkenean, hau dena errentagarri egingo dutena haurren mesederako, maisu-maistrak dira.¹

.....
¹ ZABALZA BERAZA, Miguel Ángel eta ZABALZA CERDEIRIÑA, María Ainhoa, "La formación del profesorado de Educación Infantil", *Tribuna Abierta* 103, CEE Participación Educativa, 16, 2011, 103-113 o.

Jardunaldi hauetan, ekarpen teorikoak ekarri nahi izan ditugu, Miguel Ángel Zabalza, Marina Mori eta Maddalena Tedeschirekin, eta adibide diren esperientziak ere. Ez da erraza izan zeintzuk aurkeztea erabakitzea, Nafarroan asko baitaude.

Gonbidatutako aditu taldeekin saioak burutu izan dira Jardunaldien goizeko saioak, gonbidatuekin hurbiletik eztabaidatu izan ahal dutenak: Miguel Ángel Zabalza, Marina Mori eta Maddalena Tedeschi.

Arratsaldeko saioetan, aurretik aipatutakoen hitzaldi teorikoak, Rotxapea Haur Hezkuntza, Jauntsarats Ikastetxe Publikoa, Mendillorri Haur Eskola eta Frantzisko Deuna Ikastetxe Publikoaren hezkuntza esperientziekin konbinatu dira. Irakasle talde hauek, ikasetxeen familiek, bertan praktikak egin dituzten ikasleek eta NUPeko irakasleriak, Fermín González García, ikerketa talearen koordinatzailea, Arantzazu Guruceaga Zubillaga, Alfredo Hoyuelos Planillo eta Ana Mendioroz Lacambrak egindako lana nabarmentzea ezinbestekoa da

Egun horietan jarduera ugari bete dira. Eskola Kontseiluko egoitzan, Nafarroako Museoen aretoetan, Nafarroako Parlamentuan edo Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Tuterako egoitzan. Museoen neurri handiko 54 panel instalatu ziren, jendeak disfrutatu ahal izan zituztela, dokumental batekin batera. Horietariko panel batzuk Tuterako Jardunaldien egoitzan erakutsi ziren ere.

“Kontseiluaren arratsaldeak” izena duen markoaren barruan, Maddalena Tedeschiren hitzaldi bat eman da, Parlamentuaren egoitzan, eta Ainhoa Aznárez Igarza, Nafarroako Parlamentuaren Lehendakaria bertaratu egin zen.

Eskola Kontseiluaren orri digitalean Jardunaldien aurreko, momentuko eta bukaerako informazioa eman da, ugaritasunez eta erantzun sendoarekin. Ekintzen aurkezpen irudiak eta irudi identifikatzaileak Corellako Arte Eskolarekin elkar lanean egin dira, ohikoa den moduan. Iruñeko Arte Eskolako ikasleek eguneroko argazki erreportajeak eta Marina Moriri dokumental-elkarrizketa bat egin dituzte. IDEA argitalpen digitalaren bitartez Jardunaldien aurkezpenak eta interesezko ekarpenak bildu egin dira. Azpimarratzekoa da, beste alde batetik, Miguel Ángel Zabalza, Marina Mori eta Maddalena Tedeschiri martxo eta apirila bitartean hedabideetan agertutako elkarrizketak sakonak.

Jarduera guztiak utzitakoa askorako eman du zalantzarik gabe. Partaideek esandako ideien laburpenak lehendabiziko balantzea egiteko bide izan daiteke.

- Miguel Ángelek praktika onen izaera erlatiboa azpimarratzen zuen: daudenen artean hoberenak dira. Eta eskola bakoitzak garatu, dokumentatu eta ikusarazi behar den adibidezkoa den zerbait daukala adierazten zuen.
- Mariak azpimarratzen zuen ikasleekiko errespetua ezinbesteko jarrera dela
- Izaskunek espazioen edertasunak armonia eraikitzen dela
- Haurrekin paseoetan deriba bezain garaikidea proposatzen zuen Conchak,
- Anak eskolaren atea ireki behar direla eta mundura atera behar dela esan zuen.
- Seme-alabekin aurkikuntzak egiteko ez dela etxetik asko urrundu behar esan zuen Maitanek.
- Alfredok esaten zuen galdera konplexuak behar ditugula eta batzuetan adostasunaren izenean ikastetxeetan ez direla egitasmo interesgarriak gauzatzen.
- Arazoak konpontzeko, hezkuntza proketuaren parte sentitzea hausnartu zuen Pilarek.

- Tributaz hitz egin zen eta zein tribu motak laguntzen dion haurrei
- Haurrei pentsatzeko eta jarduteko denbora utzi behar zaiola esan zuen Jaionek.
- Teoria onen garrantzia azpimarratzen zuen Ferminek.
- Azken urte hauetan, ematen du askorentzat, helburuak desagertu direla, atzera bueltan ari garela.
- Nahiz eta profesional bikainak dauden, badirudi hezkuntza erakundeak geldituta daudela.
- Maitek zioen bidelagunak izatea dela hezkuntzaren giltza
- Proiektu guztien beldur, barre eta eztabaitasunak azpimarratzen zituen Joaquinek, hala nola putzu bat aukera bat bezala eta ez oztopoa bezala ulertzea.
- Nereak patzientzia eta giro segurua bermatu behar diegula haurrei
- Eskolatik ez da familia baztertu ezta ahaztu egin behar, erdigunera ekarri behar da.
- Naovalek zioen bereentzako etorkizun hobeago bat nahi zuela eta eskolan entzuna sentitzen zela.
- Amaiak aipatzen zuen etxetik hamar minutura esperientzia zoragarria zeukala herriko eskolan
- Historia haurtzarotik hasita berreraikitzen dela, laguntzea beharrezkoa dela baina ez gainean edo azpian egotea, zientzia eta artea lotu daitezkeela, eta hiria haurren espazioa dela adieraziz igun Marinak.
- Maddalenaarentzat, gaur egungo gairik garrantzitsuena ezberdintasunarena da, gungandik ezberdina denarekin harremana.

Aurreko guztia ulertuta soilik uler dezakegu, beharbada, Marina Tsvietáievak haurtzaroaz idazten duena:

“Metronomoa niretzat, lau urteak arte, gustatzen zitzaidan eta guzti, ia ia kuku-erlojua bezain beste, eta arrazoi beragatik: bertan ere norbait bizi zelako, baina ez genekien nor, ni bainintzen, etxean, bizitza ematen niona. Ni neu etxe horretan bizi izan nahiko nukeen. (Haurrek, beti, ulertezinezko tokietan bizi nahi dute, nire semea bezala, sei urteekin kale-argi batean bizitzearekin amesten zuela: argia eta beroarekin eta altuan, dena ikusten den tokitik. “Eta zure etxearen aurka harri bat jaurtitzen badute?”- “Ba nik sua botako diet!”²

Zuen irakaskuntza lana eta bizitzarako ideiak aurki ditzazuen opa dizuet hurrengo artikulu eta elkarrizketak irakurtzen dituzuenei.

.....
² TSVIETÁIEVA, Marina, *Mi madre y la música*, Bartzelona, Acantilado, 2012.

Jardunbide egokiei buruzko ikuspegia hezkuntzan: oinarri teorikoa eta baldintza teknikoak

Miguel Ángel Zabalza Beraza

Santiago de Compostelako Unibertsitateko
katedraduna eta “Haur Hezkuntzako praktika onak”
ikerketaren koordinatzaile nagusia

Miguel Ángel Zabalzaren aurkezpenaren zati honen bitartez Praktika onen ikuspegiaren oinarriak azaldu nahi da. Kalitatezko haur hezkuntzan “ona” dena zer den galdetzen du. Praktika hauek ikusgarri egitearen garrantzia ere azpimarratzen du. Irakaskuntzan, praktika onez hitz egitea, abiatzen den irakaskuntza ideiatik zentzua bakarrik du. Praktika onak bilatu eta identifikatzeko pausoak ere zerrendatzen ditu.

Hitz-klabeak: haur hezkuntza, kalitatea, praktika onak.

Jardunbide egokiak haur eskoletan

Unescoren arabera:

Helburu estrategikoak hamarkada honetako hezkuntzarako:

“Promouvoir l’experimentation, l’innovation ainsi que la diffusion et le partage de l’information et des meilleures pratiques, de même que le dialogue sur les principes d’action dans le domaine de l’éducation” (UNESCO 31C/4).


(Esperimentazioa, berrikuntza, informazioaren eta praktika hobereenen hedapena eta banaketa sustatu, hala nola hezkuntza eremuko ekintza printzipioen gaineko elkarriketarena)

Bureau International d’Education (BIE) erakundearen arabera.

Honako hau du urte hauetarako oinarritzko xedea:

*“(a) Faciliter la circulation de l’information et l’échange d’expériences a travers le monde;
(b) systematiser, analyser et mettre à disposition ces informations et expériences”.*

(Informazioaren zirkulazioa eta munduan esperientzien elkartrukaketa erraztea Sistematzatu, analizatu eta informazio eta esperientzia hauek eskuragarri jartzea)



Honatz ikuspuntuaren hiru ardatzak:

Irakasleen jardunbidea eraikitzea

- Irakasleen jardunbideak
- Nola pentsatu eta eraikitzen da irakasleen jardunbidea?
- Pentsamendutik ekintzara doan bidea.
- Spoused beliefs eta theories in action direlakoan arteko kontraesanak.
- Teacher thinking paradigm-aren ikuspegiaren argi-itzalak.


Kalitatezko Haur Hezkuntza

- Jardunbide egokiak? Kalitatea? Normatibitate pedagogikoa vs. Deskripzioa. Kalitate erabatekoa vs. Ordezkoa.
- Zer da egokia? Egokia ez da aurrez ezarritako diseinu (batzuetan, arrotz) bati erantzuten diona.
- Egokia da ongi dabilena, protagonistek eta/edo erabiltzaileek balioesten dutena, baliotsutzat jotzen dena.
- Ezer perfekturik ez dago, baina jardun orok du balioren bat.
- Ikuspegi deduktiboaren ordez (arauak, printzipioak), ikuspegi induktiboa eta kokatua. Zientzia eta artea uztartzea. Gauzak zer diren (eta, beraz, zer izan daitezkeen hori), eta ez zer "izan behar" duten (batzuetan, bideraezina baita).
- Testuingurutzea (testuinguru batean egokia den edo funtzionatzen duen horrek agian ez du beste batean balioko). Erlatibismo kontzeptualaren arrisku halako bat.

Transferentziaren konpromisoa

Ikusgarritasuna


- Irakaskuntzaren zoztorrak: opakutasuna (lonely task), eskuratze indibiduala (privated owned).
- "Bai, ahal da" baliatzea. Adibideekin azaltzearen balioa, zuzentarauak eta estandarren ordez.



- “Aintzatespena”, irakasleen oinarritzko premia.
- “Arrakasten kontakizunak”, hezkuntza-sistemaren kritika orokorren ordez.
- Lehenetsun estrategikoa garapen instituzionalean.

Jardunbide egokiak:

Zereginak jardunbide egokietan



Jardunbide egokiaren kontzeptua:

- Kontzeptuaren polisemia. Adjektibotasuna vs. substantibotasuna
- Benavente, 2007: “Testuinguruaren eskaera ezberdinei (gure kasuan, hezkuntzakoei) eraginkortasunez eta partaideak asebetez erantzuteko modalitate ezberdin horiek dira”.
- “Best practices”, testuinguru ingelesean. Bertsio absolutuagoa eta erlatiboagoa, aldi berean.



Miguel Ángel Zabalza Beraza

Jardunbide egokien ezaugarriak:

- Testuinguruak baldintzaturiko ekintza.
- Jardunbideen alderdi konduktuala eta alderdi kognitiboa.
- Ekifinalitatea (prozesuarekiko mendekotasun handiagoa inputarekiko baino).
- Jardunbidea, praxi: jardunbidearen izaera soziala eta etikoa.

Irakasleen jardunbide egokiak.

Irakasleen jardunbide egokiaz aritzea alferrikakoa da ez badakigu zein den irakaskuntzari buruz darabilgun abiaburuko kontzeptua.

Bost ikuspegi irakaskuntzaren kontzeptura hurbiltzeko:

- Irakastea = informazioak edo ezagutzak transmititzea.
- Irakastea = jokabide eta aztura berriak sortzea.
- Irakastea = ikaskuntza bideratzea (bitartekari izatea), egoera didaktikoak kudeatzea.
- Irakastea = garapen pertsonal osoa sustatzea. Gaitasunak. Egoera hezigarri egite-kotsuak sortzea.
- Irakastea = eskolako eta eskolaz kanpoko esperientzia antolatzea.

Jardunbide egokiak identifikatzea

Hiru erabaki mota hartu beharra dago

- Jardunbide egokira iristeko modua
 - Jardunbidearen gaineko kontakizuna (zer kontaktzen diguten)
 - Adierazle edo deskripzioei zer erantzuten zaien (galdera-sortak edo probak edo simulazioak)
 - Behaketa zuzena edo zeharkakoa.
- Zer esparrutan gauzatzen den jardunbide egokia
 - Zehaztu beharra (edukiak, lekua, denbora)
 - Instituzionalak, sektorialak, norbanakoarenak, taldekoak...

- Aztertu beharreko jardunbidea egokia dela baloratzeko irizpideak zehaztea.
 - Inbariantetan oinarrituak (jardunbide egoki guztietan behar diren baldintzak) edo egoeraren araberako edo ad hoc irizpideetan.
 - Murriztaileak edo zabalak izan daitezke.
 - Berrikuntza, hobekuntza, oinarri zientifikoa, erkagarritasuna, ebaluazio positiboa, gogobetetasuna, inpaktu soziala.

Jardunbide egokiak hautemateko irizpideak

- Aplikagarria den araudia betetzea (ezarritako arau eta estandarren araberakoak izatea).
- Instituzioen eta tresnen zer-nolakoa eta antolamendua (behar diren baliabideak edukitzea eta modu eraginkorrean erabiltzea).
- Diseinu curricularra eta ikasteko giroak (prestakuntza-eskaintza gizartearen eta ikasleen premia eta eskaeren araberakoak izatea).
- Profesionalen prestakuntza eta trebakuntza (hala egiturazko alderdietan nola dinamikoetan).
- Testuinguruan txertatzea eta ingurunearekin ezarritako loturak.

Jardunbide egokien balizko hobiak.

- Arduradun politiko, tekniko edo profesionalak ongi baloraturiko jarduketak.
- Esperientzia erabat berriak eta eraginkorrak (eskola-egoera arruntendako erantzun originalak).
- Hainbat arlotan ezaugarri bereziak dituzten erakundeak: curriculum-antolamendua, metodologiak, ingurunearekiko harremana, ikasleekin lan egiteko modua, dokumentazioa, erakundeen arteko loturak, ebaluazio eta akreditazio sistemak, graduatuen segimendua, etab.
- Erakunde inklusiboak, kulturantzunak.
- Metodologia berritzaileak dituzten erakundeak, taldekatze sistema ezberdinak dituztenak.
- Ideia erabat berriak dituzten irakasleen ekimenak.
- Jarduerak gutxi esploraturiko curriculum-esparruetan
- Modalitate aberatsak testuinguru sozial eta kulturealean esku hartzeari begira.

Jardunbide egokiak ikertzea

Abiaturuko hipotesiak


- Ezberdintasun nabarmenak daude hezkuntza-jardunbide batzuen eta besteen artean.
- Sustatzaile eta protagonisten ideiek eta sinesmenek hezkuntza-jardunbideak baldintzatu eta arautzen dituzte.
- Jardunbide egokien (JE) egileek irakaskuntzari buruz dituzten sinesmenak eta ideiak aberatsagoak eta sendoagoak dira.
- JEak burutzen dituzten oinarritzko ideiak kontakizun, eskema edo mapa kontzeptualen bidez irudika daitezke.
- JEak (eta oinarri dituzten ideiak) elkar indartzen dira eta badute joera elkar loturiko mordoan gisa mamitzeko.

- Testuinguruek ere baldintzaten dituzte JEak, sostenguaren, baliabideen eta aintzatespenaren arabera.
- Testuinguru instituzionaletan burutzen diren jardunbide egokiek uztarturiko eragile eta testuinguru guztien kultura didaktikoa eta antolaketakoa hobetzera jotzen dute.

Baldintza metodologikoak

- Irizpide malgu eta objektiboak (objektibagarriak) adostea JEak identifikatzeko.
- Behar beste JE nazional edo nazioarteko identifikatzea (kopuru adierazgarri bat), testuinguru eta esparru guztietakoak.
- Jardunbide horietako bakoitzaren ezaugarriak dokumentatu eta sakon aztertzea, bai oinarrizko ideiei bai jarduketei begira.
- Ebidentziak laburbildu eta irudikatzea eskemak, diagramak edo mapa kontzeptualak erabilia, modua egon dadin aztertutako unitate bakoitza ulertzeko eta praktikak bata bestearekin erlazionatzeko.
- Osaturiko laburpen horiek erakunde eta/edo irakasleekin triangulatzea (ez da ebaluazio bat, jardunbideen bertsiorik hoberena jasotzen saiatzen ari gara).
- Aztertutako jarduera guztien artean bereizgarri edo osagai komunak ezartzea eta, ahal bada, jakitea zein diren bereizgarri komun horiek.
- Emaitzak ikusgarri egitea eta interesa duten profesional eta ikertzaileen eskura jartztea.

Azterketa-unitateak



Aztertu beharreko alderdiak

- Testuingurua
- Oinarriak
- Bilakaera
- Gaur egungo egoera
- Inpaktua eta eraginak
- Balorazioa
- Transferigarritasuna

Praktika egokiak. Galdera egokiak

Alfredo Hoyuelos Planillo

Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan Doktore europarra
eta Iruñeko Haur eskolen Udal Patronatuaren
Adierazpen Tailerren koordinatzailea

Alfredo Hoyuelosen Praktika onak ulertzeko modua Galdera onen bitartez da. Galderek mundua aldatzeko daukaten ahalmena azpimarratzen du. Konplexutasunaren paradigma honen bitartez, egileak sei galdera egiten dizkio bere buruari, eta hauen bitartez heziketarekin zerikusia duten hainbat alderdi nabarmentzen ditu, hala nola: irakaslearen pasioaren beharra haurren poztasuna eta optimismoa sustatzeko; heldu eta haurren arteko elkarrizketatzeko beharra; irakaslearen kultura zabaltzeko beharra haurren ideiak errespetatzeko; lanaren lekukotasuna uzteko beharra edo irakaslearen dimentsio politikoa.

Hitz-klabeak: elkarrizketa, galdera onak, ideien errespetua, konplexutasunaren paradigma, lanaren lekukotasuna, praktika onak.

Galdetze oro bilatzea da¹. Bilatze orok bere alde aurreko norabidea du, eta hura bilatutik etorki. Galdetzea da jakin nahi izatea izaki bat “zer den” eta “nolakoa den”. Jakite hori bilatzea “ikertzea” bilaka daiteke, edo galdetzen dena aske uztea eta zehaztea. Galdetzeak berekin du, “zerbait galdetzen” den bezainbatean, galdetzen den hori. “Zerbait galdetze” oro da, nolabait, “zerbaiti galdetzea”. Galdetzean berez dator, zer galdetzen den ez ezik, zeri galdetzen zaion (...); (galdetze) horren berezitasuna da galdetzeak “bere baitan barrena” ikusten duela, haste beretik, galderaren beraren bereizgarri aipatuen norabide guztietan.²

.....
¹ Artikulu honek *Aula de Infantil* aldizkarian argitaratutako bertez bat du abiapuntutzat, moldatuta eta eguneratuta.

² HEIDEGGER, Martín, *El ser y el tiempo*, Madril, Fondo de Cultura Económica, 1989.



Alfredo Hoyuelos Planillo

Haur Hezkuntzan gai luze eta korapilatsua da praktika egokiez mintzatzea. Zer paradigmatan mugitzen garen, askotarikoak dira Praktika Egoki batzuen ahalbide eta mugei antzematen laguntzen gaituzten adierazleak.

Artikulu honetan, eta oso modu apalean, Praktika Egokiak ulertzeko modu batean jarri nahi dut arreta: geure buruari galdera on batzuk egitea.

Hona zer idatzi zuen César López poeta kubatarrak:

*“...errepikatzen dute galdera
galdera-marka bihurri batean bildua
aterarazi beharrez nahi duten baieztapena”...*

Haurretan pairatu nuen eskola ez zen oso poetikoa; hartan, maisuaren galderei beti egiaz erantzuten erakutsi zidaten, haren egiaz. Maisuak aitzinetik zekizkien erantzunak; erantzun horiek kontrolatu baizik ez zuen nahi. Horretarako, hobe galderarik gabeko mundua.

Hauek ez dira funtsezko galderak, ordea. Mundua eraldatzen da galderen jakin-min apalari esker, erran nahi baita, ziurgabetasuna, abentura, harridura eta segurtasun eza sorrarazten duten galderei esker. Berekin dakarte Heidegger-en moldeko galdegite existentziala, begirada zulatzen diguna litezkeen norabide kaleidoskopiko guztietan proiektatzeko. Ez dira galdera hutsalak; aldiz, ezjakinaren, ezezagunaren eta ezustekoaren bila bidaltzen gaituzte.

Paradigma honetatik –Konplexutasunaren Paradigma erraten diote batzuek–, azaleratu nahi ditut zenbait galdera, nire iduriz funtsezkoak, nire lantoki den eskolatik egunero ateratzen naizen aldiro neure buruari egiten dizkiodanak; galdera horiek aukera ematen didate Praktika Egokitat hartzen dudan horretara nolabait hurbiltzeko, osoki ez bada ere.

Sei galdera dira. Gutxi gorabehera, hauek edo bertze batzuk izan daitezke. Bakoitzak bereak bilatzen ahal ditu. Jakinaren gaineko gogoeta batean murgiltzeko modu bat baizik ez da.

Galdera hauek bidezidor posible bat iradokitzen dute, urratzen ez dudana; zorionez, haietan bidelagun dut Loris Malaguzzi, pedagogo reggiotar ospetsua, haren probokazio batzuk gogora ekarrita.

Lehen galdera: Nola dibertitu naiz gaur?

Reggio Emiliako eskoletariko bateko sarrerako kartelean modu subertsiboan iragartzen da: “Alaitasunik gabe, deus ez”. Hezteak dibertitzea erran nahi du. Nire ustez, asperdura eta ohikeria eskolatik urrundu behar dira. Malaguzzik aurkezten digun hezkuntza moldea «gertatu baino lehen dena dakien pedagogia profetikoko guztiaren kontra dago. Haurrei erakusten baitie egun guztiak berdinak direla eta ustekaberik ez dagoela; eta helduei, berriz, ikasi ahal izan ez dutena errepikatu baizik ez dutela egin behar». Gisa horretara kritikatzan ditu sufrimenduan, tristuran eta ahalegin zentzugabearen oinarrituriko programa eta curriculumak. Umeez eta helduek baikortasuna, irria eta karra behar dituzte ongizatean hazten segitzeko. Eta eskubidea dute une bakoitzean hezteak duen zentzuaren plazera aurkitzeko. Alabaina, hori gerta dadin, premiazkoa da norberak halako sugar grinatsu bat izatea hezteko lanbidearen aldera.

Bertzalde, dibertsioa desadostasunaren ifrentzua da. Ados ez egotea araua haustea da, aurreikusiarren eta ohikoaren kanonetan ez gelditzea. Hezkuntzak, ez hiltzeko, arriskatu behar du eta mugimendu etengabearen egon. Malaguzziren ikuspegian, bizirik egotea arautik eta legetik kanpo ateratzea da, eta proposamen txundigarri eta anbiguoak asmatzea, mutiko, neska eta helduendako.

Gunilla Dahlbergekin dioenez, Lorisek zentzu ironiko handia zuen eta gustatzen zitzaion Bachelard-en aipu hau egitea: «Hezkuntzak arrakasta izan dezan beharrezkoa da patrikan juglare bat edukitzea». Ildo horretatik, Bronfenbrenner ekartzen zuen ahora: «hezkuntza garaile atera dadin, harrizten gaituen zoro bat izan behar da, gutxienez». Haren ustez, beharrezkoa zen «txiste bat, serioak izateko».

Bigarren galdera: Zer ikasi dut gaur?

Lorisen iritziz, maisu-maistrak ez dira eskolara irakastera joaten, ikastera baizik; bereziki, neska-mutiko guztiak daukaten kulturatik. Horren ondorioa da entzuteko eta begiratzeko jarrera etengabea haurraren ezagutza prozesuen aldera. Aztertze erne eta sistematiko baten bidez gogoeta egiteak aukera ematen digu neska-mutikoek nola ikasten duten ulertzeko. Gisa hartara, maisu-maistrak garen aldetik dugun eginkizuna ontzen da ikerketa etengabearen bihurtuneetan.

Haurrekin lan egiteak parada ematen digu uraldi berean zalantzarik eta hunkigarrietan igeri egiteko. Baita ikusmolde eta begiramodu poetiko, estetiko eta artistikoak grinaz deskubritzeko ere. Hona zer dioten Gil Marínek³: “Haurtzaroak gure mundua eta gure ziurtasunak kordokatzen dituen mundua dakar. Haurrak tradizioa behar badu ere, garenaren eta baloratzen dugunaren jarraitasuna, haren haustura ere adierazten du, sortzeko aukera. Mundu batean txertatu behar du, baina aldi berean bertze batzuk ditu irekitzen.

³ GIL, F. J., “Infancia y pedagogía poética”, I.A.-etan *Tejedores de vida. Arte en primera infancia*, Bogotá, Idartes, 2015.

Alde horretatik, zilegi da erratea haurtzarora eta artea hertsiki loturik daudela, haurtzarora bereziki artistikoa baita: lilura, fantasia eta berritasuna gehitzen dizkio izateari; hitzak es-treinatzen ditu; ustekabeko ibilbideak irekitzen; metaforak sortzen; animalia, landare eta bertze entitate batzuekiko topaketak bizitzarako berreskuratzen; eta espezieak eta izakiak gurutzatzen, gure saillapen eta bereizketatik harata. Horregatik, izatearen indar berritzailea da, biziara bat baino areago”.

Orobat, ikasteak erran nahi du prest egotea gure ideiak jendaurrean bertzeenekin alderatzeko, ez baitugu geure burua egia baten jabetzat hartzen. Hezkuntzak bere izatean darama haur, lankide eta familiekin etengabe eztabaidatzea eta solastatzea. Hartara, aurreiritziak, etiketak edo eskarmentuan finkaturiko estereotipoak ezabatzen laguntzen gaituzten sinesmenak bilakatzen dira, goizetik arrats, gure balio mugiezin horietariko batzuk.

Hirugarren galdera: Zer estudiatu dut gaur?

Malaguzzik ezagutza handian prestaturiko profesionalengan du fedea. Jakinduria bat nahi du nagusiki psikologia, pedagogia eta didaktika liburuetatik kanpora gorpuztua. Eta maisu-maistra batzuk, jakin-min alimalekoa dutenak eta egunero estudiantzeko gogoz daudenak, haurren ikasprozesuak hobeki ulertzen lagunduko duen “kultur trinkotasuna” osatu ahal izateko. Eta irakurtzea, zertarako eta gure ideiak krisian jarri ahal izateko eta eskolak biziaren hauspo hezitzaile guztietatik hats egiteko.

Gure ezagutza-eskemetan ez badaude, haurren ikasprozesu batzuei ez diegu, behar-bada, ez belarririk ez balorerik ematen; horiek etikoki ulertzen laguntzen du diziplinaz gaindiko jakituria hori eskuratzeak. Kultura zabalagoak, hitzaren adierarik zabalenean, bidea ematen du, batez ere, bertzeen ideiak hobeki errespetatzeko, baita haurrenak ere. Hori gerta dadin, beharrezkoa da estudiantzea eta arriskatzea, ustez dakiguna krisian jartzeko. Jakin-nahia piztea dakar, zinematik poesiara, arkitekturatik antropologiara, kimikatik antzerkira, edo biologiatik historiara.

Laugarren galdera: Gaur nola egin nezakeen bertzela?

Malaguzziri gustatzen zaitzaion Von Foerster aipatzea, esaera etiko hau erreskatatu beharrez: «joka ezazu izan daitezkeen aukeren kopurua handitzeko maneran». Gisa hartara, hezitzaileak etengabe galdekatzen zituen jakiteko ea hartzen zituzten erabakietan (hezkuntza alorreko proposamenak egiteko tenorean; begiratzeko, ebaluatzeako edo jokatzeko tenorean) bertzelako aukera batzuk, egiteko bertze modu batzuk aztertu ote zituzten. Aldaera berririk, aurkezpen berririk hartu ote zuten gogoan. Ez zuen aski aditzea, konparaziorako, haurrak buztinarekin lanean ibiliak zirela; aldiz, jakin nahi zuen zergatik, zer modutan aurkeztua zitzaien, zer hezetasunez, mahaian edo lurrean paratua ote zen, gainazala estalirik ote zegoen, zerekin eta zer koloretakoa, aulkirik paratu ote zen edo ez, zer argiztapen zerabilten, zer materialekin landu zuten, zenbat, hasieran zer formarekin, zer erran zitzaien umeei, maistraren rola... Eta hautatua izan ondotik, bertzela egiten ahal ote zen, kualitatiboki hobeki. Zer hautatzen dugun, zer uzten dugun kanpoan eta, hezkuntzaren ikuspegitik, neska-mutikoei zer aukera eskaintzen dizkiegun eta –kritikoki deskubritu behar ditugun arazoak direla-eta– zein aukeraz gabetzen ditugun. Horretaz guztiaz jabetzearekin zerikusia du, hitz batez, erronka honek.

Borzgarren galdera: Gaur nola utzi dut nire lanaren testigantza?

Malaguztik probokaziotz zioen eskolan ez dela existitzen hezkuntza praktikatik jendaurrean erakusten ez dena. Nolabait, ez du deusetarako balio. Lorisek, betiere jabetzen baitzen eskola bere lanaz aztarnarik uzteko gai ez izateko arriskuaz, grina handia agertu zuen haurrekin egiten den esperientzia dokumentatzeko. Hezitzaileei agintzen zien patrikan libreta bat eramateko, eta denbora luzea ematen zuen bildutako dokumentazioen gainean azterketa eta gogoeta egiten. Haren ikusmoldean, eskola pobre, pribatu, ezkutu eta lurpekoa sorrarazten du haurrekin egindako esperientzien erregistroa egiteko edo ohar sistematikoak hartzeko ohitura ez duen lanbideak.

Lanaren dokumentazioa hezkuntza arloko gertaeren kontakizuna sormenez egiteko haria da. Haurren ezagutzarako bideen behaketa edo azterketa egitea bezain garrantzitsua da geroago haien kontakizuna egiten jakitea. Gertaeren kontakizunean erakitzen da haurrak deskubritzen duenaren zentzua, ez bertze inon. Etikaz eta estetikaz, xedeak interpretazioa izan behar du, gero bertzeen ikusmoldeekin alderatzeko jendaurrean. Begi bistan dagoenez, gertaeren pasarteak profesionaltasun eta kalitate handienaz erabiltzeko dokumentuak izan behar dira beti. Horrek erran nahi du estiloa begiratu behar dela esperientzien idatzizko dokumentuetan, argazki paneletan edo aurkezpen bideoetan; horiek edizio zainduak izan behar dira, inoiz ez bildutako material "gordinaren" aurkezpenak.

Kontakizuna egiteko moduan, Loris trebea eta azkarra zen haurren istorio itxuraz hutsaletan esanahi eta interpretazio handiak ateratzen. Honako honetan, Reggio Emiliako neska-mutiko batzuk, itzalaz egindako proiektu luze batean, jostetan ari dira bertzeendako asmakizunak sortzen. Iradokizun gisa, Malaguztiren kontatzeko modua ikusiko dugu.

«Lerro artean irakurrita, ohartzeko modukoa da hurrek beren erregela eta ideiak aldatzen ahal dituztela, horiek zalantzan jartzeraino. Beren buruari galderak egiteko gauza dira, itzalaren jostetak eraldatzen eta horiekin saiakuntzak egiten dituzten bitartean.»

«Zer gertatzen zaio itzal txiki bati, handi baten barnean sartuz gero? Desagertu egiten da edo azpian gelditzen?»

«Goma baten itzala arkatz batena bezain handia egin daiteke?»

«Hiru hurrek, batera, itzal bakarra izan dezakete?»

(...) Ediporen alegian bezala, orain hurrek galdekatzen dituzte pasatzen direnak. Ez du axolarik lagunak edo ezezagunak diren, adinkideak edo helduak. Ediporen hurrek itzalaren geometria ikasi dute, eta horri etekina ateratzen diotelarik ez daude arriskuan.

Ederki dakite hori. Asmakizunak (eta tranpak) asmatzen dituzte, bertze batzuek konpon diezazkieten.

Baina asmakizuna ez dago egina. Gauzatu beharra dago. Hurrek, elkarlanaren eta eztabaidaren bidez, lortzen dute esku artera etorri zaien arazoaren elementuak

bakantzea, hitzak aurkitzea eta horiek elkarrekin biltzea, arrasto zuzen eta aztarna anbiguen artean topatu ahal izanen den erregela edo erantzunaren ezusteko eta behin-behineko desagerpenari zentzua eman diezaioten. Suspensea maite dute eta lortzen dute enigma urtzeko gogo berehalakoa bertzeengan eragitea, tronpatzen badira ere. Ironia handiz, Ediporen haurrek horixe nahi dute guretako. Onartu beharra dugu, Commedia dell'arte zaharraren bilbearen barnean gaude jadanik.

Eta haurrak beti hor, beren 5 urtetan.⁴

Hezkuntza esperientzien kontakizunaren erregistroak galarazten du hezkuntzari buruzko erretorika egitea, edo gutxi gorabehera denek partekatzen ditugun teoriez mintzatzea. Praktikaren dokumentazioak aukera ematen du ikusteko nola jokatzten duten pertsona desberdinek ideia berekin. Malaguzzik errana: «Hezkuntzaren etorkizuna praktikan jokatzen ari gara». Teoriak defendatzen ahalegintzen gara, maiz modu xalo samarrean; hezkuntzaren praxia haiekin bat etortzen ote den ikusteko etengabeko ebaluazioaren puntu zurrun eta gupidagabea da, gainera, lan hori.

Seigarren galdera: Gaur egun, zein da nire lanaren oihartzun politikoa?

Hezkuntzako profesionalok engaiamendu politiko baten subjektuak gara. Ez naiz erraten ari alderdi politiko batekoak garenik; erraten ari naiz beharrezkoa dela gure lanbidea hartzea, didaktikatik harata, afera etiko eta politikotzat. Eta orobat erran ahalegindu behar dugula haurraren bizi baldintzak hobetzen, ikasleengandik hurbil nahiz urrun, eskolan bereziki eta gizartean orokorrean.

Ardura honek dakar, konparaziorako, ikasgelaren atea irekitzea aita-amak sar daitezen, eskolan gizartearen partaidetzarako prozesu demokratikoak abiaraztea, familiekin eta politikariekin eztabaidak piztea, eta elkarren arteko proiektuak antolatzea hiriko kultur giroekin, berak haurren eskubideak aitortu ditzan. Horrek erran nahi du artikulua idaztea, hizketaldietan parte hartzea, profesionalki elkarrekin laguntzea eta, hezkuntzan izandako eskarmentu joritik abiatuta, elkarrizketa zabalena sorraraztea gizarte kontzientziatzen lortzeko umeei modu sistematikoan ebasten zaizkien kultur eta hezkuntza eskubideez.

Espiritu politiko hori gabe, lanbideak ez du zentzurik, gorpil zoro korporatibista batean sar daitekeelako.

Hauek posible diren galderetariko batzuk baizik ez dira. Erran bezala, bertze batzuk ere egon daitezke. Profesional bakoitzak, hezkuntza talde bakoitzak, bereak egiten ahal ditu. Behin-behinekoz ematen ditugun erantzunak termometro egokia izan daitezke eskolaren osasuna, amultsutasuna, kalitatea eta Praktika Egokiak neurtzeko. Beharbada, Marcel Proustek dioena lortzea, alegia, "ezagutzaren ekintza erreala ez dadila hainbat izan herrialde berriak deskubritzea, ezen ez begi berriekin begiratzea". Hori, egunero.

.....
⁴ MALAGUZZI, Loris, "L'ombra e il pallottoliere dei bambini", I.A.-n, *Tutto ha un'ombra meno le formiche*, Reggio Emilia, Comune di Reggio Emilia, 1990.

Jardunbide egokiak Haur Hezkuntzan Iruñeko Haur eta Lehen Hezkuntzako “San Frantzisko” ikastetxe publikoaren kasua

Fermín M^a González García
Nafarroako Unibertsitate Publikoko Zientzia
Esperimentalen Didaktikaren katedraduna

Kolaborazio honetan jardunbide egokiak hautatzeko aintzat hartzen diren irizpide objektiboak deskribatzen dira. Aurrez kontuan izan da hezkuntzak XXI. mendean duen panorama, 1. irudiko kontzeptu mapan zehaztua. Halaber, 0-6 urteko haurren ezaugarriei dagozkien printzipioak eta hezkuntza maila horretan hezkuntzak duen garrantzia. Hautaturiko jardunbidea Iruñeko Haur eta Lehen Hezkuntzako “San Frantzisko” ikastetxe publikoan egiten ari da.

Gako hitza: ikerketa proiektua.

Maila honetako irakasleendako duen garrantzia eta ardura

Guztiok ezagutzen ditugun datuak badira ere, nire ustez, komeni da freskatzea. Harvard-eko eskola famatuko MacNamarak (Novak-ek aipatua, 1998, 67. or) ondokoa esaten du:

- Jaiotzaren unean, giza burmuinaren milaka milioi neurona jada sortu dira. Zelulen hazkundeak burmuinaren tamaina eta pisua handitzen joatea ahalbidetzen du.
- Hazkunderik handiena jaiotzatik 2 urte bete arteko epean izaten da eta praktikan hazteari uzten dio 7 urtetik aurrera. Arau jesuitiko ezagun batek dioen bezala: “utziezadazue haur batekin bere bizitzako lehen 7 urteetan lan egiten eta, ondoren, egizue berarekin nahi duzuenan”
- Garapen kognitiboa jaio et ahandik gutxira hasten da eta 15 hilabeterekin haurrik gehienak mintzaira erabiltzen hasten dira beren ideiak adierazteko.
- Gizakia baino ez da gai halako ikaskuntzarik egiteko. Haurrak hitzendako esanahiak eraikitzen ditu, baina, aldi berean, kontzeptuak eraikitzen ditu.



Fermín M^a González García

MacNamarak berak adierazten du, 30 eta 36 hilabete bitartean, haur normal guztiek dituztela helduek arrazoitzeko baliatzen dituzten jarraibide berak. Autore hauek bereziki azpimarratzen dute haur txikien potentziala, ziur aski ere, askoz handiagoa dela ohiko hezkuntza praktikan ikusten dena baino eta, beraz, hezkuntza praktika tradizionalan ikasten dutena baino askoz gehiago ikas dezaketela.

Haur Hezkuntzaren hobekuntza, zalantzarik gabe, prozesu konplexua da eta bertan hainbat faktorek esku hartzen dute:

- Hezkuntza politikak eta baliabide eskuragarriak;
- Herri bakoitzeko tradizio eta kultura bereziak eta une bakoitzean haurtzarora bideraturiko tresnak finantzatzeko eta antolatze sistemak.
- Irakasleen prestakuntza eta esperientzia eta familien trebakuntza eta pertzepzio partikularra hezkuntza goiztiarraren gainean.

Baina horietan guztietan, haur hezkuntzaren kalitatean eragin nabarmenena duen faktorea eta, hain zuzen ere, aldi berean, hobekuntza ekimenei lotuen dagoena, zalantzarik gabe, hau da: profesionalen jardura, eta profesionalak gauzatutako hezkuntza praktikak. Hezkuntzako erakundeetan garapenari eta berrikuntzari buruz egin diren ikerketek agerian utzi dute zeinahi aurrerapen aukerak irakasleen konpromisoa eskatzen duela, kalitate planteamendu berriei dagokienez.

Finantziarioa eta baliabideen eskuragarritasuna bezalako faktore giltzarriei garrantzirik kendu gabe, deus ez da lortuko hezitzaileak kontuan izan gabe, hauek baitira, finean, erronka eta ikuspegi berriak hezkuntza jardura zehatz bihurtuko dituztenak.




Figura 1. Mapa conceptual sobre la Educación en el siglo XXI (González, 2011)

Haur Hezkuntzako ikerketa Espainian

Gure herrian, Haur Hezkuntza ez da izan ikerketa eta azterlan pisuzkoen esparrua (Zabalza, 2005). Oso gutxi dira urtero gai honen gainean aurkeztzen diren ikerketa proiektuak, eta are gutxiago finantzazioa lortzen dutenak. Agian ibilbide historikoa falta zaigu, irakasle eskolae unibertsitateetan berandu sartu direlako. Litekeena da, halaber, egoera hau ematea gure herrian haurtzaroen gaineko kultura, nolabait, teknikoa baino espezialagoa izatearen ondorioz.

Horrela, Espainiako panorama, oso aberatsa bada ere Haur Hezkuntzako esperientzietan, eskas samarra da esparru horretako ikerketari dagokionez. Jardunbide egokiaren gainean egindako lanak dibulgazio eta esperientzien azaleko aurkezpen gisakoak izan dira gehiago, sakoneko azterketak baino.

Haur Hezkuntzako jardunbide egokiaren gaineko ikerketa proiektua

Hezkuntza, oro har eta, bereziki, lehen haurtzaroko hezkuntza, hasi berria den mendeko agenda politikoko konpromiso nagusi bilakatu da. UNESCOk ideia hau jaso zuen hamarkada honetarako hezkuntzako bere helburu estrategikoan:

“Sustatzea esperimentazioa, berrikuntza, eta informazioaren zein jardunbide onenen hedapena eta partekatzea, eta baita hezkuntzaren esparruko ekintza printzipioen gaineko elkarrizketa ere” (UNESCO 31C/4).

Antzeko hitzekin, UNESCOko 4 institutuak bat den Hezkuntzaren Nazioarteko Bulegoak (HNB) xede nagusizat du hezkuntza edukiarekin, metodoarekin eta ikaskuntza-irakuntza estrategiekin loturiko gaiak lantzea. Ikuspegi gisa honako hau du ezarria:

“Bikaintasunaren eta guztiondako kalitatezko hezkuntzaren bilaketa etengabea, hezkuntzaren kalitatearen ekitateak erronka unibertsal hauskaintza izaten jarrai dezan. Garapenari erantzuten dion curriculumean inbertitzeak begien bistako onurak ekartzen dizkio gizakiari eta onura sozial eta ekonomikoak ere ekartzen ditu, gure estatukide guztien berdintasunezko garapen iraunkorra bermatuko dutenak. Uste osoa dugu ideia honetan eta berari jarraikiz ari gara lanean”

Eta xede gisa aipatzen du:

“Hezkuntza ministerioek eta gobernuak aurrean dituzten erronketarako laguntza eta konponbideak eskaintzea, curriculumen, irakaskuntzaren, ikaskuntzaren ebaluazio prozesuen eta emaitzen kalitatea eta egokitasuna hobetzeko lan konplexuan.

Gainera, urte hauetarako oinarritzko xede gisa aintzat hartuko da:

“(a) Informazioaren zirkulazioa eta esperientzia trukea erraztea mundu guztian barrena.

(b) Informazio eta esperientzia hauek sistematizatzea, aztertzea eta beren esku jartzea”.

Printzipio hauek kontuan izanik, ikerketa proiektu bat aurkeztu zen, Haur Hezkuntzako jardunbide egokiak identifikatzeko, aztertzeko, irudikatze eta bistartzeko ildo estra-

tegiko horretan kokatu zena. Proiektu honen koordinazio orokorra Santiago de Compostelako Unibertsitateko Miguel Ángel Zabalza irakaslea ari da eramaten eta Hezkuntza Ministerioaren “Ikerketa zientifikorako, garapenerako eta berrikuntza teknologikorako 2013-2016 plan nazionalaren” deialdiaren baitakoa da, bertatik eskuratu zuelarik zegokion finantziazioa.

Une honetan bukaera fasean dago. Bertan 31 ikerlari eta 6 laguntzaile ari dira lanean. Horietatik 22 emakumeak dira eta 15 gizonak, Espainiako 8 unibertsitatetakoak: Santiago de Compostela, Vigo, A Coruña, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Granada, Balear Uharteak, HUHEZI Mondragon eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoa. Proiektuan lan-kidetzan ari dira Europako 3 herrialdetako (Portugal, Italia eta Erresuma Batua) eta Iberoamerikako 5 herrialdetako (Brasil, Argentina, Txile, Mexiko eta Bolivia) nazioarteko beste talde batzuk.

NUPEko taldea Buldain, Guruceaga, Mendioroz, Hoyuelos eta Gonzalez irakasleek osatzen dute, azken hau koordinatzailea delarik.

Helburu globala

Proiektua eraiki zen helburu gisa izanik:

“Haur Hezkuntzako ehunen bat jardunbide egoki hautatu, aztertu eta bistaratzeari, haur txikiekin egindako hezkuntza lan onaren baldintzak sakonago ezagutzeko, eta hezkuntzako tarte horretako erreferenteak aberasten eta kalitatearen hobekuntzan laguntzea”.

Berariazko helburuak:

- Haur Hezkuntzan jardunbide egokiak identifikatzea ahalbidetuko duten irizpide malgu eta objektiboak adostea. Funtz hiruokitz batean oinarritutako irizpideak: araudi eta gidalerro ofizial aplikagarriak, ikerketaren emaitzak eta nazioarteko literatura.
- Irizpide horren bidez 100 jardunbide nazional eta internazional egoki identifikatzea, hainbat testuinguru sozial eta kulturaletan, erakunde (oso ongi funtzionatzen duten ikastetxeak), curriculum (jardunbide egokiak hainbat curriculum arlotan) eta erkidego (erakundearen eta tokiko erkidegoaren arteko integrazte kasu eredugarriak) mailak beteko dituztenak.
- Jardunbide egoki horietako bakoitzaren ezaugarriak sakonean dokumentatzea eta aztertzea, osagai intelektualei eta operatiboari (oinarriari eta horien garapenerari) dagokienez.
- Kontzeptu mapen eta diagramen bidez, modu argi eta ulertzeko zein erlazionatzeko errazean, aztertutako jardunbide egokien osagai kontzeptual eta operatiboak irudikatzea.
- Aztertutako jardunbide onak bistaratzeari eta kalitatezko Haur Hezkuntzan interesa duten profesional eta ikerlarien eskura jartzea, tresna multimedia eta informatikoen bidez.
- Esperientzien trukerako eta ikaskuntzarako nazio eta diziplina arteko erkidego bat sortzea, Haur Hezkuntzari eta/edo haurtzarari eragin diezaiokkeen zeinahi jarduketa sozialaren esparruko ikerlari, profesional eta interesatuei irekia.

Jardunbide egokiak hautatzea

Aldez aurretik lantaldeak ezarritako irizpideen arabera egin zen. Horrela, unibertsitate parte-hartzaile bakoitzak hemen adierazitako irizpideen interpretazio malgua egin du, bere testuingurura, aztertu nahi den esperientzia motara eta ikerketaren beraren bidera-garritasun baldintzetara egokitzeko. Hori esanik, kontuan hartu dira ondoko irizpideetako bat (edo irizpideen konbinazio bat):

- Berrikuntza: haur txikien zaintza edo hezkuntza arretarekin loturiko jatorrizko jarduerak.
- Hobekuntza: nolabaiteko plusbalio eta hobekuntza (baliabideetan, espazioan, ordu-tegietan, lan egiteko moduetan, erlazionatzeko moduetan, etab.) barne hartzen dituzten jarduerak.
- Oinarri zientifikoa: oinarri zientifiko indartsu bat duten jarduera psikologiko, neurologiko, pedagogiko edo haur txikien garapenarekin loturiko bestelako zientzia edo arteetakoak.
- Ebaluazioa: emaitza positiboekin ebaluatuak izan diren erakunde edo ekimenak, bai lortu dituzten emaitzengatik, bai baldintza edo ezaugarri propioak dituztelako.
- Gogobetetasuna: hezkuntza arduradunendako, profesionalendako, gurasoendako edo bestelako eragile inplikatuendako gogobetegarri diren erakunde edo ekimenak.

Bestelako alderdiak aintzat hartzeko aukera ere iradoki zen, kasu:

- Testuinguruan berean arrakastarekin esperimendu diren eredu edo metodologiei loturiko erakundeak, material berritzaileak edo ezaugarri bereziak dituzten ikasteko giroak sortu dituztenak.
- Berrikuntza bat edo haur txikiekin lan egiteko modu desberdin eta original bat ekarri duten jarduerak. Zenbait kasutan berrikuntza sareetan edo programa berezietan parte hartzen ari daitezke.
- Hezitzaileen ekimenak, beren ideengatik, idazkiengatik, interbentzio publikoengatik, etab. Haur Hezkuntza transformatzeko behararekin loturik daudenak.
- Curriculum tradizionalan garrantzi txikiagoa izaten duten haurren ikaskuntzako eta garapeneko ekimenak: zientziak, arteak, IKTak, hizkuntzak, kulturantzitasuna, etab.
- Gizarte testuinguru gatazkatsu, ahul, kulturantzitun, migrazioengatik edo hondamendi naturalengatik kaltetuetan etab. egindako haur hezkuntzako ekimenak.

Jardunbide egokiak hautatzeko metodologia:

Esperientzietako bakoitza, erakundearekin aldez aurretik adostu ondoren, in situ aztertu zen, lanketa hirukoitz baten bidez:

- Elkarrizketa arduradun eta/edo hezitzaileekin (ekintza instituzionala den edo hezitzailea den);
- Behaketa. Praktika behatzea eta ebidentziak biltzea (grabazioak, produktuak, behaketa pautatuak);
- Dokumentuen azterketa. Dokumentu instituzional eta profesionalak aztertzea (hezkuntza proiektua, taldeko programazioak).

Elkarrizketa

1. Identifikazio datuak:

- Izen-deiturak:
- Jaiotze eguna eta tokia:
- Lanpostua/lanbidea:
- Gaur eguneko bizitokia:
- Egoera zibila eta seme-alaba kopurua
- Egindako ikasketak:

2. Alderdi orokorrak:

- Zure biografiaren kontakizun txiki bat egin diezadakezu, osorik kontaktzen duzun artikulu edo liburu baten laburpena bailitzan?

3. Prestakuntza ibilbidea:

- Zein izan zen zure eskola ibilbidea? Nola gogoratzen duzu?
- Zure prestakuntza prozesuen kontakizun txiki bat egin diezagukezu? Zure bizitzan zehar zer prestakuntza jaso duzu?
- Prestakuntzaren zein unek izan du zure bizitza proiektuan eragin handiena? Zein zentzutan eragin zizun?
- Lanean hasi zinenetik gaur arterainoko lerro bat egiten badugu, zein une izan dira bereziki garrantzitsuak zure karreraren?
- Zeintzuk izan dira zure ibilbidean azaldu diren erraztasun nagusiak eta zailtasunik handienak? Iraganera itzultzerik bazenu, bizitzan zehar izan dituzun prestakuntza esperientziei dagokienez, zer aldatuko zenuke?

Jardunbide egokiaren gaineko datu zehatzak:

- Noiztik ari zara gauzatzen jardunbide egoki hau? Zergatik hasi zenuten? Nolako bilakaera izan du denboran zehar?
- Nola dago antolatua jardunbide egokia? Noren mendekoa da eta nork kudeatzen du?
- Nori zuzendua dago jardunbide egokia? Nahitaezkoa edo hautazkoa da? Jardunbide egokiari batez besteko zenbat denbora eskaintzen diozue?
- Zenbateko kostua du eskolarako edo enpresarako?
- Nola ebaluatzen da jardunbide egokia? Zer da ebaluatzen dena?
- Jardunbide egokia zeri buruzkoa izaten da? Zergatik hautatzen dira gai horiek?
- Nola gauzatzen da unitate didaktikoa, gai multzoka, proiektuka...?
- Jardunbide egokian parte-hartzaileen errendimendua ebaluatzen da? Nola?
- IKTak eta e-learning-ak jardunbide egokietan txertatzen dituzue?
- Jardunbide egokirako material propioak sortu dira? Zer motatakoak? Horien irudiak uzteko prest egonen zinateke, gainerako irakasleen lana aberastu ahal izateko?

Atal/saio baten adibidea:

- Kontaidazu, faborez, jardunbide egoki baten esperientzia, asebate zintuztena edo oroitzapen on bat utzi dizuen.
- Zergatik uste duzu dela garrantzitsua jardunbide hori?

- Zure iritzian zeintzuk baldintza eman behar dira jardunbide egokiak kalitatezkoak izan daitezen?

Jardunbide egokiaren eragina:

- Oro har, asebeteta zaudete egiten ari zareten jardunbide egokiarekin?
- Zertan uste duzu hobetu dela zure enpresa/erakundea, jardunbide egokiaren ondorioz?
- Jardunbide egokiaren benetako eraginaren ebaluazioren bat egin duzue? Zeintzuk izan dira emaitzak?
- Jardunbide egokiak abantailarik badakar hura gauzatzen ari direnendako?

Itxiera galderak

- Zure ustez, jardunbide egoki horrek une honetan zein balio du ikastetxe/enpresaren barruan? Zer ekarpen egiten du benetan?
- Zure iritziz eta, oro har, Nafarroako ikastetxe/enpresak, Haur Hezkuntzako jardueri dagokienez, zer ari dira ongi egiten eta zer gaizki?
- Baduzu zerbait gehiago esateko?

Amaierako txostena

Esperientzia bakoitzaren azterketaren ondoriozko txostena ondoko alderdietan zentratuko da:

- Aztertutako esperientzia zein testuingurutan ematen den (testuinguru soziala, kulturala, ekonomikoa, instituzionala, etab.)
- Proposamenaren funtsa eta, halakorik bada, proposamena zehazten duten dokumentuak.
- Esperientziaren eboluzioa, hasiera eta lehen urratsak (euskarri gisa erabili ziren dinamikak eta gaingitu behar izan ziren zailtasunak barne hartuta). Esperientziaren garapena gaur egunera iritsi arte, pasatu zituen faseak, sortu ziren aldaketa eta hobekuntzak, kolektibo parte-hartzaileak, erabili ziren baliabideak.
- Ekimenaren gaur eguneko egoera. Egiten diren jarduerak. Sortutako materiala. Hasierako eta gaur eguneko egoeren alderaketa.
- Ekimenaren eragina eta emaitza aipagarriak, zein alderdi hobetu den, zertan, zeintzuk ebidentzia diren. Jardunbide egokiaren gaur eguneko AMIA, kalitatearen etengabeko hobekuntzarako prozesu edo esperientziak aztertzekeo tresna gisa.
- Egoeraren balorazioa, inplikatuaren aldetik: esperientziako zer nabarmenak duten, zer bereizten duen beste ohiko praktika batzuetatik, zeintzuk diren ekarpen nagusiak.
- Transferitua izateko aukera: jardunbide egoki honetatik zer transferi daitekeen beste egoera batzuetara.

Iruñeko San Frantzisko HLHIPko esperientzia.

Jardunbide egoki hau hautatzeko orduan kontuan izan diren elementuak.

- Praktika hautatuaren gai orokorra, oro har, Familia eta eskola: harremanen sarea da. Iruñeko Haur eta Lehen Hezkuntzako San Frantzisko ikastetxe publikoan ari da egiten

eta ikastetxeko irakasle diren Pilar Gonzalves eta Joaquín Escaray ari dira koordinatzen. Esperientzia proiekturako funtsezkotzat jotzen diren ardatzetako batean oinarritzen da:

“Testuinguruan barneratzea eta familiekiko lana (familiekin lankidetzan aritzeko pentsatu diren lankidetzak estrategiak, ingurunearekin ezarri diren loturak, gizarte eragileen parte hartzerako ireki diren bideak eta nola funtzionatzen duten)”.

Teoriak gidaturiko praktika bat da. Marko teoriko potenteak, mundu mailan erkatuak daudenak, kasu, Loris Malaguzzirena, besteak beste, Hoyuelos irakaslearen (2013) dekalogo etiko baten implementazioan islatua, zeinetan zehazten den “gurasoek eskola egunaren hasieran eta bukaeran ikasgelan sarbide libre eta antolatua dutela”. Eta, halaber, Ausubel, Novak eta Gowin (González, 2008) autoreen ikaskuntza esanguratsua eta ezagutzaren eraikuntza.

- Azkona eta Hoyuelos irakasleen Kalitatearen Ebaluaziorako Irizpideen dokumentua (2011), EFQM ereduaren oinarritua, 6 ardatzen arabera antolatzen da. Horietatik bi horrela adierazten dira:
 - Proposamen pedagogikoa, uneak eta familiarekiko erlazioa.
 - Familia eta ingurune soziala.

Horietako bakoitzean esperientziaren egileek xehetasunez dokumentatzen dituzte eredu ebaluatzailearen aplikaziorako gakoak. Hauek dira: definizioa, adierazleak, ebidentziak eta ebaluazioa.

- Eskolaren posizio estrategikoa, ikuspegi soziologiko eta kulturantzunari dagokienez aberatsa den auzo batean, populazio immigrante eta ijito etniako askorekin.
- Egileen eginahala eta konstantzia, esperientzian sei urte baino gehiagoko praktika izan baitute. Esperientziak etengabeko eztabaidatze eta ebaluazio prozesuak izan ditu, eta beraz, feedbacka edo atzeraelikadura etengabekoa izan da, ebaluazioa etengabeko hobekuntzarako motor gisa ulertuz, eta Haur Hezkuntzako ikastetxeetan kalitatea bermatuz.
- Areago esanen nuke, eta ez da inolaz ere huskeria, esperientzian inplikazioa izan duten pertsonak asebetetze maila handia izan dutela: irakasleek, ikasleek, praktiketako ikasleek, familiek, langile laguntzaileek eta bestek.

Proiektuaren egoera orokorra

Hau da proiektuaren gaur eguneko egoera (hurrengo orrian).

Erreferentzia bibliografikoak

AZKONA J.M. eta HOYUELOS, A., "Reflexiones sobre la calidad en las escuelas infantiles", *Tarbiya* 42, 2011, 157-185 or.

GONZÁLEZ, F.M., *El Mapa Conceptual y el Diagrama UVE. Recursos para la Enseñanza Superior en el siglo XXI*, Madril, Narcea, 2008.

HOYUELOS, A., "Aprender en la escuela". *Infancia* 137, 2013, 32-38 or.

NOVAK, J.D., *Conocimiento y Aprendizaje. Los mapas conceptuales como herramientas facilitadoras para escuelas y empresas. Psicología y Educación*. Madril, Alianza Editorial, 1998.

ZABALZA, M. A., Ikerketa proiektua: *Diseño curricular y Buenas Prácticas en Educación Infantil: Una visión internacional, multicultural*, "Ikerketa zientifikorako, Garapenerako eta Berrikuntza Teknologikorako Plan Nazionala 2013-2016", Hezkuntza Ministerioa, 2013.

Gure esperientzia Jauntsaratseko eskolan

Maite Rey Urmeneta, Nerea Mariezkurrena Ezkurra,
Amaia Ariztegi Barberena, Arantza Guruceaga Zubillaga

Jauntsaratseko eskolan aurrera eramandako esperientzia rol ezberdinak dituzten lau pertsonak kontatzen dute. 3, 4 eta 5 urteko hurrek talde bakarra osatzen dute, bere hezitzaile guztiak tutoreak direlarik. Honi esker espazioa era osagarrian antolatzen eta haurraren interesaren arabera aldatzen da, bere bidea diseinatzen duelako eta hezitzaileak lagun duelarik. Haurra izatea da praktika honen oinarrian dagoena. Beste gauzen artean, haurraren autonomiaren garapena sustatzen duen giro sortzea bilatzen da. Planteamendu hau bailarako pertsona batzuei eskola eredu alternatiboa edota hurrek nahi dutena egiten duten eskola eredu bezala iritsi izan zaie, baina berez, komunitateari irekia dagoen eredu da.

Hitz-klabeak: autonomia, espazioak, garapen, ikerketa, komunitate.

Maite Rey Urmeneta

Irakaslea

Haur hezkuntzako hezitzailea naiz eta azkeneko ikasturteetan Oihanzabal eskolan egon naiz. Han nengoela, bai nire bikote hezitzaileari baita niri ere, proiektu berezi batetan parte hartzeko proposamen eta gonbidapena etorri zitzaigun: "Praktika onak". Beti esan dugun bezala, oso interesgarria ikusten dugu egiten diren esperientziak ezagutaraztea eta proiektu honek hori egiteko aukera ematen zigula pentsatu genuen, hortaz baiezkkoa eman genuen.

Orain ez nabil irakasle baina Aintzanerekin aritu naizenean, nire bikote hezitzailea, egin dut lan, eta horregatik kontatuko dizuedana nire esperientzia da, berarekin batera lan egin nuen bitartean. Hau da, zer egiten genuen, nola iritsi ginen erabaki horietara,



Maite Rey Urmeneta

zertan oinarritu ziren gure erabakiak, gure lan egiteko modua zein zen, eta nola eraman genuen aurrera esperientzia hau.

Eskolaren aurkezpena

Jauntsarats herrian dagoen Oihanzabal eskolan bailara osoko haurrak biltzen dira, urtearen arabera taldekatze desberdinak ematen direlarik. Haur hezkuntzan talde oso eta bakar bezala antolatzen gara, 3, 4 eta 5 urteko haurrak nahasian eta hezitzaileok guztion tutore. Honek ahalbidetzen digu espazioak ere modu orokor batean egituratzen, hau da, eskaintzen diren proposamenak beraien artean osagarri dira, haurren interes eta behar desberdinei erantzun ahal izateko.

Honela, haur bakoitzak momentuan duen interes eta irrikaren arabera espazio, material eta lagunak aukeratzen ditu eta gu, hezitzaileok, bide horretan lagun izanez.

Gure helburua

Guk ahal dugun guztia egiten dugu eskola denon gustura egoteko tokia izan dadin. Gauzak lasai eginez, denok ongi sentituz, guk hezkuntza geldo batean sinesten baitugu, kalitatezko hezkuntzan.

Lan egiteko modua filosofia baten barruan kokatzen dugu, haurra ikusteko eta ulertzeko moduaren arabera, haurren irudia garrantzi handiko aspektua dela uste dugulako. Horregatik, sentitzeko, aditua eta ulertua izateko eskubidea duen haurraren sinesten dugu; autonomia dena, norekin, nola eta noiz jolastu, parte hartu edo hitz egiteko erabakitzeko gai dena; ingurua aztertu, ukitu eta interpretatzeko gogoia eta jakin-mina duena ezagutzak erakitzeko gaitasuna duena; bakarra eta errepika-ezina dena; aberatsa eta sortzailea; eskubideak eta ardurak dituena; helduaren maitasuna behar duena; errespetatua izatea merezi duena. Bistan da haurtzaroak denbora behar duela jolasteko, garatzeko edo izateko. Bide horretan haurra eta inguruaren bilaketaren oreka

topatzen lagunduko duen heldua behar du, erreferente gisa, eskubide eta betebeharrak dituen.

Oinarrizko zutabeak

Azaldutako haurren irudia abiapuntua izanda, egunerokoan gure lan egiteko eran oinarrizko hiru zutabe kontuan hartzen ditugu:

- Uneari eta haurtzaroari errespetua, bizi dugun momentua klabe bezala. Guretzat haurtzaroan garrantzitsuena umeak ume izatea da. Haur hauek leku eta momentu zehatz honetan esaten, ikasten eta egiten dutena baloratuz, hazteko, nortasuna garatzeko eta disfrutatzeko denbora izango duen haurtzaroa aldarrikatzen dugu. Horrela, dituzten ahalmen eta gaitasun guztiak loratuko dira. "Hay mucho tiempo para ser adulto, y muy poco para ser niño" (Christopher Clouder, Presidente de Escuelas Waldorf.) "Con los ojos puestos en el futuro o en el pasado, es muy fácil desperdiciar el latido diario, breve e irrepetible de la vida que tenemos entre manos" (Elsa Punset).
- Berezko jokoari errespetua, zortzi urte bitarte haurrek duten bizitzeko modua bezala. Haurarentzat jokia plazera baino askoz gehiago da, bizipen ezberdinei eta munduari aurre egiteko modua eta tresna da, eta beraz, bizi beharra. Jolasaren bidez ere, haurra maila fisikoan, kognitiboan eta emozionalean garatzen da. Berezko jokia haurrek beraiek, beraientzat, beraiegandik sortutakoa eta beraiek antolatua dena, joko aberatsa, zoragarria, irudimenez betea izango da, propioa, naturala.
- Heldu bezala gure eginkizuna haurren prozesuetan bidelagun izatea da. Horretarako hainbat gauza izaten ditugu kontutan:
- Hezitzaile bikotea-hirukotea: Haur talde beraren ardura bi hezitzailearen artean banatzean datza. Hezitzaile bikoteak egunerokotasunean hartutako konpromisoarekin, eta haur bakoitza eta bere familiari eskaintzen diogun koherentzia handiagoa dela uste dugu.
- Lotura sortu: Hezitzaile batek taldera iristen denean egin behar duen lehendabizikoa lotura sortzea da. Haurrak ziurrak, maitatuak eta kontuan hartuak sentitzen direnean beraien buruarengan sinesteko gai direlako.
- Konfiantza: Beraiegan konfiantza izanda aukera eskaintzen diegu sortzen diren erronkak eta gatazkak beren kabuz konpontzeko.
- Bidelagun izan: Kontzeptu eta zeregin konplexua da, bidelagun izatea ez da aurrean, ezta atzean egotea, ondoan baizik.
- Mugak: Behar beharrezkoak dira bizitzaren parte direlako. Momenturo eta espazio guztietan zer egin dezakegun eta zer ez esaten diguten muga batzuk behar ditugu, ezagunak izango direnak eta lasaitasuna transmitituko digutenak, honela poliki-poliki haurra bere ekintzen ardura zehatzak bereganatzen joango da. "Vivir significa estar limitado" (Rebeca Wild).

Hezitzailearen lana

Hau guztia egin ahal izateko behaketa egin, dokumentazioa jaso, informazioa bildu eta formatzen jarraitzea ezinbestekoak dira. Hezitzaile moduan ez gara haurren prozesuetan

aurreratuko eta horretarako behaketa funtsezkoa da, honela jakin baitezakegu zertan ari diren, zer behar duten, ze momentutan dauden. Eta nola ez, hobekuntza bilatu nahian ezinbestekoak dira ikastaro, irakurketa, hausnarketa, gogoeta eta gaiak komunean jartzea, hau da, formazioa.

Hezkuntza funtzioa eskolan eta familian osagarriak dira. Haurtzaroaren onerako proiektu komuna baita eta honengatik guk familiak eskolako parte senti daitezen nahi dugu, horretarako komunikazio bideak eraikitzen saiatzen gara aukera desberdinen bidez: gelan sartuz seme-alabek eguna pasatzen duten lekua ezagutuko dute. Horrela, dokumentazioa, txoko gustukoenak, materialak, prozesuak eta, oro har, seme-alabekin eskola eguna bizitzeko aukera dute.

Hezitzaile bezala zuzena ez den esku-hartzea burutzen dugu, haurren garapena ahalik eta onuragarriena izan dadin proposamen egokiak eskainiz. Horretarako espazio nahikoa, ziurra, lasaia eta parte-hartze zuzenik gabekoa sortzen dugu, material aberatsak aniztasunean, kalitatean eta kantitatean izaten. Proposamenak alde aurretik pentsatuak dira, zainduak, modu estetikoan eta erakargarrian jarriak, ikerkuntzara eta hamaika irtenbideetara bultzatzen dutenak izatea bilatzen dugu. Heldua, bitartean, behatzailea da, segurtasuna eskaintzen du eta bidelagun izango da. Proposamenen atalik garrantzitsuena geletako giroak dira eta horregatik eskolako denbora gehiena giroetan ematen dugu.

Giroak

Haurren pentsatzeko eta sentitzeko modua errespetatuko duen giroa sortzen saiatzen gara, non ideiak eta haien elkar trukea ahalbidetzen dituen. Argitsuak eta goxoak izan behar dira, estetikoki ongi zaindutakoak eta garbiak. Haurren gaitasuna eta joko autonomoa piztuko duen antolatutako giroa eskaintzen saiatzen gara, ezagutzak eraiki eta iker-zea ahalbidetuko duena, lagun artean zabaltzeko aukerarekin.

Giroak arreta handiz antolatu eta diseinatutakoak dira, horretarako materialen aukera posibleak ikertzen ditugu. Honetaz gain, behin erabileran dauden materialen azterketa egiten dugu erabilera, erantzunak, kalitatea edo moldagarritasuna jakiteko. Bestalde, taldearen araberako aldagaiak kontutan hartzen dira (haur kopurua, momentuko interesak, dagokigun espazioa), gela eta bertako materiala antolatu, ikuskatu, ebaluatu eta aldatzeko.

Gure proposamena zirkulazio librean oinarritzen da gelan eta giroetan. Haur bakoitzak erabakiko du zein gunera joan, zeinekin, zein material erabili edo zenbat denbora igaro, erabakiak hartu eta erantzunak jasotzen dituen umeak, bere garapenarekiko ardura hartzen duelako.

Balitzko giroak izan daitezke: Joku sinbolikoarena (Sukaldea, etxea eta mozorroak), tailer txikia, eraikuntza giroa, ipuinena, mahai jolasena, idazketa giroa, haziak, ura eta arearena edo pasabidea. Giro bakoitzak aukera espezifikoak dituen arren, dena elkarri lotua dago, beraien artean osagarriak dira eta denek ezaugarri kognitibo, afektibo eta elkarrezagutzakoak dituzte.

Ikasleen gaitasunak

Lan egiteko modu honek ondorengo ezaugarriak dituen ikasleria garatzen ahalbidetzen digu: kritikoa, zintzoa, autonomia, begirunetsua, jakinguraz betea, langilea eta ziurra.

Eta guk batez ere haurren gain zentzuzko gaitasun ikusten ditugu:

- Haurrak lasaiago ikusten ditugu.
- Erabakitze gaitasun handiagoa ikusten diegu.
- Konpromezu handiagoa hartzen dute ikaskuntza prozesuarekin.
- Sortzen diren jolasak bapatekoak, aberatsak eta sormenez beteak dira.
- Konfiantza handiagoa dute beraien buruarengan.
- Autoestima handia erakusten dute.
- Zoriontsuagoak dira/gara denok.

Nerea Mariezkurrena Ezkurra

Jauntsaraseko ama

Kontatzera heldu naizen esperientzia, batez ere, gure familiak Haitzekin bizitakoa da. Beraz gure kontakizuna da eta ez beste inorena (beraz konpartituko duten familiak badira eta alderantziz ere noski). Oihanzabal eskolaz aurretik genuen irudia hauxe zen: eskola ttiki bat eta pedagogikoki gauzak beste modu batera egiten saiatzen zirela. Gainera, hurbileko herri eta inguruarekin hartueman izan nahi zuen eskolarena.

Gure esperientzia aurreko ikasturteko ekainean hasi zen irailean hasiko ginen haurren familiak eskolara gonbidatu gintuztenean. Bertan, eskola eta Haur Hezkuntzako gelak ezagutu genituen eta, are gehiago, kontaktu ziguten egunerokotasunean zein modutan ariko ziren gure seme-alabekin. Politu, hurbila eta ilusioz beteriko proiektua zela sentitu genuen.

Iraila iritsi zen. Eskola hasiera eta harrera garaia egokitzen zen. Ni behintzat, leku berri batera iristen naizenean, nahiko eta beharko nukeen harrera izan zen hura. Prozesu guztia errespetuz bizitzeko gonbitea egin ziguten. Eta lasaitasunez eta interes handiz bizi izan genuen.

Urriaren bilera teorikora gonbidatu gintuzten. Lau irakasleak kontatu zuten zergatik jotzen zuten haurrekin modu horretan. Alde zientifikoenetik, bihotzeko alderik goxoenera azaldutako arazoak eman zizkiguten. Familiak kokatzeko oso baliagarria iruditu zitzaigun. Irakasle hauek zuten begirada eta haurren ondoan egoteko era ulertzeko, tresna izan zen bilera hura guretzako.

Denbora pasa eta eguneroko oroitzapenak, beste askoren artean, hauexek ditugu:

- Eskolara sartu eta izaten genuen lehenbiziko sentsazioa, familia gehienek aipatzen genuen kontua zera da: lasaitasuna eta armonia arnasten zela eta gehienetan haurrak berean zeudela, ikusten, ukitzen, probatzen, ikasten.
- Eta helduak non? Ez ziren gelako erdigunea, gehienetan haurrei begira zeuden, lxil ixilik, edo umeen ondoan, behar zutenerako prest, askotan libreta eta argazki kamera lagun zutela. Beti umeen beharrei erreparatzen zuten: negarra zela, kuriositatea konpartitzen edo azkeneko aurkikuntzaren kontua entzuten. Behar ze-

nean ere, arauak gogora ekartzen zizkieten edota betearazteko lanean jarduten zuten, haurren artean sortzen ziren konfliktoak eta hauek landu eta nola kudeatu zitekeen hausnartzen laguntzen zieten. Giro horrek segurtasuna ematen zigun.

- Batzuetan, irakasleak eskatuta, elkarlanerako proposamenak sortzen ziren. Txokoak apaindu edo osatzeko behar ziren gauzak eta materialak biltzen eta sortzen lagundu genezaken. Familiak parte hartu ahal izatea arrunt interesgarria zen. Eskolaren parte sentitzeko beste modu bat bihurtzen zen.
- Eskolara egun-pasa ere joan gintezken. Egun oso bat han pasatu eta bertatik bertara eskola ezagutu eta sentitu aukera genuen. Haurreenganako begirada hura ulertzeko haien azalpenak eta ekintzak ikusten genituen, haurren ondoan egoteko modua nolakoa zen ikasten genuen. Eta giroa lasai mantentzeko eta harremanak zaintzeko errespetuzko arau horiek nola lantzen zituzten bizi genuen. Egun hori konpartitzea garrantzitsua zen guretzako ere familia gehienak asko eskertzen genuen.
- Urtean zehar irakasleekin egiten ziren 2-3 banakako bileretan beste hartu-eman bat izaten genuen gurasook.

Aurrez aurre, informazio guztia jaso eta konpartitzen genuen. Haurren prozesuaren berri ze nolako detailez ematen ziguten, gertatutako anekdotak ere, haurrak egindako aurkikuntzak bere autonomian, ezagupenetan, harremanetan... eta abar, hori guztia entzunda, maila handiko profesionalak zirela ikusi genuen. Lana oso serio hartzen zutenak gainera. Txokoetara sartzean askotan ikusitako irudiaren balioa ulertu genuen orduan, libretarekin apunteak hartzen edo argazkiak ateratzen ikusi genituenetan, behaketa lan fina egiten zutela ikasi genuen eta zertarako zen hain baliagarria. Horrelako informazioa eta azalpena emateko ezinbestekoak zituzten lan tresnak.

Laburbilduz, oso esperientzia interesgarria eta polita izan zen. Eskolan ere, familiak parte har dezakegula erakutsi ziguna. Guraso bezala, Haitzekin eta Ur-ekin, ez bakarrik etxeko eta familia inguruan parte garrantzitsua izateko, baizik eta hainbeste eta hainbeste ordu pasatzen duten eskolako kide izan gintezkeela eta ginela sentitzeko baliagarria izan zen.

Bizitzako prozesu guztietan bezala, honetan ere oso garrantzitsua den kontua aipatu gabe ez nuke bukatu nahi, familiak eta eskolak ekipoa egin behar dugula uste dugu. Interes berak mugitzen gaitu. Gure haurrek bere prozesu propioa bizitzeko eskubidea dutela eta laguntzeko gaudela bakoitzari dagokion eremu eta funtzioetatik. Horretarako ezinbestekoa da konfidantza, irakasle-guraso / guraso-iraskale, eta errespetua. Elkarlan zoragarria egiten duen ekipoa izatea lortu behar dugu.

Amaia Ariztegi Barberena

NUPEko praktiketako ikaslea

Nire esperientzia hain zuzen ere Alfredo Hoyuelosekin hasten da. Berak NUPen ematen duen ikasgaiari zenbait eskoletan behaketak egiteko aukera eman zigun. Hain zuzen ere, hezkuntzako zenbait profesionalen artean sortutako dekalogo bat betetzen zuten eskolak. Eta horietako bat Jauntsaratsekoa zen. Oihanzabal eskola nire herritik hamar minutura dago eta zerbait entzuna neukan: “Haurrek nahi dutena egiten dute”, “eskola alternatiboa da” eta iritzi hauekin inkonozienteki iristen zitzaizkan mezua “giro kaotikoa” edo “limite ezarena” zen. Honez gain, unibertsitateko klasean ere zerbait ere irakurri eta hitz egin genuen “gela irekiak” kontzeptuaren inguruan, “korridoreak espazio hezigarri bezala erabiltzea” defendatzen zituzten artikulua.

Idea guzti hauekin eskolara joan nintzen eta bertara sartzean atentzioa lehenbizikoz deitu zidana izan zen: apal moduko batzuk ikusi nituen lurrian, haurren zapatez eta oinetakoz beteta. Aurrerago azalduko zidaten bezala, haurrek etxeko giro hori ere eskolan sentitzeko bide bat zen eta, aurrerago konprobatu nuen bezala, sentazio hori bizi izan nuen eskolan etxeko zapatiletan ibiltzen.

Gela horietako batera sartzean harriria gelditu nintzen. Espazio zabalak, giro lasaia, askatasuna ikus nezakeen haurrengan. Honez gain, irakasle eta haurren artean harreman zuzena, intimoa, berezia ikusi nuen. Haurren altuerara jarriz, begirada mantenduz. “Negarrean lagundu” deiturikoa ere argi eta garbi ikusi nuen. Dena izan zen harrigarria, baina batez ere haurren askatasuna eta autonomia maila handiak deitu zuten nire atentzioa.

Garai horretan Maite Rey eta Aintzane Buldain ziren Jauntsaratseko haur hezkuntzako gela irakasleak eta, behaketak egin eta gero, haiekin hitz egiteko aukera izan nuen, galderak, zalantzak, kezak planteatzeko. Benetan aberasgarria izan zen behaketa bera eta errealitate hori posible egitea lortu zuten pertsonetako batzuekin hitz egitea ere.

Unibertsitateko klaseetan ezagutu nituen esperientzia utopiko horiek, Ecuadorreko El Pesta esperientzia edo Bartzelonako El Martinet bezalako proiektuak errealitatean ikusi nituen eta, gainera, nire etxetik hamar minutura. Beraz, esperientzia horiek errealitatean aurrera eramaten ahal zirela ikusi nuen edo behintzat eskola tradizionalaren bestelako esperientziak. Beraz, nolabaiteko esperantza sortu zitzaizkan beste hezkuntza mota bat errealitatean aurrera eramatea posible zela egiaztatu bainuen.

Eskola ezagutu eta gero, interes handia sortu zitzaizkan lan egiteko modu honen inguruan. Gauzak horrela, azken urteko praktikak Oihanzabalaren egitea eskatu nuen. Nire asmoa lan egiteko modu hau sakontasunean ezagutzea zen. Jakitea nola zen egunerokoa eskolan, nola lan egiten zuten irakasleak. Azken finean, nola lortzen zuten horrenbeste gustatu zitzaizkan hori aurrera eramatea.

Bertan eman nituen zortzi asteetan asko disfrutatu nuela esan beharra daukat. Oso eroso eta oso gustora egon nintzen. Nik sentitzen nuen lasaitasun hori giroan zegoen eta ziur nago haurrek ere sentitzen zutela. Lehen aipatutako askatasun hori berezko jolasean ikusi nuen haurrak norekin eta nola jolastu nahi zuten erabakitzen zutelako.

Hasieran aipatu ditudan ideiak “kaosa” edo “limite eza” ez nuen inondik inora ikusten. Mugak noski zeudela, gutxi baina elkarbizitzarako beharrezkoak direnak. Beraz, ideia guzti horiek alde batera utzi nituen.

Bukatzeo, eta hausnarketa pertsonal bezala, guzti honen atzean lan handia dagoela egiaztatu dut. Jauntsaratseko eskolako proiektu hau ez da egun batetik bestera sortzen. Nahiz eta lan egiteko modu hau gustatu prestaturia egon behar zara, formazio eta esperientzia zabala izan eta lan egiteko gogo handia eduki.

Benetan eskertzekoa da proiektua hau aurrera ateratzen lagundu duten pertsona guztiek egin duten lana eta ni bezalako ikasleoi ere beren lana azaldu eta erakusteko prest egotea.

Arantza Guruceaga Zubillaga

NUPeko irakaslea eta ikerketa taldearen parte hartzailea

NUP-eko ikerketa taldeak HH-ko praktika onak aztertzerakoan, ikusi dugu, Maite Rey eta Aintzane Buldainen eskutik ezagutu dugun Jaunsaraseko Oihanzabal eskolan burututako esperientzia honek kalitatezko praktiken hainbat ezaugarri bermatzen dituela. Eta nik, Maitek berak esperientzia aurkeztu aurretik, haren hiru ezaugarri aipagarri laburbilduko ditut:

- Edozein irakasle edo tutore lanek eskatzen dute ikertzaile izate hori barneratua edukitzea, horrela, dagokion testuinguruari eta erreferentzia teorikoei egokitutako interbentzioak burutzen baitira. Horregatik, aipatu nahi dut proiektu hau, lehenik eta behin, irakasle taldean eztabaidatua izan dela, eta adostutako erreferente teorikoetatik abiatuta beraien proposamen praktikoa egin dutela. Bertan, haurrak eta bere zoriona proiektuaren erdigunean dituzte eta irakasleek proposatzen dituzten interbentzio burutsuak jarraipen estua izateaz gain, errebisatuak eta aztertutako izaten dira etengabeko hobekuntzak bideratuz. Gainera esan dezakegu, proiektua hain sendoa denez, lortu dutela beste irakasle berriekin ere garatzea.
- Proiektuak haurren ongizatea bermatu nahi du, eta honetarako, adostasunez aukeratu dituzte bi ardatz nagusi hauek: askatasuna eta konpromezua. Ardatz hauek, NUP-eko ikerketa taldeko Alfredo Hoyuelosek proposatutako HH-ko interbentzioen “Decálogo ético”an garbi eta argi barneratzen dituen ardatzak dira, hain zuzen ere. Egia da, jakin badakigula askatasuna eta konpromezua elkarrekin, hain konplexuak den eskolan uztartzea ez dela gauza erraza, baina justu horregatik da proposamen hau hain interesantea. Gainera, Bigarren Hezkuntzako irakasle naizelako azpimarratu nahi nuke, ulertzen dudala gure haurren hezkuntza bi zutabe hauetan oinarritzea ezinbestekoa dela etorkizunean izango diren nerabe eta gazteek enpatia eta sormena bezalako baloreak garatzeko. Era berean, gehituko nuke, noski, haurren ongizatea bermatzea ezin dela eskola komunitatearen ongizateetik bereiztu, ondorioz, esperientzia honetan eskolako bizikidetzaren garapen positiboa ziurtatzen dute.
- Azkenik, irakasle hauek bere praktikarekin lotuta eskolaren antolaketa bat sustatzen dute eta honek eskolako partaide guztiengan eragina du. Horrela, eskolako beste

ikasle eta irakasle, familia eta langile, proiektuarekin eta parte hartzen duten hurrekin harremanatzen dira eta interakzio eta harreman konplexuagoak sustatzen dira. Esan behar da ikastetxearentzat eta bailara osoarentzat ekarpen handiak eta aberatsagoak sustatzen direla.

Beraz, proiektu honen inguruko ezagutza, denon interesa pizteaz gain, gure eguneroko lanaren ispilu izan daitekeela eta zertan hobetu eta zertan hausnartu identifikatzeko lagungarria izango zaizuela.

Ateraldiak auzoan barna

Mendillorriko H.H.-ko 0-3 Zikloa

Concha Gaztelu, Maitane Melero, Naiara Domínguez

Mendillorriko Haur Eskolak “Auzotik ateraldiak” praktika ona aurkezten du. Praktika honen oinarrian, zuzenean inplikaturik dauden parteen arteko eskolaren eraikuntza dago, hau da: haurrak, familiak eta zentroaren profesionalak. Helduaren begirada zuzentzen duten galderak daude praktika honen inguruan: nola bizi dute hurrek auzoa? Non kokatzen ditugu arrisku, galzori eta erronkaren arteko ezberdintasun eta mugak? Honetarako, astean behin, ordu batez, haurren senideak eskolara doaz, auzoan zehar paseo bat ematen laguntzeko. Helduen eginbeharra laguntzea besterik ez da, baina ez fisikoki bakarrik, bere ibilbidea segituz, bere interesak errespetatuz, haurrak entzunez eta bere aukerak ulertzen saiatuz.

Hitz-klabeak: ateraldiak, arriskuak, auzoa, erronkak, ibilbidea, laguntzea.

Hezitzaileentzat

Concha Gaztelu

Mendillorriko HEko hezitzailea

Mendillorriko Haur Eskola Iruñeko Udalaren 0–3 urteko haur eskolen sarean sartua dago. 102 haur ditu matrikulaturik, bost sektore desberdinetan banaturik adinaren arabera. Talde guztiak hezitzaile bikote baten tutoretzapean daude, bat izan ezik, premia bereziei arreta emateko modulu bat duelako hezitzaile hirukoteak gobernatzen duena.

Eskolak orain dela 16 urte zabaldu zituen ateak oraindik eraikitzen ari zen auzo batean, eta auzo horren izena hartu zuen. Bertan, etxeek ez dute 3 solairu baino gehiago,



Concha Gaztelu, Maitane Melero, Miren Oñate, Naiara Domínguez eta Ana Mendioroz

badira lorategiak etxe-uharteen artean, eta eremu osoa inguratzen duten berdeguneek kanpoaldeko errepideetatik bereizten dute.

“Jardunbide egoki” hau bilaketa baten emaitza da. Eskola elkarrekin eraikitzeko moduren bat aurkitu nahi genuen, hartan zuzenean inplikaturik geunden alderdi guztien artean: haurrak, familiak eta eskolako langileak. Ez zen ohiko elkarlan bat, materialak, denborak, lekuak edo proposamenak antolatzeko eginen zena, nahiz eta hori ere izan zitekeen. Besterik zen. Elkarrekin aurkitu nahi genituen haurraren izaera, bere ahalmenak eta balioak, haurtzarolari buruzko gure irudi pertsonala osatzen joateko eta, besteek zutenarekin batera, identifikatuko gintuen “haur irudia” eta “eskola irudia” eratzeko.

Lehendik bagenituen xede horri begira prestatutako baliabide batzuk: eskolan egun bat igarotzeko aukera, lehengo “Egokitzapen aldia” zenaren ordezko oraingo “Harrera denbora”, bana-banako elkarrizketak edo eguneroko komunikazioa.

Baina haurrengandik hurbilago beste bide batzuk bilatzen hasita, pentsatu genuen haurrek eta helduek partekatuko zituzten zenbait esperientzia antola genezakeela. Tes-tuinguru berberetan oinarritutako esperientziak aukera emanen ziguten elkarren artean trukatzeko ikuspuntuak, bizipenak, egoera berari aurre egiteko manierak, haurrekin harremanetan jartzeko moduak, haien interesen interpretazioak, haien denborak baloratzeko, haien erantzunak ulertzeko... azken finean, denen artean, “haurtzaroko kultura”ra hurbiltzen joateko.

Nahitaezkatzat jotzen genuen jardunbide haiek erakargarriak izatea inplikaturako alderdi guztientzat: haurrentzat eta helduentzat, familiakoentzat eta hezitzaileentzat. Ba-koitzairen ikuspegi pertsonala kontuan hartuz, eta denentzat interesgarria.

Orain dela hiru urte, eskola desberdinen arteko esperientzien trukean oinarritutako “Jardunbide egoki” bat gauzatzeko proposatu zen, eta Mendillorriko hiru hezitzailek ekimenean parte hartzea erabaki genuen, gaiari arreta berezia eskainiz.

Zenbait gorabeheraren ondorioz, Evak eta nik landu ahal izan dugu esperientzia hori, hezitzaile bikote gisara; horretan aritu gara bi ikasturtetan eta ikasturte honen hasieran. Gaur egun Eva ez dago, baina oraingo hezitzaileek bat egin dute proiektuarekin.

Aipatu dut arestian jardunbide hau sortu zela “eskola elkarrekin” eraikitze bideen bilaketatik, eta bilatzen segitzen dugu. Baina bide guztietatik bat azpimarratu nahi dut, nire ustez eraginkorrena dena hainbat arrazoiengatik: ikasturte osoan egiten da, oso esker onekoa da, aukera sorta zabala eskaintzen digu eta inplikatu guztien interesei egokitzen zaie. Honetaz ari naiz: “Ateraldiak auzoan barna”.

Hiru ikasturteetan zehar esperientziak bilakaera bat izan du, betiere jatorrizko ideiar bere horretan eutsita, eta zenbait xehetasun eta alderdi aldatu dira gaur egun gaudenera iritsi arte.

Nolanahi ere, aldaketa gehiago onartzeko prest dagoen ekimen irekia da, esperientzia bizia baita, egokitu beharra dena eskola osatzen dugun aldian aldiko taldeei, une bakoitzean batera gertatzen garenon pentsamoldeei, aurreko beste esperientzia batzuen ekarpenei eta suerta daitezkeen mota orotako aldagaiei.

Hasiera-hasieratik hiru sektore desberdinetan gauzatu da. Bularreko haurrak alde batera utzirik, esperientzia partekatu dugu 12 hilabetetik 18 hilabetera bitarteko haurrekin (adin horiek zituzten ikasturte hasierako gazteenak eta amaierako zaharrenak) eta, jakina, haien familiekin.

Proposamenak lantaldean sortu badira ere, eskola osoan izan dute oihartzuna eta, horren ondorioz, beste talde batzuk eta beste hezitzaile batzuk nolabait inplikatu dira proiektuan parte hartuz.

Aurreko ikasturtean antzeko esperientzia bat sortu zen Izartegin, Txantreako haur eskola batean; auzo hark oso ezaugarri desberdinak dituenez eta ekimenean esku hartu zuten pertsonak ere bestelakoak zirenez, esperientziari beren ikuspegi propioa eman zioten, beren eskola-nortasunari zegokiona.

Xehetasun horiek argitu ondoren, mintza gaitzezen gure proiektu honetaz.

Ateraldiak

Gure begirada enfokatzen duten galderen proiektuan sartzten da praktika hau:

- Nola habitatzen dute auzoa hurrek?
- Non jartzen ditugu desberdintasunak eta mugak honako kontzeptu hauetan: mentura, arriskua eta erronka?
- Nola eragiten dio jokabide honek “haur irudi”ari eta haurrarekiko gure harremanari?
- Gu kalean agertzeak aldaketarik edo ñabardurarik eransten dio “haur irudi”ari auzoan?

Oso esperientzia xumea da, praktikan jartzeko erraza, alde zurretiko aurreikuspen gutxikoa, baina jakin-mina, ustekabea eta abentura sorrarazten dituena.

Astean egun batez, nahi duten ahaideak etortzen dira (gurasoak, aiton-amonak, osaba-izebak...), haurrekin auzoan barna paseatzen ibiltzeko ordubetez. Talde berean elkartzen dira ahaideak beren haurrekin, hezitzaile bat gutxienez beste bi haurrekin eta, frankotan, Unibertsitateko ikasleren bat praktiketara ari dena; inplikaturik dauden beste pertsona heldu batzuk ere joan daitezke.

Gehienetan 6 - 8 haur izaten dira, baina gehiago badira beste hezitzaile bat sartzen da eta, orduan, bi talde independente egiten dira.

Helduaren eginkizuna haurrari lagun egitea da, baina ez bakarrik ondoan joanez baizik eta haren ibilbideari jarraituz, haren interesak eta denborak errespetatuz, hari entzunez (hitzez egiten ez badu ere), haren arrazoiak eta manerak ulertzen saiatuz, prest egonez haren ustekabeekin harritzeko eta haren sentipen eta emozioekin kutsatzeko. Haurrek erabakitzen dute norantz joan, non geldialdia egin; erreparatzen diete "huskeria handiei" eta horiek helduaren begietan balioa hartzen dute, mirespina eta harridura sorrarazten.

Taldea elkarturik doa jeneralean, baina taldekideren batek aurki dezake erakargarria zaion zerbait desberdina, atzera geldi daiteke edo norabidez aldatzea erabaki dezake. Ez du inporta. Halakoetan beti izanen da heldu bat lagun eginen diona.

Nora ezean ibiltzea da kontua, une bakoitza biziz, eta zer bide eginen den jakin gabe (itzultzean jakinen dugu, hura osorik burutu eta gero).

Ateraldi bakoitzaren aurretik, parte hartuko dugun helduak elkartzen gara 15 minutuz eta, kafe bana hartu bidenabar, gogoan atxikitzen dugu zer jarrera eduki behar dugun haurrei lagun eginez: errespetatzea, entzutea, harritzea.

Itzultzean, berriz ere hartzen dugu tarte bat elkarrekin trukatzeko gure irudipenak, zalantzak, emozioak, zailtasunak eta aurkikuntzak.

Ateraldi bakoitzean dena da ustekabea, abentura, parte-hartzaile guztientzat beti zerbait interesgarria eskaintzen duena.

Haurrentzat:

Saiatuko naiz haurrei ahotsa ematen, nire oharpenetatik eta haiekin izandako bizipenetatik abiatuta, nahiz eta jakin helduaren ikuspegiak (nahita ere saihetsezina zaidana) nolabait desitxura dezakeela.

- Emozio aldetik, oso atsegina da eskolako esperientzia bat beren ahaideekin batera bizitzea, beren bizitzen alor horretaz interesatzen direla eta beraiekin partekatzen dutela sentitzea.
- Bereziki erakargarria da eskolaren mugak gaindituz kanpora ateratzea, eta, gainera, ateratzea beren ikaskideekin batera, haiekin partekatuz aurkikuntzak, ikerketak, zailtasunak, lorpenak eta ikaskuntzak; auzoa bizitzeko bestelako modu bat da, familia giroan bizitzetik diferentea.
- Beren proiektuak aurrera eraman ditzakete helduen interferentziarik gabe.
- Oso muga gutxi dago; ia bat bera ere jarri beharrik ez dago. Errespetatu eta baloratzen dira haurren jarrerak, interesak, burutazioak, mugimenduak, aurkikuntzak edo ustekabeak.
- Nolanahi ere, egia da badagoela muga bat: ordubeteko ibilaldia da. Baina denbora horretan eurek markatzen dute erritmoa, ez dago presarik, geldi daitezke inork deus esan gabe edo lasterka has daitezke nahi badute.
- Beren hurbileko helduen haienganako errespetuak eta balorazioak handitu egiten ditu beren buruarenganako aitortpena eta autoestimua.

- Auzoak makina bat aukera eskaintzen dizkie, beren jakin-mina eta ezagutzeko gogoia sorrarazten dizkietenak. Hori atsegin iturri izugarria da, bai eta ikaskuntzarako arrazoi eta esperientzia ugariarena ere.
Hona hemen horietako batzuk:
 - Hirigintzako elementuak: arrapalak, eskaillerak, barandak, zaldainak, altuera ezberdineko erregistroak, paretak, pausarriak, bideak, urmael hutsak, bankuak, iturriak...
 - Agertokiaren aldaerak, eguraldiaren edo urtaroaren arabera.
 - Landaretzako elementu ugariak: zuhaixkak, arbolak, fruituak, haziak, hostoak, loreak, belarrak; egoera desberdinetan (hostotsu, idor, fresko, ihar...)
 - Putzuak.
 - Makilak.
 - Sator-zuloen kanpoaldeko lur mukurua erakargarriak.
 - Barraskiloak, zizareak, intsektuak, hegaztiak...
 - Erakusleihoak.
 - Langileak lanean: postariak, lorezainak, igeltseroak.
 - Solasa emateko prest dagoen jendea.
 - Txakurrak eta bestelako maskotak.

Eskolarentzat

- Hurrek erakusten duten interesa pizgarria zaigu, eskola gogo handiagoz hartzeko eta hartaz gozatzeko hurrekin batera.
- Ezohiko esperientzia bat da, eskolan sortzen dena eta parte hartzaileak zer gertatuko den erne edukitzen dituen. Honek denak laguntzen du aiseago hautematen helduen zenbait esku-hartze, haurren interesa bidera dezaketenak.
- Haurrentzako interes berriak aurki daitezke, bestelako ikuspegiak, bestelako ñabardura batzuk, haur kultura birplanteatzeko eta hartara gehiago hurbiltzeko aukera eman dezaketenak.
- Ateraldi hauetan konponbidea ematen diogu gure "erronka" etengabea denari, egituratu gabeko materialak aurkitzeari haurren jostaketan erabiltzeko. Bidean objektu anitz aurkitzen joaten dira, haietako ez gutxi naturakoak, baita egoerak, sentsazioak, irudipenak eta ustekabeak ere, askotan aurreikusi ezin direnak eta horregatik balio handiagokoak.
- Helduok erreparatzen ez diegun xehetasun asko, orain berraurkitzen ahal ditugu hurrei esker. Horrela, praktika honek agerian uzten ditu haurren zenbait gaitasun guretzat ezezagunak zirenak.
- Handitzen du eskolaren eskaintzen kopurua, esperientzia berri bat ematen baitigu, batzuetan errutinazkoak diren beste proposamen batzuen ohikeria hausten duena.
- Gu harritzeko testuinguru egokiagoa eskaintzen du, haurtzaroari modu zabalagoan begiratzekoa.
- Eskola kalera ateraz, haren ikuspegi berri bat eta haurtzaroaren beste irudi bat proposatzen ditu.
- Aldi berean "dena" eta "ezer ez" espero izateko aukera bat da.

- “Haurren kultura” eta “helduen kultura” kontrajarriz, gogoeta egiteko egoerak etengabe sortzen dizkigu.
- Esperientzia honek familiengana hurbiltzen du eta konplizitatea sortzen du haiekin.
- Partekatutako bizipenak elikatzen ditu eta pentsarazten digu “ahaide” izateaz dugun irudiari buruz.

Familientzat

Maitane Melero

Xubane eta Oier Pasquelen ama

Aitortu behar dut, ama bezala, Conchak ateraldi hauei buruz hitz egin zidan lehenbiziko aldian pentsatu nuela, besterik gabe, gure seme-alabek zerbait diferentea egiteko aukera izanen zutela (eta ez da gutxi), eta errutinatik ihes egiteko modu bat izan zitekeela. Baina haietan parte hartuz ohartu naiz, egiatan, hori baino zenbat gauza gehiago eskaintzen duten.

Ateraldi hauek ustekabeko atseginak gertatu dira; izan ere, haurrez gozatzeko aukera izateaz gainera, gurasook ikaskuntza oso garrantzitsua eskuratzen dugu. Mesedegarriak dira hainbat arrazoiengatik.

- Pozgarria da niretzat ikustea, ama bezala, zenbat disfrutatzen duten gurekin batera parte hartuz jarduera batean.
- Ateraldia taldean egiten denez, ohartzen zara haien lagunekin ere nola disfrutatzen duten ingurune desberdin batean
- Ohartzen zara zenbat muga eta oztopo jartzen dizkiegun gure seme-alabei, babestu beharrenden senak gaintitzen gaituelako, sobera babesten baititugu askotan.
- Ohartzen zara ez duzula urrun joan beharrik, edo txango ikaragarriarik antolatu beharrik, inguruneaz gozatu eta aurkikuntza handiak egin ditzaten. Egiantan gai bagara haurrak errespetatzeko, gure inguruneaz goza daitezke eta aurkikuntza handiak egin ditzakete.
- Eskolarekiko lotura estutzen da, eta horrek lasaitasuna ematen dizu guraso bezala, sentiarazten baitizu zure seme-alabak esku onetan daudela.

Bestalde, oso garrantzitsua da eskolak ateraldi hauei ematen dizkien ikuspegia eta dinamika, ez baita ateraldia bera bakarrik lantzen, jorrazten baitira, baita ere, haren aurretik eta ondotik dagoena.

Ateraldien aurretik, argibide batzuk emateko egiten diren bilerak funtsezkoak dira burua prestatzeko eta saiatzeko galga jartzen esku hartzeko gogoari. Eta ateraldien ondotik egiten direnak ere balio handikoak dira, haietan aipatzen direlako eta elkartrukatzen norberaren sententzioak eta iritziak.

Bestalde, aldian-aldian egiten diren guraso bileretan ateraldietako argazkiak erakusten dira. Eta, alde batera utzita gurasook sentitzen dugun satisfazioa ikusirik haurren poz aurpegia putzuetan sartzean, lohia ukitzean edo intsektuei begiratzean, saio horiek positiboak dira gogoetarako akuilu direlako.

Horregatik uste dut ateraldi hauek positiboak direla ez bakarrik haietan hurrek disfrutatzen dutenagatik, baizik eta gurasoontzat ikasbide garrantzitsua direlako.

Ateraldi hauen ondorioz, aldatu egin da nire jarrera kalera ateratzen naizenean. Orain, kalean barna gabiltzanean, gehiago ohartzen naiz hurrek ingurunea esploratzeko sentitzen duten beharraz, eta "EZ" esan aurretik saiatzen naiz egiazko arriskua neurtzen, eta neure buruari galdetzen diot "Eta zergatik EZ?".

Eta, bestalde, gehiago ohartzen naiz haurrak berak egin behar dituela bere urratsak eta berak aurkitu behar dituela bere mugak; horregatik, eskailera maila baten aurrean, automatikoki igotzen edo jaisten lagundu beharrean, berak bakarrik saiatu behar duela esaten diot, eta ikusgarria da zer poz aurpegia erakusten duen zerbait lortzen duenean.

Praktiketan ari diren ikasleentzat

Naiara Domínguez

Haur Hezkuntzako Gradu 4. ikasturteko ikaslea

Etorkizunean hezitzailea izateko dudan asmoari begira, uste dut esperientzia honetatik asko ikasi behar dudala. Bai teoria aldetik, baita praktika aldetik ere. Alde teorikoari dagokionez, uste dut unibertsitatean ikasten dena eskas gelditzen dela; hau da, iruditzen zait irakasten dizkigutela teoriak edo oinarri teorikoak, eta ez digutela ematen inguruko eskoletan gauzatzen diren praktiken teorien berri. Gainera, nire iritziz, teoria lehenesten dute praktikaren aldean, eta uste dut gure karreran alde praktikoak lehentasuna izan beharko lukeela. Praktikari dagokionez, ez nien sekula erreparatu mota honetako esperientziei proiektu honetan murgildu naizen arte, eta seguru naiz balioko didala noizbait eskuratzea espero dudan hezitzaile lanean, harremanak izateko bide berriak erakutsi baitizkit, hala gurasoekin nola hurrekin.

Proiektu honek denbora eta espazioa eskaintzen dizkie hurrei, muga asko hausteko eta jostatzeko eskubidean zentratzeko, alegia, beren jolasaz disfrutatzeke kanpoko inolako esku-hartze eragozlerik gabe. Ez dute deusetarako obligaziorik eta ez daude behartuak beren inguruko inoren itxaropena betetzera.

Bestalde, haurrak harremana du hezitzaileekin, helduekin eta bere adin bereko beste haur batzuekin ingurune natural batean, han non oso gutxitan ibil baitaiteke halako askatasunez, bai denbora aldetik baita mugimendu aldetik ere. Azken finean, ikasgelan gaudenean, ezarritako ordutegiak mugatzen gaitu, eta oso gutxitan hauts dezakegu hori haurren ekimenei kasu egiteko. Nolanahi ere, proiektu honek urrunago joateko aukera eskaintzen du, eta hurrek beraiek bila ditzakete, eta baliatu, beren ahalbide guztiak.

Esperientzia honetan haiekin batera joaten naizen egun bakoitzean zerbait berria ikasten dut. Haur Eskolara bidean noala, beti galdera bera egiten diot neure buruari: Zerk harrituko nau gaur?, baina ez dut erantzunik sortzen, deusen itxaropenik ez izateko, hurrek eraman nazaten uzteko. Egunero-egunero gauza berriei erreparatzen diegu, go-goeta egiten dugu gauza desberdinei buruz eta bestelako erabilera ematen diegu gure

inguruko tresna edo objektuei. Pozez txoratzen naiz ur-putzu bat aurkitzean, jakinik helduko inguratuko genukeela ez bustitzeko edo zikintzeko, ikusirik haurarentzat jauzi baterako koltxoneta bihurtzen dela; gauza bera, guardasola haien eskuetan ura garraiatzeko ontzi bilakatzen dela ikustean. Tonuccik dioen bezala, zirrargarria da mundua haurren begiekin ikustea.

Onartu behar dut esperientzia honetan zaila zaidala behatzaile huts izatea zuzenean esku hartu gabe. Ateraldi hauetan, nire eginkizuna haurrei lagun egitea da eta horrela noalarik haien esperientzia ludikoei erreparatzea; gero, txostena prestatzen dut idatziz, paperean bilduz esandako edo bizitutako hitz eta egoerak. Ateraldi hauetako batzuetan, egoera batzuen aurrean, neure "ni" babesle edo zaintzaileak atera nahi izan du haurrei laguntzera, haiek beren gauzak autonomoki egiteko behar duten denbora errespetatu gabe. Baina, gutxika-gutxika, "ni" babesle hori bigarren mailan gelditzen joan da haiei esker; haiek erakutsi baitidate behar duten denbora ematen badiegu badakitela nola erabili eta nola sendotu beren ahalmenak.

Egoera horiek pentsarazi didate nondik sortzen ote den berehala esku hartzeko nire jarrera hori: babesteko mekanismotik edo gauzak azkarrago egiteko mekanismotik, alegia, nire denborari lehentasuna ematetik haurrenari eman beharrean.

Azkenik, azpimarratu nahi dut esperientzia ezin hobea dela familiekin harremanak izateko; izanez ere, haiek ere modu honetan bete-betean parte hartzen dute ingurune eroasoago eta hurbilago batean. Iruditzen zait eskolaren eta familiaren artean giro berezi bat sortzen dela, lasaitasuna, segurtasuna eta konfiantza sorrarazten dituen, eta hori funtsezkoa dela hezitzaileon lanerako. Harreman horiek direla eta, haurrak pozik eta harro sentitzen dira, ikusirik familiak parte hartzen duela haien eguneroko bizitzan, etxetik aparte familia eskolan ere badagoela.

Bilerak

Lehenbiziko ateraldien ondorioz, lehenbiziko galdera eta gogoetak sortu ziren: "haurren denbora eta helduen denbora"; halakoak gurasoekin partekatzeko beharra sentitu genuen, eta bilera batzuk antolatu genituen horretarako.

Une horretatik aurrera, familiekin ditugun topaketetan aldaketa handia gertatu da. Saiatu gara forma berriak probatzen. Ez dira lehen bezain trinkoak eta ez dira hainbeste izan informazio emate hutserako. Orain arinagoak dira, laburragoak, maizago egiten ditugu; saiatzen gara elkarrekiko gogoetari bide ematen, eta aztergaiak batzuetan eskolak proposatzen ditu baina beste batzuetan familiek.

Jarraibide hori oinarritzat harturik, bileraren formatua ez da estandarra eta egokitu egiten da gaiaren eta gorabeheren arabera, baina nagusitzen ari da talde txikiagoetan, baita gai desberdinekin ere, elkartzeko joera.

Dokumentazioa

Prozesua osatzen da etengabe egindako erregistroekin: idazkiak, elkarrizketak, argazkiak eta bideoak. Horren lehen helburua, gogoeta egiteko eta atzeraelikatze material aski edukitzea da, baina, aldi berean, "Haurtzaroa" zer den ezagutarazteko dokumentazioa sortzea ere bada.

Haurrekin eta haien familiekin bizitzea

3-6 zikloaren eraldaketaren esperientzia
Iruñeko Frantzisko Deuna HLHIPan

Joaquín Escaray Lozano eta Pilar Gonzalves Calatayud
Iruñeko Frantzisko Deuna HLHIPko AG
Haur Hezkuntzako zikloaren izenean

Aurkeztutako praktika ona AG eredu (3-6) haur hezkuntza zikloak bizi izan duen transformazioaren esperientzia erakusten du, Frantzisko Deuna eskolan. Haurrak eta beren familiak bere unibertsoaren erdian jartzean datza esperientzia hau. Jolasa haurtzaroaren jarduera nagusia bezala ezartzen eta balioa ematen dio. Aldaketa hauek aurrera eramateko, formakuntza eta berrantolaketa bide bat burutu behar izan dute, haurtzaroaren funtsa, hala nola, hezitzaileen papera ulertzeko modukoa.

Hitz-klabeak: berrantolaketa, formakuntza, hezitzaileen papera, jolasa, transformazioa.

Hemen aurkezten dugun jardunbide egoki honek gure eskolako AG eredu Haur Hezkuntzako zikloak (3-6) bizi izan duen eraldaketaren esperientzia erakusten du. Esperientzia honen ardatza izan da gure unibertsoaren erdigunera ekartzea haurrak eta haien familiak. Jolasa, haurren jarduerarik funtsezkoena dela berresten eta balioesten du. Eraldaketa horiek gauzatzeko, prestakuntza eta berrantolaketarako bide berri bat urratu behar izan dugu, umeen zerizana eta hezitzaileen eginkizuna zein diren ulertzeko modua aldatuz.

Testuingurutzea

San Frantzisko eskola Iruñeko Alde Zaharrean dago. Antzinasun handiko eskola da, Iruñearen bihotzeko haurren historia bildu duena bere 111 urteko ibilbidean. Bertako ikasgeletan garai guztietako jendea ibili da, ideologia eta ikuskera pedagogiko ezberdineko jendea. Eskola bizia da eta, bizidun ororen gisara, etengabe ari da eraldatzen eta elkarriketan.

Gure eskolan bi eredu ditugu aukeran: D eredu (euskaraz) eta AG eredu (gaztelaniaz edo gaztelaniaz+euskara). Aurkeztuko dugun esperientzia AG eredu Haur Hezkuntzako bigarren zikloari dagokio.



Pilar Gonzalves Calatayud eta Joaquín Escaray Lozano

Gure eskolako ama eta aitekin mintzatuz, ohartu gara haien eskola-esperientzia eta guk bizi izan duguna arras ezberdinak izan direla. Arras ezberdina da haien seme-alabek gaur egun bizi dutena eta haiek bizi izan zutena.

Errealitate horri erantsi behar zaio hagitz zailak direla familia horiek maila sozioekonomikoan bizi dituztenak.

Beldurrak, barreak eta zalantzak

Eraldaketa prozesu orotan badira aldaketei heldu aurretik egin beharreko ekintzak edo beharrezkoak diren baldintzak. Ildo horretan, hagitz garrantzitsua izan da hainbat profesional bide pedagogiko berean elkartu izana eta denek hasieratik argi ikusi izana ikasgelan egoteko bestelako moldeak bilatu beharra zegoela.

Prestakuntza izan dugu, eta hala dugu oraindik, aitzina egiteko oso gako garrantzitsua. Prestakuntza behar horrek hartaratuta, bertatik bertara ezagutu ditugu garrantzi handiko zenbait esperientzia, hala nola Iruñeko haur eskoletakoa, Italiako Reggio Emilia eskoletakoa eta Ripolleteko El Martinet eskolako publikokoa, Bartzelonan.

Geure burua prestatu eta gure dudak partekatu ahala beldurrak eta zalantzak agertuz joan ziren, ikasgelan egoteko bestelako aukerak saiatzeko segurantzak kentzen zigutenak maiz.

Egiten ari ginenari buruzko hausnarketa kritikoa eta elkarrizketa lagungarriak izan ziren zentzu fisiko zein mentalean geure burua husteko beharra genuela pentsatzeko. Geure burua hustea zertarako eta haize ufada berri bat sar zedin gure baitan, zeruertza ikusi eta umeen zerizana bete gintezen.

Zikloko solasaldi haietan hazkunde pertsonaleko bide horretan suertatzen zitzaiguna partekatzen genuen. Baina bestelako esperientziak ere sortu ziren, berretsi egiten zigitenak egoteko eta egiteko molde ezberdinak erabil genitzakeela eta erabil ditzakegula.

Nolabait ere, Joaquinek dioenez: "Neure buruari galdetzen nion ea nolakoa izanzen zen nire etorkizuna maisu lanetan. Niretako eta haurrendako tortura gisa irudikatzen

nuen egunero zerrenda pasatu beharra, urteko hilabetei eta asteko egunei begira, data jarriz... Batzuetan neska-mutilak behartuz eta neure burua ere behartuz. 40 urte hola? Orain ni ere zorionsuago noa eskolara. Egun bakoitza egun berria da, ezberdina, eta ilusionagarria”.

Garrantzi bizikoa da geure buruari entzutea hazi ahal izateko, eta haurren eta haien familien entzumen aktiboa izan da, eta hala da oraindik, gure esperientziaren funtsezko zutabeetako bat.

Jolasa neska eta mutikoen ekintzaren ardatz nagusia dela uste dugu, eta ez, ordea, lan bat amaitzean jasotzen den saria. Horregatik, gure ikasleen esperientziak aberasteko balio duten material eta proposamen berriak aztertu genituen. Material naturalak, jolas-teko eta ikertzeko aukera asko zabalduko zituztenak eta estetikoki erakargarriak.

Bidaia honetan hainbat lagun sentitu ditugu bidaide, beren konplizitatearen bidez proiektuaren partaide izan direnak eta hala direnak oraindik ere; hazten lagundu digute, baita erronka berriei heltzen eta gai asko zalantzan jartzen ere.

Ildo horretan, azpimarratu behar da NUPeko unibertsitateko hedapenak jardueretan lagundu digula, Alfredo Hoyuelos irakaslearen eskutik, eta NUPek koordinaturiko jardunbide egokien proiektua ere baliatu dugula, Fermín González irakaslearena. Elkarlan horrek aukera eman digu ahots berrien iradokizunak entzuteko erronkei heltzerakoan eta garrantzitsua izan da, batez ere, kanpoko ikasleen eta irakasleen behaketak jardunei buruzko gogoeta sustatu digulako

Gure proiektuari hitzak jartzea eta ikusgai bilakatzea helburu behinenetako bat izan da hasieratik eta, nolabait ere, elkarlan horiek helburua betetzea lortu dute.

Finkaturiko helburuak

- Haurren zerizana zein den bilatzea eta zerizan hori eskolan egiazki presente egitea.
- Haurren izankizuna askatasunetik bermatzea.
- Ezartzea zer-nolakoa den gure ustez umearen zerizana.
- Eraldaketa hezitzailearen eginkizunaren gainean abiaraztea.
- Haurrek adierazteko eta ikertzeko dituzten ahalbideak errespetatzea.
- Entzumen aktiboa erabiltzea bai ikasleekin bai haien familiarekin komunikatzean, ulertuz komunikazioaren prozesuan begiradak, irriak, konfidentziak eta sostenguak gurutatzen direla.
- Familiak hartzea, hesi fisikoak eta mentalak hautsiz.
- Egunerokoa izatea familiekin, irakasleekin eta gizarte-langileekin batera egiten dugun lana.

Gauzaturiko erabakiak eta eraldaketak

Aldaketak ikastetxearen eta ikasgelaren egiturari.

Batera finkatu genuen zein den ingeleseko eta euskarako espezialistek ikasgelan sartzean duten eginkizuna. Ildo horretan, erabaki genuen tutorearen lan berdina eginen zutela, nork bere irakas-hizkuntzatik, neska-mutikoei afektiboki lagun eginez.

Sarrera eta irteerei dagokienez, pentsatu genuen beharrezkoa zela familiak eskolan hartzea, funtsezkoa baitzen gu hurbil senti gintzaten. Horregatik, familiak ikasgelara sar

daitezke sarrera-irteeretan. Une horiek elkarren arteko konfiantza ekarri dute, familien eta irakasleen arteko elkarlana erraztuz.

Haurren presentzia, haurren zerizana

Ezinbestekoa izan zen hitz egitea eta adostasunak lortzea erabakitzeko zer-nolakoa den gure ustez umearen zerizana.

Azkenean bat etorri ginen eta beren historiaren jabe diren haurren alde egin genuen, jolasaren bidez modu autonomoan ekinez mundua ezagutzeko gogoz dauden haurren alde. Ikerketa prozesu honek umeen interesak hartzen ditu kontuan eta hizkuntza asko baliatzen ditu.

Horren ondorioz, inguruan gertatzen diren gauzak harrigarri egiten zaizkio umeari eta helduaren laguntzaren bila doa hala behar duenean. Helduak aditu egiten diola eta lagun egiten diola sentitzen du une oro eta bere familia eskolako bizipenen partaide egiten du, familia ere partaide dela sentitzen duelako. Egunerok joan nahi du eskolara, pozik doa, bertan seguru sentitzen da. Laburbilduz, errespetatua sentitzen da bere singulartasunean eta bere erritmo ezberdinetan.

Helduaren eginkizuna. Posible da eskolan beste modu batez egotea

Gure helburua da jarrera afektiboa erakutsiz egotea haurrekin, berak askatasunez erabaki eta burutzen dituen prozesu eta proiektuetan lagun eginez. Eguneroko zeregin horretan, komeni diren inguruak eta materialak diseinatzen ditugu, neska eta mutikoek erabiliko dituzten hizkuntza ezberdinei bide emateko.

Behaketa ezinbesteko tresna dugu, umeen interesak agerraraztea eta haiei erantzutea ahalbidetzen digu.

Era berean, hainbat proposamen egiten dizkiegu beren ikerketa eta jolas nahiei erantzuteko, zenbait muga kontuan harturik.

Oinarrizko printzipioen dekalogo etikoa

Pixkanaka-pixkanaka gure inguruko unibertsoa taxutu genuen. Erdigunea bagenuen: haurrak. Horiexek ziren gure erreferentzia-puntua, ekaitza zetorreanean urertzera itzulera-raziko gintuztenak.

Gure lanak eta gure jarduna taldean egituratzeko gogoak hartaraturik, ondotik datorren dekalogoaz ezagutu eta geure egin genuen. Printzipio horiek ditugu xede, zeruertza dira guretako, lan egiten eta ikertzen segitzen eta, batez ere, gure eguneroko jarduna zehazten laguntzen digutelako, jakinik ez garela perfektuak eta badugula okertzeko eskubidea.

- Jolasa oinarrizkoa da eskola-bizitzan. Neska-mutuei jarduera ludikoak lehenetsi ditzaten errespetatzen zaie beste ezein aukeraren aldean. Une oro aukera dezakete non jolastu, ikasgelen barnean edo kanpoan, atea beti dago eta zabalik, baita nola eta norekin jolastu ere.
- Burutu nahi dituzten proiektuak aukeratzen dituzte, beharrezkoak ez diren presioak eta aitzintzeak jasan gabe. Maisua edo maistra zain dago eta behar duten denbora ematen die beren prozesuak burutzeko, motibaziorik piztu gabe helduen ustez hurrek eskuratu beharreko ikaskuntzekiko.

- Ez daramate uniformerik, eta ez dute mantala alferrik jantzen, zikintzeko egiazko premia dagoenean soilik.
- Korroa edo batzarra aukerakoak dira.
- Errespetuz eta askatasunez mugitzen dira. Ez dira ilaran jartzen toki batetik bestera doazenean.
- Materiala, gehienbat, polisentsoriala da eta egituratu gabea, balio estetiko hagitz handikoa.
- Haurrek erabakitzen duten zer-noiz-nola ikasi bai idazten eta irakurtzen bai matematikak.
- Profesionalak presente egonik eta bizitasunez laguntzen ditu bizi-prozesuak. Ez du oihurik egiten eta ahots apalez mintzatzen zaie; banaka hitz egiten die, begietara hurbiletik begira haurrekin elkarrizketan jardun nahi duenean.
- Maisu-maistrek proposamenak prestatzen dituzte, behatu egiten dute, eta prozesuak dokumentatzen.
- Gurasoak libre dira modu antolatuan ikasgelan sartzeko egunaren hasieran eta bukaeran.

Familiak hartzea

Familiak konfiantza-ariketa ikaragarria egin behar zuten seme-alabak ikasgelan uzten ziztuztenean. Itsu-itsuan fidatu behar ziren sekula ikusi gabeko jendearekin, ezezagun zitzaizkien kultura eta ohiturak zituzten pertsona batzuekin...

Hasiera-hasieratik ohartu ginen ezinbestekoa zela hesi fisiko eta mental horiek haustea eskolan sartzean, familiarek ezagutu zezaten nola egiten dugun lan eta, hala, konfiantza-giroa sortzeko.

Nolabait ere, hartu-eman arinagoak eta egunerokoak izan nahi genituen familiarekin. Eguneroko une arruntak une berezi izan zitezten nahi genuen, une horiek baliatzeko familiarek uler zezaten nola ezartzen dugun presentzia ume bakoitzarekin.

Familiak ikasgelan egon zitezten baimentzeak konplizitate begiradak sorrarazi zituen.

Nolabait ere familiarek ikasgelan egoten diren une horiek aukera ematen diete seme-alabekin egoteko eta haiei entzuteko modu berriak ikusteko.

Harrera-denbora kontu handiz antolatzen da, familiei azalduz zertan datzan helduak hasierako egunetan ikasgelan egote hori. Besteak beste, isilik eta hurbiltasunez egoteko aholkatzen diegu, sakelakoa erabili gabe eta helduak elkarren artean hizketan aritu gabe. Saiatzen gara azaltzen aita edo ama atxikimendu-pertsonak direla, haur bakoitzak beharrezko dituen erreferentzia-puntuak segurtasuna bilatzeko eta gero esploratzen segitzeko. Ildo horretan, agurrak lasaiagoak eta begirunetsuagoak direla ikusi dugu.

Familiarekin lan egiten segitzeko proiektua

Gure ikasleen egoera sozialen ondorioz, gizarte-zerbitzuekin hartu-eman etengabea jardun behar izaten dugu maiz. Harreman hori sakondu asmo dugu, iruditzen zaigulako ona izan litekeela familia batzuk ikasgelara etortzea egunero, seme-alabekin beste era bateko harremanak bizitzeko aukera izan dezaten. Asmo horrek ekartzen du gurasoek denbora-tarte antolatuak igaro beharra ikasgelan, aipatu dekalogoarekin zerikusi handia duten harreman molde berriak ikus ditzaten. Era berean, gizarte laguntzaileek ez lukete



soilik etxean esku hartuko eta aukera izanen lukete eskolan bizitako esperientziaren haritik hezkuntza-lan bat egiteko familiekin. Horiek horrela, familiek, hezitzaileek eta gizarte langileek batera egiten dugun lan hori eguneroko lan bihurtu dezakegu, inposaketarik eta errezetarik gabeko presentziaren eredu izan dadin.

Ebaluazioa

Esperientziaren ebaluazio-prozesuak kontuan hartu ditu eraldaketa proiektuan parte hartu duten pertsonak eta bakoitzak izan dituen erritmo eta esperientziak. Eztatanda eta hausnarketa uneak ezinbestekoak izan dira berritasunak txertatzeko eta behar ziren doikuntzak egiteko.

Prozesuen behaketari eta dokumentazioari esker, modua izan dugu bestela oharkabean joanen zitzaizkigun neska-mutilen prozesuak ikusteko.

Entzumen aktiboa eta behaketa batera uztartuz, umeez egiten zutena edo egiten ez zutena jakin dugu. Hori guztia ezinbestekoa da ez delako lan erraza pertsona bakoitzaren singulartasuna kontuan hartzen duten proposamen sortzaileak taxutzea, entzumen aktiboko estrategiak behar dira-eta.

Etorkizunerako itxaropenak

Gure bizitzako aldaketa oro zabaltasunez eta baretasunez hartu behar dugu; itxaropentsu bide urratze horrek zer ekarriko; segurtasunez aukera beteko itsasoaren aurrez aurre; eta ziur jakinik une oro izanen dugula bidean nork lagunduko. Bidelagun ditugu neskatikoak eta mutikoak, familiak, lankideak, jende ezezaguna eta jende ezezaguna, haurrendako etorkizun hobearen bila saiatuz denak ere, Naoualek, Lehen Hezkuntzako 3.eko Raniaren eta Haur Hezkuntzako 1. mailako Adamen amak, dioen bezala:

“Pozik nago seme-alabak pozik doazelako eskolara. Asteburuetan, Adam astegunetan esnatzen dugun ordu berean esnatzen da. Larunbata edo igandea dela azaldu behar izaten diot, eskola itxita dagoela.(...) Adamek gauza asko kontatzen

dizkit. Zer egiten duen egunero, non egon den eta zer egin duen. Asko gustatzen zaio bi eskuekin margotzea.”

Erabilitako baliabideak

Prestakuntzakoak

- Iruñeko ILZko ikastaroak: “Proiektuak 1 eta 2”.
- Bisitaturiko beste esperientzia batzuk: Iruñeko Haur Eskolak, Reggio Emilia (Italia); El Martinet (Ripollet). “Seminario de Materiales y Espacios”.

Bibliografikoak

BARUDY, J y DANTAGNAN, M., *Los buenos tratos a la infancia. Parentalidad, apego y resiliencia*, Bartzelona, Editorial Gedisa.

HOYUELOS, A., *La ética en el pensamiento y obra pedagógica de Loris Malaguzzi*, Bartzelona, Editorial Octaedro.

—, *La estética en el pensamiento y obra pedagógica de Loris Malaguzzi*, Bartzelona, Editorial Octaedro.

VECCHI, V., *Arte y creatividad en Reggio Emilia*, Madril, Editorial Morata.

WILD, R. *Libertad y límites. Amor y respeto*, Bartzelona, Editorial Herder.

—, *Aprender a vivir con niños*, Bartzelona, Editorial Herder.

Argiarekin elkarrizketa

Ana Araujo Hualde, María Ibero Irisarri,
Izaskun Roncal Olcoz, Alfredo Hoyuelos Planillo

Rotxapeako haur eskolak argiarekin elkarrizketa tailerra lau ikuspuntutik azaltzen du. Argiak pertsonai berriak sortu, metaforak asmatu eta narrazioak eraikitzen ditu, haurrek mundu erreal eta ametsezkoekin jolasteko duten ahalmen aparta dela eta. Jostailu eta jolas tradizioetatik at, tailer honek zoriontsu egiten ditu, nahi dutena sortu eta jolastu dezaketelako; diziplina anitzen arteko topagune bat sortuz, magiarekin batera. Guzti honen, galderetatik datozen praktika onak sortu eta erregistratzera eramaten gaitu, eta ez edozein galderataz, galdera konplexuetatik.

Hitz-klabeak: argia, diziplina-artekoa, galderak, itzala, topagunea, zoriontasuna.

Ana Araujo Hualde

Iruñeko Rotxapea H.H.ko hezitzailea

Bizitzaren harridura argiarekin lotuta dago. Berak egiten du bizitza posible izatea eta gure bizitza baldintzatzen du. Baina, egia esanda, zer da argia? Fisikatik, gehiengoari ezer esaten ez digun formularekin ulergaitza den zerbait bezala ikusten dugu. Poesiatik emozioarekin sentitzen dugu. Egunerokotasunetik hortxe dago, besterik gabe. Eta haurrentzako, zer esanahi du argiak? Haurren begiradatik argiak magia egiten du, kolorez jantzen da, itzalean gorpuzten da, eskuen artean hartzen denean bere beroa sentitu daiteke, tokiak aldatu eta transformatzen ditu errealitatea eta fantasiaren arteko eszenarioak sortuz.

Haurren eskuetan argiak pertsonai berriak sortzen ditu, metaforak asmatzen ditu eta narrazioak egituratzen ditu, haurrek aldi berean mundu erreal eta ametsezko munduaren



Ana Araujo

arteko jolasteko ezohiko gaitasuna dela eta. Korapilodun soka baten itzalak erretro-proiektoretik proiektatzen denean, suge batean bihurtzen denean bezala.

Oihan.- Begira suge bat... hemen burua dago...

Enaitz.-Leuna da... eta oso handia

Jango nau!!! Aho handi-handia dauka...

Iker.- Baina lotan dago

Oihan.- Ea...

Horrela, argia materian bihurtzen da eta erretroproiektorearekin jolasetan argia berari forma ematen dio eta modulatu du, linternekin, argiaren mahaian, kolore ezberdinetako argi fokuetan. Argia era ezberdinetan bizi da objektu hauetan eta bere buruaz beste itxura ezberdina ematen du.

Argi tailerraren beste saio batean, haurretako bat pantailan proiektatutako itzal batean arreta ipini zuen eta seinalatuz esaten zuen: begira lorea, lorea... Beste hurrek berehala onartu eta partekatu zuten ideia, eskuarki tailerrera goazen bosteko talde txiki bezalako bateko hurrek alai errepikatzen zuten: bai, bai, lorea.. begira hor! Bitartean, beste neska batek erretroproiektoretik lorea deitzen zuten forma hori mugitzen zuen, konturatuz erretroproiektoretik zela itzala proiektatzen zen tokia. Gero, gorri kolorezko azetato bat gainean jarrita zioen: orain gorria eta beste azetato garden batekin gainean jarrita: orain hartuko dut.

Pentsamendu logiko baten aurrean gaude, kanpoko informazioa ideien forman sintetizatzen duena, bai maila emotiboan baita kognitiboan ere. Adibide honetan, 28 eta 32 hilabete bitarteko hurrek lorea hitzarekin izendatu zuten forma, esanahi hau partekatu zuten eta narrazio bat eraiki zuten:

Lekuz aldatzen zen lorea zen,, kolore gorrikoa izan zitekeena eta pantailatik atera ahal zena beste toki batera eramateko...

Humberto Maturanak dio:

Ondoren izan behar garena nahieratik sortuko da, hezi garen emozionatzetik.

Prestatu genuen eszenarioak kolorea eta itzalarekiko egoera berrien aurkikuntza erraztu zuen, eta azpimarratu beharrekoa da ekimena, harremanak, arreta partekatu bat mantentzea, poztasuna, parte-hartzeko gogoia, eta gure inguruko munduko zentzu bilaketa horren inguruko proiektu bat aurrera eramateko gogoia.

Zenbat ikasten dugu helduok haurren metaforetatik, beste begiradak aurkitu eta balioztatzeko? Harridurak gorputza astintzen du zioen Loris Malaguzzi. Harridurak galderak planteatzea egiten digu eta hauek azalpenak bilatzera eramaten gaitu, mugiarazi, akzioari bultzatu egiten gaituzte. Horrela ba, zenbat galdera sortzen ditugu gure hezkuntza lanean?, jakin eta aurkitzeko gura mugitzen dituen zenbat ekintza?

Loris Malaguzziren hitzek etengabeko hausnarketa bezala balio digu:

Eskola, jakiten diren gauzak egiten diren laborategi handi bat izan behar da, baina batez ere, jakiten ez diren gauzak itxaroten den tokia.

María Ibero Irisarri

Ikastetxearen ama

Harridura, ikara, txundidura, lilura, mirespina, ustekabea, mira. Sentimendu guzti hauek eta gehiago bizi nituen tailer zoragarri horretan sartu nintzenean.

Dokumentala hau ikusi baino lehen, hau guztia sentitzeko aukera eman ziguten hezitzaileek. Benetan ikaragarria. Ikaragarria espazio baten aldaketa, giro bereziak, ideiak gauzatzeko lekua, mundu majikoa.

Proposamenak sortzeko materiala ere txundituta utzi ninduten; material batzuk egunerokotasunean eskura duguna da; kateak, ispiluak, koloretako paper desberdinak, etab, normalean ondoan daukaguna eta ez jostailu estereotipatuak. Argia, itzalak eta koloreak protagonistak bihurtzen dira. Zoragarria izan da haurren emozioak ikustea eta, parte batean, ulertzea.

Bilera honetatik beste sentsazio batekin atera nintzen, bizitzaren beste ikuspuntu batekin, haurren ikuspuntuarekin. Nola ez da ba nire semea Ekai pozik egongo aukera hauekin?. Berak nahi duena sortzeko eta eraikitzeko aukera du hemen, betiko jostailu eta materialetatik aparte.

Nire semeak 3 urte ditu, haur eskolako azken urtean dago, eta oraindik eskolatik ateratzean, kalean eta etxean, bere itzalarekin jolasten du. Argiak eta itzalak edonon aurkitzen ditu eta poztasunez gainera, bere bizitzaren parte egiten ditu. Askotan, itzalak, iluntasunarekin erlazionatzen dugu, beldurraren ezaugarriak bezala izaten ditugu. Nik uste dut, Ekaik, ez duela horrela bizi. Lasaitasun handiarekin behatzen ditu itzalak, eta bere jolasen parte bezala hartzen ditu.

- Ez nuke amaitu nahi, niretzat garrantzitsuak izan diren bi idei hauek esan gabe;
- Haurrak eta Hezitzaileak, material, egoera eta momentu bakoitzari eskainitako errespetua.
- Argirik gabe, ez dago itzalarik.

Izaskun Roncal Olcoz

NUPEko Haur Hezkuntza Graduoko ikaslea

Pasa den ikasturtean, azkeneko urteko praktikak “Egunsenti” Haur Eskolan burutu nituen. Oraindik gogoratzen dut argi tailerreko atea zeharkatu nuen lehenengo eguna, magiazko mundu batean eta istorio berri batean murgildurik sentitu nintzen. Argi-itzalek, gardentasunek eta koloreek istorioak asmatzeko gonbidapena egin zidaten. Esan behar da, aldeztatik hezitzaile batek espazio hura sentsibiltasunez jantzi eta hornitu zuen. Espazioa ikusitakoan, atsegintasunez jositako eszenatoki baten aurrean ikusi nuen neure burua eta gehien harritu ninduen espazio hark islatzen zuen edertasuna eta armonia izan ziren.

Espazio atsegin horretan diziplina ugarik elkarren arteko harremana dute (zientzia, artea, fisika ...) magiarekin bat eginez. Argiaren gaia liluragarria bezain konplexua dela uste dut, are gehiago, eskolako “argi tailerrean” murgiltzen bagara. Non argiek, itzalek, koloreek edo eta formek narrazio interesgarri eta berriei atek zabaltzen dizkieten, haurtzaroaren kulturarekiko kontzepzio eta jarrera nabarmenduz.

Argi tailerreko esperientzia ezagutzeak argiaren ezaugarrietan murgiltzera eramanez ninduen. Argia eta bere nolakotasunak ezagutzera, argia eta kolorearen arteko harremana ulertzera, argia eta itzala elkarrengandik urrundu ezin ditugula ulertzera. Espazio horrek eskaintzen dituen baliabide materialak (proiektorea, argi mailak, pantaila) eta proposamen horietan haurrei eskaintzen zaizkien objektuen mundua gertutik ezagutzeko plazera izan nuen. Pixkanaka hasi nintzen argiak duen garrantziaz ohartzen, baita eremu ezezagun batean murgiltzen ere, anbigutasun mundua gertutik sentituz. Haurrek haien saiakerak zein modutan eraikitzen zituzten behatuz, konturatu nintzen esperimendazioaren bitartez haien egiaztapenak burutzen zituztela. Modu honetan, narrazio eta istorio txikiak ehuntzen ziren.

Haurri argi tailerrean aukera esleitzen zaio esperimendatzeko, ikertzeko, eraikitzeko, hausnartzeko, galderak planteatzeko, arazoak ebazteko, erabakiak hartzeko, inizatiba izateko, liluratzeko edo harritzeko. Argi tailerreko espazioak erakutsarazi dit gauza berriak egunero gertatzen, ematen eta komunikatzen direla, baina etengabe bilatzen egongo dela hezitzailea haurrekin batera. Esperientzia honek agerian utzi du haurrek gaitasunez beteriko subjektuak direla eta haurrek esplorazioaren eta ekintzaren bitartez, ezagutza eraikitzaile aberatsak sortzen eta birsortzen dituztela. Guzti honetarako, beharrezkoa suertatzen da hezitzailearen figura ikerkuntza kulturalaren gida izatea eta formakuntza eta berrikuntzaren oinarrian egotea.

Argi tailerreko proposamenetan oso garrantzitsua iruditu zait hezitzailearen papera. Proposamenak atsegintasunez eraikitzen dituzte dena ongi pentsatuz, aukera ezberdinak

sor daitezzen. Saio bakoitzean erabiliko duten materiala aldez aurretik pentsatzen eta aukeratzeko dute. Hezitzaileak haurra ezagutu behar du eta bere garapenaren zein momentutan dagoen jakin. Modu honetan zeintzuk diren bere kabuz, modu autonomo batean, erakusten dituen gorputz jarrerak. Horren arabera, proposamena altuera batean edo lurrean jarriko du, erretroproiektorea behegera edo mahai baten gainean ...

Haurrak talde txikitik joaten dira beti. Hezitzaileak momentu honetan eskaintzen duen arreta pertsonalizatuagoa da eta haur bakoitzaren prozesuen jarraipenak modu zehatzago eta sistematikoago baten bidez jasotzeko aukera du. Jolasa eta plazera bultzatzen dituen egoerak eta esperientziak eskainiko dizkio haurrari eta elkarren artean bide berriak eraikitzeko pribilegioa izango dute. Hezitzaileak haurrak behatzen ditu, prozesuak behatzen ditu eta ikuspuntu ezberdinak ulertzeko ahaleginak egiten ditu, ikuspuntu ezberdinak, anitzak bezain aberatsak direlako.

Argi tailerrean behaketak eta dokumentazioak duen garrantzia ezagutu dut. Dokumentazioaren bitartez hobe ezagutu ditzakegu haurren estrategiak, ikusten ditugun irudi horiek sentiberagoak eta zorrotzagoak egiten ditu helduaren begiak. Dokumentatutakoa taldean partekatzea oso aberasgarria dela ikasi dut, guzti honek hausnarketarako uneak ahalbidetzen ditu, ikuspuntu ezberdinak partekatzen dira, interpretazio desberdinak ematen dira dokumentatutakoaren inguruan. Dokumentatzen dugunean hezkuntza prozesuak sistematikoki eta estetikoki jasotzen dira eta modu ezberdinetan erakusten dira (bisualen, ikus-entzunezkoan eta idatzizkoan). Gaurko aurkezpenean modu bisual eta estetiko batean, Anak argazkiekin egindako dokumentazioa aurkeztu digu, argi tailerreko esperientzia gurekin guztiokin partekatuz.

Bukatzeko, plazer bat izan da niretzat gertutik zeuen esperientzia ezagutu izana eta zuekin partekatutako uneak ahaztezinak izango dira. Nahiz eta urrunago edota gertuago egon beti gogoratuko ditut zuekin batera partekatu ditudan momentuak.

Alfredo Hoyuelos Planillo

NUPEko irakaslea

Mario Benedettik honako galdera hau egiten dio bere buruari "Happy birthday" izena duen poemari:

*Nolakoa izango ote da mundua nik ikusi ezin izango dudanean
ez entzun, ez ukitu, ez usaindu, ez dastatu ezin izango dudanean?
Baina, nolakoa izango ote da mundua galderarik gabe?*

Aurkeztutako esperientziak galderak sortzen dizkigu: nola ulertzen duten umeeek mundua?, nola ezagutzen dituzten argiaren propietateak?, zer gertatzen da pantaila jartzen badugu eta bi aldetan fokuak kokatzen baditugu? Agian ez ditugu erantzunik, baina praktika ona izateko galderak behar ditugu eta ez hutsalak, galdera konplexuak. Modu berean César López abeslariak esaten du: "Denboren eta galderen aldamiok dira gure euskarri".

Ana Araujok ikerketa eskaini digu. Esperientzia bat pentsatzeko, hausnartzeko eta galderak behin eta berriro egiteko. Miguel Ángel Zabalzak esaten zuen esperientzia ez zela nahikoa. Esperientzia, hausnarketak eta eraldaketa izan behar direla. Osagai hauek galderen bidez egiten da. Gauzak horrela, ondoko aspektuak azpimarratu nahi ditut:

- Umeak gaitasunez beteriko pertsonak dira. Guk pentsatzen duguna baino gehiago. Oso garrantzitsua da haurra “beteta” ikustea. Geure buruari galdetu behar diogu haurtzaroaren zer nolako irudia dugun.
- Eskolako antolakuntzak, bere espazio eta denborekin, aukera eman behar du talde batek proiektu berbera eraiki ahal izateko, denen artean hitz egiteko.
- Asmatzen ditugun proposamenak erretroalimentazio konplexuak izan behar dira. Askotan pentsatzen dugu umeak txikiak direnez proposamen sinpleak eskaini behar dizkiegula, baina ikusi dugunarekin ez da egia. Bestalde, inportantea da umeen inizatibak eta interesak kontuan hartzea. Umeak zuzen estimulatu gabe.
- Proposamena oso ondo pentsatu behar da erakargarria, iradokitzailea eta estetikoa izatea garrantzitsua da eta materialak bideratu beharko ditu erlazio irekiak.
- Praktika onak begirada zabaldu behar du, lehen ikusten ez ziren ñabardurak balioes- teko eta egunerokotasunean antzemateko gero.
- Materiaren propietateak ezagutu behar ditugu. Horrela, ikertzerakoan umeen aurkituko dituzten ñabardurak ere errekonozituko ditugu.
- Beste ezaugarri bat talde txikiarena da. Horretarako bikote hezitzailea ezinbestekoa da, talde berbera konpartitzen duena, haurren lanetan eta aukeretan gehiago sa- kontzeko.
- Bide batez, hezitzaileak prozesua dokumenta dezake aztarnetatik nahitaezkoa den hausnarketaraino.
- Eskola atsegina izatea da beste giltza. Agertoki bat da eta bertan profesionalek behatu, ikertu, oharrak hartu, dokumentatu, hausnartu, modu intersubjektiboan in- terpretatu eta eskolaren arnasketan gertatzen, igarotzen eta zirkulatzen duten pro- zesuen, bizitzaren eta ezagutzen biografia narratibo gurutzatuak osatzen dituzte.
- Praktika onak haurtzaroaren kultura goraiatzeko du haien originaltasuna, pentsamendu poetikoa eta modu metaforikoan ere gertatzen direlako.
- Rotxapea haur eskolak egiten duen praktika honekin oso harro dira denak. Miguel Ángel Zabalzak esaten zuen praktika onak errekonozimendua, pozbidea eta harrota- suna sortu behar duela.
- Praktika onak ustekabearekin harriztea ahalbidetzen du. Proposamen egokiak zo- riontasuna, grina eta ongizate sentimendua sortu behar du. Anak egindako elkarrizketa batean aipatzen du: Denok argi tailerrera oso pozik joaten gara.
- Loris Malaguzzik maistrei mirariaren profesionalak deitzen zien. Irakasleak eskolan gertatzen diren prozesu ezberdinekin harrizteko gai diren pertsonak bezala definitzeko. Ezin dugu hezi, ezta behar bezala erlazionatu ere, gure lanean dibertitzen ez bagara, asperraldia eskolatik urruntzen ez badugu eta harritzen ez bagara. Gure buruari egu- nero galdetu behar diogu zenbateraino dibertitu eta harritu garen.

Amaitu nahi dut. Ondokoa irakurri nuenean opari bat bezala sentitu nuen, orain aurkeztutako esperientzia bezala. Rachel Carson-ena da testua eta haurra ezinbesteko emozio horren enpatiatik laguntzearen erronka proposatzen du:

*Nik haur guztien jaiotzan dagoen Maitagarriaren gainean eragina izanez gero, munduko haur bakoitzari bizitza osoan zehar iraungo dion harridura suntsiezinaren dohaina emateko eskatuko nioke, asperraldiaren aurkako antidoto agorrezin gisa (...)
Haurrarengan harritzeko berariazko zentzua bizirik mantentzeko, Maitagarriek emandako inongo dohainik gabe, hori partekatzeko heldu baten laguntza behar da gutxienez, horrekin bizi dugun munduaren poztasuna, ikusmina eta misterioa berraurkituz.*

Esploratzea, ikasteko: familientzako topaketa eta gogoeta gune bat

María Napal Fraile

Zientzia Esperimentalen Didaktikaren Arloa. Psikologia eta Pedagogia Saila. Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea NUP

Txusma Azkona Mendizabal

Arieta Haur Eskola Estella-Lizarra

Haurrak esploratuz ikasten du. Harritzen da, mundua deskubritzen du, eta bertan bere burua aurkitzen. Eta elkarrekintza horretan badoa eskuratzen kontzeptuak eta estrategiak, etorkizunean ikaskuntzarekiko bere jarrera zehaztuko dutenak. Baina helduok (familiak eta hezkuntza sistema), gure beldur, aurreikuspen eta presioen bidez, haurraren gaitasun hori mozten eta mugatzen dugu. Arieta Haur Eskolako guraso elkarteak familientzako gogoeta gune bat sortu du, gure seme-alaben gaitasun hori aintzat hartzen, baloratzen eta sustatzen ikas dezagun.

Gako-hitzak: ikaskuntza, jakin-mina, esplorazioa, familien eskola, natura.

Sarrera

Esploratzea, ikasteko

Jaiotzen garen unetik beretik ikasten ari gara. Nahiz eta garunaren garapena neurri handi batean jaio aurretik gauzatzen den, ugaztunetan kanpoko munduaren jaio ondoko esperientzia nahitaezkoa da zentzumenak eta nerbio sistema normal garatzeko. Bizitzaren lehenbiziko urteetan aurrera jarraitzen du garuneko konexioen birmoldaketak; horrela, lehenbiziko bi urteetan konexio kopuru handia sortzen da, eta horiek ezabatzen doaz nerabezaroa arte, zentzumenen estimulazioaren eta jardunaren arabera (García Almodéver, 2008). Zehaztugabetasun hori plastikotasuna ere bada (Aza, 1999), eta, beraz, ingurumenaren, gizartearen eta emozioen eraginek ondorio esanguratsua izan dezakete neurona zirkuituen gainean.



María Napal eta Txusma Azkona

Hortaz, ikastea funtsezko prozesua da biziraupenerako, berezkoa, norberaren baitakoa, eta espontaneoki gertatzen dena. Haurra¹, berez, esploratzaile bat da, inguratzen duen mundua ezagutu eta hari buruzko azalpen bat bilatzeko irrikitan dagoena (L'Ecuyer, 2013). Haurrek jakin-mina dute; esploratuz eta aurkituz disfrutatzen dute, ez dutelako huts egiteko beldurrik. Besterik gabe, jaso egiten dute ikasitakoa, berrikusten dute beren pentsaera, galdera berriak egiten dituzte, eta berriz ere probatzen dute (Trundle & Saçkes, 2015).

Nora joan da nire jakin-mina?

Nolanahi ere, harridura eragiten du, eta tristura, ikusteak zer alde dagoen Haur Hezkuntza hasten duen haur baten eta Lehen Hezkuntza atzera uzten duen preadoleszente baten artean, haien bat-batekotasuna, jakin-mina eta hipotesiak sortu eta erantzunak asmatzeko gaitasuna - pentsaera dibergentea, edo thinking out of the box, esanen luke zenbaitek-erkatzean. Haurraren mundua freskoa da, berria, zoragarria, harriduraz eta emozioz betea. Baina sentimendu hori, edertasuna dastatzeko sen hori, galdu egiten da, are helduarora iritsi baino lehen ere (Carson, 1999). Zer gertatu da baten eta bestearen artean? Nora joan da sormen hura? Nora munduak nola funtzionatzen duen ulertu nahi izate hura?

Erantzunak begien bistakoa dirudi: eskolatzeko prozesua. Gure hezkuntza sistemak, ikasgai "gogorrak" lehenesten dituzenez, gure burua mugatu egiten du pentsaera arrazional abstraktuarekin, gertaerak memorizatzea eta errepikatzea oinarritzat hartuz, mundua egiazki ezagutu eta bertan ekiteko aukera emanen ligukeen ezagupen funtzional aplikatua landu ordez. Instituzionalizatu egiten dugu haurren harrimena, eta kalte egiten ahal diogu heziketa baldin bada intentsitate handiegikoa, sobera goiz ezarria eta formalegia

.....
¹ "Haurra" erabiliko dugu, substantibo orokor modura, "neskez eta mutikoez" hitz egiteko.

(Katz, Chard, & Kogan, 2014), ondorio iraunkorrek eraginez haurren ikaskuntza berriekiko jarreran.

Baina Hezkuntza Sistema gizarte baten balioen isla besterik ez da. Hezkuntzari buruzko gure Legeak enplegarritasunari eta produktibitateari laguntzeko helburua badu (8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa, Hezkuntzaren kalitatea hobetzeari buruzkoa), gizarteak ere eskaera horrekin bat egiten duelako da. Mundu lehiakor eta abiadura bizikoan bizi gara; arrakasta –baita eskola adinean ere– kalifikazio, titulu eta lorpen akademikoen bidez neurtzen da, pertsonaren beste alderdi batzuk alde batera utziz.

Gure seme-alabei kentzen diegu haur izateko, harritzeko, liluratzeko eta jolasteko denbora. Okitzen ditugu haien zentzumenak; erantzunak ematen dizkiegu beren buruari galdera egiten utzi gabe; hiltzen dugu haien ikasteko gogoia, lasterbideak eskainiz. Urruntzen ditugu aisiatik, jolas libretik, isiltasunaren edertasunetik.

Egiazko eta alegiazko arriskuetatik babesteagatik, naturatik erauzi ditugu. Baina natura, gure osasunarentzat eta giza harremanentzat onuragarria izateaz gainera, ikasteko leku pribilegiatua ere bada (Louv, 2012). Haurrek zentzumenetatik jasotzen dituzten elementu zehatzak eskuratu behar dituzte, horiekin gerora ideia abstraktuak eraikitzeko (Piaget, 1977). Baina ez dugu deus ikasiko motibatzen ez bagaitu, gure jakin-mina pizten ez badu, arretatik hasten baita ikaskuntza eta memorizatze-jarduna (Mora, 2013). Eta “haurrek gaur egun kontzeptu abstraktuak ikasten dituzte, oso goiz ikasi ere, leihotatik argi eskasa sartzen den edo argi artifiziala duten ikasgeletan, irakasleak balira bezalako zorroztasun eta seriotasunez, oso urrun “jolas” primitibotik, zentzumenetatik zuzenean ikastea eta memorizatzea eragiten zuen hartatik, “alaitasunez” egiten zen hartatik, hori baita arretaren eta jakin-minaren sorreraren oinarria” (Francisco Mora, elkarrizketa, 2013).

Beraz, badirudi egoki eta beharrezkoa dela gai hauek oinarritik lantzen hastea, gurasoei nahi bada, aldaketarako joera abian jarri nahi badugu.

Gogoetarako eremua

2015-16 ikasturtean, hezkuntza gaiei buruzko gogoeta eremu bat abian jarri dugu, gurasoei zuzendua, Lizarrako Udalaren Haur Eskolan. Guraso eskola baino areago, hurbildu nahi luke Familia Eremu deitzen zaienetara, jadanik zenbait tokitan egiten baitira halakoak (<http://w110.bcn.cat>), Loczy institutuaren Jolas Eremuen ideian oinarriturik. Eremu honek ez du hezteko errezetarik eskaini nahi; sendotu nahi du jolaserako eta gogoetarako eremu bat, non gurasoek beren seme-alabei behatzen ahal baitiete beste haur batzuekin elkarrekintzan ari direla, eta beste familia batzuekin partekatzen ahal baitituzte esperientziak, era horretan beren seme-alabengandik, eta haiekin, hainbat gauza ikasteko. Beti haurren erritmoak eta beharrak errespetatuz, haien harrimenari erreparatuko diogu, horrek aurkitzera bultzatzen baititu, eta geure buruari galdetuko diogu harrimen hori gartzeko gure eraginaz.

Helburua:

Proiektu honen helburu nagusia haurrak berez duen harritzeko gaitasuna eta mundua ulertzeko berez sentitzen duen beharra aurkitzea da, gurasoekin batera; eta gaitasun hori baloratzen eta sustatzen ikastea.

Horretarako, lortu nahi dugu:

- Gu geu ohartzea geure seme-alaben gaitasunez buruz dugun ikuspegiarekin, haiengan jarriak ditugun itzaropenez.
- Froga zientifikoetan oinarrituak dauden eta haurraren izaera hobeki errespetatzen duten proposamen alternatiboak eskaini eta bizitzea.
- Gogoetarako eta esperientziak trukatzeko eremu segurua sortzea.

Diseinua


Arieta Haur Eskola 0-3 urteko haurrentzako hezkuntza zentro elebiduna da. Bere misioan jartzen duen definizioaren arabera, eskola atsegina da, irekia, errespetuzkoa, aktiboa, asmatzailea, ikerketa eta ikaskuntza tokia, gogoeta eta etengabeko hobekuntzarakoa, haurren garapen integrala bultzatzen duena. Jomugatzat du gaitasun eta ahalmen propioak dituen haurra izatera iristea, autonomiaren eta erantzukizunaren jabe dena, solidarioa, aktiboa, parte hartzailea, heltze-eritmo propioa eta berezkoa duena, elkarrekintza sozio-kultural anitzetan oinarrituta eraikitzen diren harremanak dituen, bere "hamaika hizkuntza"ren bidez gure kulturarekin hartu-emanak izateko eta berea eraikitzeko gai dena (<http://www.arieta.es/M.V.V.php>).

Proposamenaren lantegi batzuk sartzen dira, hilabetekoak edo bi hilabetekoak; aste-buruetan egiten dira, eta zabalik daude Arieta Haur Eskolako familia guztientzat eta haiekin harremana dutenentzat. Saio guztiak Esplorazioaren inguruan antolatzen dira, ikuspegi desberdinetatik aztertuta (1. irudia). Eskola barreneko saioak, lantegiak edo saio teorikoak, edo naturara egindako ateraldiak, funtsean bizipenezkoak dira. Batzuetan, aipagarriak diren artikuluak edo testu zatiak ematen dira, irakurri eta komentatzeko. Txandaka egiten dira saio familiarak edo bakarrik gurasoenak. Familiek parte hartu ahal izateko, hartzaindegi zerbitzua eskaintzen da. Saioren prozesua blog ireki batean islatzen da; proiektuari jarraipena ematen dio eta ikusgarri jartzen du, eta parte hartzaileentzat erreferentzia balioa du (espacioarieta.wordpress.com).

Jardueraren garapena

Ikasturteari hasiera emateko ateraldi bat egin genuen Burezurren parkera; Eskolako 60 familietatik 15eko kideak etorri ziren. Naturan txertatua dagoen hiri parke bat da, Lizarrako udal mugapean, erdigunetik 2,5 km-ra.

Ateraldi honetan nabarmen gelditu zen nolako zailtasunak ditugun helduok – eta, ondorioz, gure seme-alabek – naturan egoteko. Ez dugu bidez gozatzen, helmuga dugulako burutan, nahiz eta haurrak saiaturen diren guri aurka egiten horretan (2b irudia). Nahitaez zerbait egin beharra izaten dugu, eta gehienetan bururatzen zaiguna hamaiketako jatea izaten da. Jeneralean, gurasoek sobera babesle jokatzen dute; txikiak euren mantatxoan esparruan jarrarazten dituzte, eta handienak magalean hartzen dituzte, horrela ez da inolako jolas espontaneorik sortzen azken unera arte. Haurren portaera esploratzaileak bultzatu beharrean, gurasoek halakoak erpremitzen dituzte; beharbada ez direlako



1. irudia. Esplorazioaren inguruko gaiak, saioetan landuko direnak

haien balioaz ohartzen, beharbada ez dituztelako haurren gaitasunak hautematen eta ez dutelako haien baliabide propioetan konfiantzarik aski. Baliteke hori egitea esploratzeak berarekin dakarrelako beti muga batzuk gainditzea, guraso gisara dugun babesteko sena erne jarritz.

Eskolaz kanpoko saioen ondoren gogoeta topaketak egiten dira. Bigarren saioan diagnostiko hori komentatzeko aukera izan genuen, eta ezagutu genituen joan ziren familien lehentasunak eta beharrak, saioen ibilbidea diseinatzeko.

Lehenbiziko saioa amaitzeko, gure seme-alabek naturako elementuekin egindako jolas libreari behatu genion. Jolas librea, ez zelako gidatua, baina baita ere aurreiritzirik eta helburu jakinik gabea zelako; hala eta guztiz ere, erabat erabilgarria izan zen. Zehaztu beharra dago gure seme-alabak ohituak daudela jolas heuristikoa aritzera eskola orduetan.

Nolabait ere, nahi genuen gurasoek esperientzia hau errepikatzeko aukera izatea, baina iruditu zitzaigun egoera bortxatu samarra gerta zitekeela baldintza berberetan berregiten bagenuen – denak lurrian etzanda, hosto artean iraulka eta maskorrak ontziz aldatzera jolasean-. Horregatik, “jolasak eta jostailuak” saioan, osagai elektrikoak baliatzen dituen esplorazioko praktika bat egokitu genuen, ideia harturik Exploratorium (“ikaskuntza publikoaren laborategia, mundua esploratzen duena zientziaren, artearen eta gizakion oharmenaren bidez”) museoaren jardueretatik (www.exploratorium.edu) (1. taula).

Aspaldi ez nuela hain denbora luzean deskonektatzen, sortzen ari ginen jostailuan hain kontzentratua nintzen

Paperan sartzea kostatzen zait, ez nekien oso ongi zer sentitu behar nuen nire semeak jolastean sentitzen duena ulertzeko

Ez nuen uste ezertara iritsiko ginenik, baina azkenean ibilarazi dugu

Ez dut ezer sortu, baina gauzekin gustora ari nintzen jolasean

1. taula. Jolas saioaren ondotik gurasoek esandakoak

Gurasoek saioan egindako aitortpen batzuek (1. taula) argi adierazten dute, alde batetik, nolako erreparatzeak eta zailtasunak ditugun helduok jolasteko eta esploratzeko, helburu jakinik ez badago, baina, bestetik, baita ere, nolako poza sentitzen dugun geure buruari horretan murgiltzen uzten badiogu.

Azkeneko saioetan, berriz ere praktika eta teoria bateratuz, mugimendu libre – Emmi Pikler-ek Loczy Institutuan bultzatutako pedagogiaren premisa nagusia – eta helduaren esku-hartzerik ez izateak duen garrantzia landu genituen. Haurraren mugimenduaren garapenean ez ezik, baita arlo emozional eta kognitiboan ere. Azken finean, haurrak bere subjektibotasuna eta bere ezagupena – konkretua, logikoa eta gero abstraktua- eraikitzen ditu bere gorputzak eskaintzen dizkion ahalbideak oinarri harturik, helduak jartzen dion ingurunearekiko elkarrekintzek baldintzatuz.

Ondorioak

Esperientzia honek azaltzen du nola jarri zen abian hezkuntza gaiei buruzko lantegi-lantalde bat, gogoeta gune bat non gurasoak ohartuko baitziren beren seme-alabek dituzten ahalmen eta jokabideez, baina, baita ere, beraien jarrerez eta haurren beharrekin errespetu handiagokoak izan daitezkeen bestelako aukerez.

Ekimenean ez du jende askok parte hartu –gutxitan gertatzen da honelako gauzetan – baina oso dinamika positiboa eragiten ari da, gurasoak gero eta gehiago ohartzen ari baitira beren seme-alaben portaera esploratzailea erraztearen garrantziaz, portaera horri lotutako arlo guztietan (1. irudia).

Saioetan lantzen diren gaiekin batera, familientzat baliotsua da horrelakoei buruz ez-tabaidatzea eta esperientziak partekatzea antzeko interesak dituzten pertsonen osaturiko taldean, testuinguru atsegina eta seguruan.

Eskerrak eman behar ditugu:

Proiektu honek Nafarroako Kutxa Banku Fundazioaren finantzabidea du (laguntzetarako 2016ko deialdia)

Bibliografia

AZA, E. T., *Creatividad y motricidad*, INDE,

<https://books.google.com/books?id=W2iGAGszy2IC&pgis=1>, 1999–n eskuragai.

CARSON, R., *The sense of wonder*, New York, Harper Collins Publishers, 1999.

GARCÍA ALMUDÉVER, C., *Plasticidad y aprendizaje*,

[https://upcommons.upc.edu/bitstream/handle/2099.1/6277/4.PLASTICIDAD Y APRENDIZAJE.pdf?sequence=7](https://upcommons.upc.edu/bitstream/handle/2099.1/6277/4.PLASTICIDAD_Y_APRENDIZAJE.pdf?sequence=7), 2008–n eskuragai.

KATZ, L. G., CHARD, S. C., & Kogan, Y., *Engaging children's minds: The project approach*. Wetsport, Praeger, 2014.

L'ECUYER, C., *Educar en el asombro*, Plataforma, 2013.

8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa, Hezkuntzaren kalitatea hobetzeari buruzkoa, 2013ko 295. EAO, abenduaren 10ekoa.

<https://www.boe.es/boe/dias/2013/12/10/pdfs/BOE-A-2013-12886.pdf>

LOUV, R., *The nature principle*, Chapel Hill, Algonquin books, 2012.

MORA, F., *Neuroeducación*, Alianza Editorial, 2013.

—, El Cultural. Disponible en <http://www.elcultural.com/revista/ciencia/Francisco-Mora/32693>, 2013.

PIAGET, J., *Epistemología genética*. Argentina, Solpin, 1977.

TRUNDLE, K.C., North C. S. U., & Saçkes, M. (Necatibey S. of E.), *Research in Early Childhood Science Education*. Springer. <http://doi.org/10.1007/978-94-017-9505-0>, 2015.

Kalitatezko haur hezkuntza, lehen haurtzaroko zainketarik hoberena

Maidar Gabilondo Ariznabarreta
UNICEFen Nafarroako Batzordeko koordinatzailea

Azkeneko urteetan aldaketa sakona egon da haurren zaintzan ekonomikoki aurreratutako herrialdeetan: familia barrutik kanpora joan den prozesua da. Honetan, gobernuek eta enpresa pribatuek gero eta zeresan handiago daukate. Kanpora ateratzearen arrazoi nagusia, emakumeek etxetik kanpo lan egiten hastea izan da. Era berean, neuro-zientziak lehenengo haurtzarokoak daukan garrantzia hedatzen hasi da, eta honen ondorioz, bi ikuspuntu zabaltzen hasi dira: etxeko zaintza defendatzen duena, eta haur eskolako zaintzaren alde dagoena. Bi ikuspuntuak oinarri zientifikoak dituzte. Azkeneko aukera defendatzen dutenek, ekitate eta aukera berdintasunak sustatzen dituela diote. Edozein kasuan, 0-6 bitarteko kalitatezko hezkuntzara sartzeko politika publikoak ekitatez martxan jartzea ezinbestekoa da.

Hitz-klabeak: berdintasuna, ekitatea, haur hezkuntza, kalitatezko hezkuntza, neuro-zientzia, zaintzak.

Herri ekonomikoki aurreratuetan, aldaketa handia gertatu da azken urteetan haurrak hezteko moduari dagokionez. Txikienen zainketa mendez mende familia kontu bat izan da, nagusiki pribatua; orain, berriz, etxetik kanpoko jardura bilakatzen ari da neurri handi batean, eta hartan gobernuek eta enpresa pribatuek parte hartzen dute gero eta gehiago. Gaur egun, ume gehienak, beren lehen haurtzarokoan, ez dira etxean familiarekin gelditzen, haurren zaindegi suerteren batean baizik. Nazio industrializatuetan, etxetik kanpoko haurren zainketa zerbait saihetsezina da gero eta haur gehiagorentzat, gero eta adin gazteagoetan eta gero eta denbora luzeagoan. Areago, azken urteetan, etxetik kanpo artatzen diren bularreko haurren kopurua ere ari da igotzen, azkar igo ere.

Haurren zainketan trantsizioa bultzatzen duen indar nagusia aldaketa bezain begi bistakoa da. Horrek haurren ongizatean eragiten dituen ondorio gaiztoenak arindu beharrez sortu da lan-bizitza eta familia bateragarri egiteko fenomenoak, gure gizarteko arazo



Maider Gabilondo

handienetarik bat konpon nahian: familien bizi profesionalaren eta haurren zainketaren artean eta haien oinarrizko premien estalduraren eta haien oinarrizko eskubideen bermearen artean dagoen gatazka, eta biak uztartu beharra. Aterabidea zaila eta korapilatsua da; izenaren beraren hautaketak badu zerbait iragarpenetik, gauza desberdinak edo itxuraz kontrakoak gertatzen ahal baitira bateragarri.

Lan honen xedea ez da auzi hori ebaztea, ezta berori argitzen laguntzea ere, baizik eta gogoetagai batzuk ekartzea haurren premia eta eskubideen ikuspegitik. Gogoetagai horiek funtsezkoak dira haurra jaio aurrean hasi eta derrigorrezko eskolatzearen adina etorri arte luzatzen den auzi guztian, eta lehentasuna izaten dute familia barneko solase-tan; hala ere, eztabaida publikoan sistematikoki ahanzten dira. Artikulu honen xedea da haur hezkuntzaren inguruan dauden bi pentsamolde nagusiak aurkeztea, lehen haurtzar-roan hezkuntza etxetik kanpora ateratzearen aldekoen eta kontrakoaren artean.

Sarrera

Emakumeak lan merkatura sartzeak piztu zuen familien beharra haurren zainketa hiru-garrenekin kontratatzeke derrigorrezko eskolatzera arte. Orobat, familien konkista sozial handiak ekarri zituen, hala nola amatasun eta aitatasun bajak, eszedentziarako eskubidea, lanaldia murrizteko eskubidea, lanorduen malgutasuna eta abar. Neurri horien xedea da bateragarri egitea lan ordaindua lehen haurtzaroko zainketekin.

Alabaina, diruz okerrago dauden familiek ez dute neurri hauen onura bildu. Familia hauek, oso maiz, bi diru iturri behar izaten dituzte etxebizitza, jatekoa eta bertzelako gastuak berdintzeko. Eta zenbat eta ezegonkorragoa izan familiaren egoera, presa are handiagoa izanen da jaiotza baten ondotik lanera ahalik eta lasterren itzultzeko, eta ni-niaren premiak asetzeko aukerak bilatu behar izateko; horien artean, hezkuntza lehenta-suna dutenetarik izaten da.

Horrenbertez, arrisku argia dago haurren zainketan trantsizioak hartzen duen bidea unean uneko premia eta estaldien araberakoa izatea, eta ez epe luzerako ikuspegi edo

hautuen araberakoa. Hau da, arriskua dago bide hori oinarriturik ez egoteko haurrari dagokionez hartzen diren neurri guztiak gobernatu behar dituen printzipioan: Haurraren Interes Gorena, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren 3. artikulua ezartzen duen bezalaxe.

Aldi berean, gai honetan aurrerapenak izanagatik ere, ez da irizpide bateratuko politika publikorik garatu, Oti 3 urte bitarteko neska-mutiko guztiendako hezkuntza kalitatezkoa eta eskuragarria bermatzeko, Lehen Hezkuntzarekin egin den gisa berean.

Haur hezkuntza etxean

Mundu industrializatuan haurtzaroz den bezainbatean aldaketa handi hau gertatzen joan den aldi berean, modu paraleloan iraultza gorpuztu da, lehen haurtzaroaren garrantzia ulertu baita ikerkuntza neuro-zientifikoaren inguruan. Ikerlan horien emaitzen ondorioz, haurren psikologo eta haurren eskubideen ekintzaile anitzek beren kezka plazaratu dituzte haurren zainketako trantsizioaz. Korrante honen aitzindarietariko bat Steve Biddulph psikologo australiarra da; haren iritziz, haur eskolak desegokiak dira hiru urte baino gutxiagoko neska-mutikoentzat. Haren arrazoi nagusiaren arabera, adin horretako umeek dedikazio eskusiboa behar dute beren premia psikoafektibo eta biologiko guztiak aseitzeko; horren kariaz, desegokitzen josten du taldekako zainketa.

Ikusmolde horren teoriaren zimenduan gako kontzeptu hauek dira, bertzeak bertze: "aldi sentiberen" sekuentzia burmuinaren garapenean; "zerbitzu eta itzultze" harremanen garrantzia, zaintzaileekin; afektuaren zeregina garapen intelektual eta emozionalaren oinarri gisa; haurraren aukeramen zentzu gero eta handiagoaren sustapena; estresak garatzen ari den burmuinaren arkitekturari eragiten ahal dion modua; eta fase goiztiar batean familiako kideekin eta zaintzaileekin elkarreaginek duten erabateko garrantzia, estresa kudeatzeko sistemaren garapenean.

Hona hemen aurkikuntza horien ondorio nagusia: neska edo mutikoak bertze pertsona batzuekin dituen elkarreagin goiztiarrek, are gehiago familiarekin eta zaintzaileekin dituenek, jarraibide batzuk ezartzen dizkiete lotura neuronal eta oreka kimiko batzuei, zeintzuei eta bilakatuko garenari, egiteko gai izanen garenari eta gure inguruko munduari ematen diogun erantzunari sakonki eragiten dietenei.

Neurozientzia baieztatzen eta azaltzen ari da gizarte zientziak, eskarmentuak eta zentzu komunak aspaldi ziotena; hau da, biziaren lehen hilabete eta urteetan, familiarekiko eta zaintzailekiko harreman amultsu, egonkor, seguru, kitzikatzaila eta atseginak funtsezkoak direla neska-mutikoen garapenean alderdi guztietarako. A. Giddensen (1985) edo N. Elíasen (1998) gizarteratze prozesuaren norabide bikoitzari buruzko tesien balioa ukatu gabe, familia lehentasunezko gizarteratze eragiletzat har daiteke lehen haurtzaroan.

Hona, beraz, une honetan egin daitekeen orokortze handiena: umea zenbat eta txikiagoa izan eta haurrak zaintzeko zentro batean zenbat eta ordu gehiago eman, are handiagoak izanen dira arriskuak. Bereziki, orokorrean desegokitzen hartzen da urtebete baino ume txikiagoak haurrak zaintzeko zentro batean ordu luze egotea. Etapa erabakigarrienean zainketa desegokiak izateak geroko ikaskuntzarako zimendu ahulak ekar di-

tzake; eta gaitasun kognitiboetarako eta hizkuntza-gaitasunetarako balio duenak garapen psikologiko eta emozionalerako ere balio du.

Zainketak haur eskolan

Ikerlanek neska-mutikoak etxean banaka zaintzea hobesten duten aldi berean, hona txostenek zer bermatzen duten: 0tik 6 urte bitarte kalitatezko hezkuntza ikastetxe batean eskuratzeak indartzen du, etorkizunean, umeen eskola-errendimendua.

Competent Children Project txostena 2004an egin zen Zelanda Berrian; azalera atara zuenez, lehen haurtzaroan kalitate handiko hezkuntza jasotako neska-mutikoek 12 urtetan emaitza hobeak erdietsi zituzten irakurketan eta matematikan. Aldeak ez ziren aldatu, familiaren diru-sarrerak eta familien hezkuntza maila kontuan hartuta ere. Kalifornian bertze ikerlan bat egin zen 2005ean, The Economics of Investing in Universal Pre-school Education. Hartan ondorioztatu zenez, eskolaurreko ikastetxeetara joaten ziren neska-mutikoek aukera handiagoak zituzten Bigarren Hezkuntza burutzeko eta helduaroan soldata handiagoak eskuratzeko; gainera, aukera txikiagoak zituzten delituetan nahasirik gertatzeko.

Hona ikerlan aunitzek agerian utzi duten bertze alderdi bat: biziaren lehen urteetatik hezkuntza jasotzea elementu funtsezkoa da ekitaterako eta aukera berdintasunerako, hezkuntzan, desabantailak hertsiki loturik baitaude familia ingurunearekin, eta ohartemangarriak dira are eskolatze formala hasi baino lehen. Konparaziorako, hezkuntza maila handiagoa duten gurasoen seme-alabek, hiru urte baino gazteagoak direnean, hiztegia dute etxe pobregotakoek eta hezkuntza maila txikiagoak baino bi aldiz aberatsagoa, eta 15 urtetan askoz ere errazagoa da kualifikazio altuagoak izatea.

W. Steven Barnett New Jerseyko Hezkuntza goiztiarrari buruz ikertzeko Institutu Nazionaleko irakaslea da; haren aburuz, haur hezkuntzako programek, ongi diseinatuak eta iraunkorrak baldin badira, epe luzeko hobekuntzak ekartzen dituzte emaitza akademikoetan, baita errepikapen tasa apalagoak ere. Nolanahi ere, bere ikerlanetan frogatu duen konturik begi bistakoena da bazterketa egoeran dauden familien neska-mutikoek, kalitatezko haur hezkuntza programetan parte hartuta, lortu izan dutela desabantailak gainditzea eta emaitza akademiko hobeak lortzea.

Eskolaurreko Hezkuntzaren Benetako Eskaintza (EHBE) epe luzerako azterlana da haur txikien garapenaren gainean. Erresuma Batuko haur populazioaren lagin aleatorio baten gainean, ondorioztatu du 0tik 6 urte bitarteko hezkuntzak umeen garapen kognitibo eta soziala indartzen duela, eta haren ondorioak nabarmenagoak direla egoera ahulean dauden haurren artean, are gehiago eskolaurreko ikastetxeetan ingurune desberdinetako haurrak biltzen badira. Programaren kalitatearen neurketen emaitzak eta langileen kualifikazioak nolakoak, halakoxeak abantailak ere.

Jeanne Brooks-Gunn-ek haurren garapena irakasten du Columbiako Unibertsitatean; mahai gainean jarri duenez, haur hezkuntzako ikastetxeetan ematen diren kalitate handiko programek eskola-errendimendua indartzen dute, eta horien ondorioak handiagoak dira neska-mutiko pobreen eta hezkuntza maila apala duten familietakoen artean; aldiz, abantaila eusten diete lehen hezkuntzako azken urteetan eta bigarren hezkuntzan.

Kostu eta onuren gaineko azterketa zehatz batean, Cleveland eta Krashinsky ikerlari kanadarrek adierazi zuten ezen, nahiz lehen haurtzaroko hezkuntzak eta zainketek neska-mutiko guztiei on egin, zantzu frankok agerian uzten dutela onurarik handienak egoera ahulean dauden familietako haurrenak direla, eta haurren zainketa onek berdintzen ahal dutela, partez bederen, egoera ahuleko etxe bateko bizia.

Ondorioa

Kalitatezko haur hezkuntzak adinari dagozkion zainketa osoak eta ume guztien interes gorenaren araberrako ordutegi eta irizpideak gehitzen dizkie kalitatezko hezkuntza programei; hori neska eta mutiko guztien eskura jartzeak, batetik, laguntzen du hezkuntzarako eskubidea eta zainketa egokiak jasotzeko eskubidea bermatzen, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren 29. eta 18. artikuluek aitortu bezala, eta bertzetik, baliabide gutxiko familietako neska-mutikoen desabantailak murrizteko tresna da.

Nafarroan, haur hezkuntzako lehen zikloko (0-2 urte) eskolatze tasa neska-mutikoen %10,1 heldu zen 2012-13 ikasturtean, hau da, Espainiako banaz bertzekoa baino hogeii puntu txikiagoa. Orobat, 18 urtetik beheitikoen artean bazterketa sozialaren tasa bertz puntu handiagoa da populazioaren banaz bertzekoa baino. Beraz, Otik 3 urte bitarteko neska-mutikoei kalitatezko hezkuntza bermatzea pobrezia zurrunbiloari ihes egiteko estrategia izan daiteke.

Laburbilduz, funtsezkoa da honako hau bermatuko duten politika publikoak abiaraztea: batetik, Otik 6 urte bitarteko kalitatezko haur hezkuntzako zerbitzuak modu bidezkoan eskuratzea, eta, bertzetik, familiek neska-mutikoak zaintzeko ardura hartu ahal izatea, modu bidezkoan, beren karrera profesionalak garatzen dituzten aldi berean. Eta horretarako beharrezkoa da azterketa zorrotza egitea Nafarroan Otik 3 urte bitarteko hezkuntza nola dagoen jakiteko; horretarako, proposatzen dut adierazle hauek kontuan hartzea:

- 1 Aitatasun/amatasun baimenen iraupena.
- 2 Egoera ahulenetan dauden familietako neska-mutikoen sarrera lehenesten duten neurriak.
- 3 Eskura dauden doako plazen kopurua.
- 4 Langileen prestakuntza.
- 5 Irakasle-ikasle ratioa.
- 6 Otik 3 urte bitarteko hezkuntzarako aurrekontu publikoa.
- 7 Irispide unibertsala.

Bibliografia

BARNETT, W.S., *Preschool Education and Its Lasting Effects: Research and Policy Implications*, The State University, New Jersey, 2008.

BROOKS-GUNN, J., FULLIGNI, A.S., & Berlin, L.J., *Early child development in the 21st Century: Profiles of current research initiatives*, Teachers College Press, New York, 2003.

CLEVELAND, G. eta KRASHINSKY, *Financing ECEC Services in OECD Countries*. Torontoko Unibertsitatea, Toronto, 2003.

CLEVELAND, G., *The Determinants of Interaction Quality in Australian Child Care: A Production-Function Approach*, Torontoko Unibertsitatea, Toronto, 2012.

ELÍAS, N., *El proceso de civilización. Investigaciones socio-genéticas y psico-genéticas*, Fondo de Cultura Económica, Madril, 1998.

GIDDENS A., *La constitución de la sociedad: bases para la teoría de la estructuración*. Amorrortu (Re), Madril, 1995.

UNICEF, *Manual de aplicación de la Convención sobre los Derechos de la Infancia*, United Nations Publications, Nueva York, 2004.

UNICEF, *El cuidado infantil en los países industrializados: transición y cambio*, Innocenti Ikerketa Zentroa, Firenze, 2008.

UNICEF, *Equidad para los niños. El caso de España*, Innocenti Ikerketa Zentroa, Firenze, 2016.

Aniztasuna, balio Hezkuntza inklusiboa, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko

Ignacio Toni

CERMINeko hezkuntza taldearen koordinatzailea eta
elkarte horren ordezkaria Nafarroako Eskola Kontseiluan

Hezkuntza inklusiboa eredu ona da hezkuntzaren kalitatea ere hobetzen duelako. Gizarte demokratiko batean, bestalde, baliozko eredu bakarra ere bada, guztiendako aukeraberdintasuna dakarrelako. Hezkuntza-ereduak, azken batean, gizarte bera zer den islatzen baitu.

Gako-hitzak: hezkuntza inklusiboa, desgaitasuna, kalitatea.

Hezkuntza inklusiboa ez da aukerakoa, betebeharra baizik.

Hezkuntza-inklusioren edo, hobeki esanda, hezkuntza inklusiboaren paradigma dugu, gero eta sendoago gainera, kalitatearen, ekitatearen, malgutasunaren eta aniztasunarekiko begirunearen printzipioak uztartzeko balio duen ikuspegia, eskola-eremutik laguntzen baitu desgaitasuna duten pertsonak ez bazterzen.

Daukagun arau-esparruak, planteamenduetan, bere egiten du ikuspuntu hori. Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren 24-1. artikulua honela dio: "Estatu alderdiek aitortzen dute pertsona desgaituen hezkuntzarako eskubidea. Eskubide hori eragingarri egiteko asmoarekin, bereizkeriarik gabe eta aukeraberdintasuna oinarri, estatu alderdiek maila guztiak eta bizitza osorako irakaskuntza barneratzen dituen hezkuntza-sistema ziurtatuko dute." Espainiako Gobernuak 2007ko azaroaren 23an berretsi zuen konbentzio hori eta, hortaz, nahitaez bete beharrekoa bihurtu zen.

Halere, legegintzako aurrerapenak gorabehera, errealitateak erakusten du ezen desgaitasuna duten pertsonak oraindik ere zailtasun handiak dituztela hezkuntza-sisteman garatu eta aitzina egiteko eta errealitatean badirela kudeaketari, koordinazioari eta baliabideei loturiko hainbat arazo ezinbestean aurre egin beharrekoak.



Ignacio Toni

Zeri buruz ari gara hezkuntza inklusiboa diogunean?

Geure buruari galdetu behar diogu zer esan nahi duen “inklusibo” hitzak. Inklusibo adjektiboak esan nahi du bere barnean hartzen dituela osotasunaren parte diren zati guztiak. Hezkuntza inklusiboak neska eta mutiko guztiak hartu nahi ditu barnean eta konpromisoa hartzen du ikasle orori ziurtatzeko taldeko partaide izateko eta baztertua ez izateko eskubide besterezina. Barne hartze edo inklusio horrek erakusten digu taldean ikastea dela neska eta mutil guztiendako ikaskuntza modurik mesedegarriena, eta ez soilik “ezberdin” izendaturiko ikasle horiendako. Haur guztiak dute ahalmena ikasgela arrunt baten barnean ikasteko eta, ikasgelan aniztasuna balioestean, horrek ikastaldea sendotzen du eta ikaskuntza-aukera handiagoak ematen dizkie gelakide guztiei.

Inklusioaren ardatza da begiratzea nola sostengatu ume eta nerabe bakoitzaren dohainak eta beharrak eskolako testuinguruan. Ikasle guztiak hezkuntza-sistema bakar baten barnean hezten dira, norberaren gaitasun eta premietarako bizkorgarriak eta egokiak diren programa aproposak eskaintzen zaizkielarik. Eskolako integrazioak aukera eman die hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten pertsonen hezkuntzako sistema arruntean sartzeko eta hartan partaide izateko. Eskola-eredu honetan den-denak dira partaide, zeinahi direla ere norberaren ezaugarri pertsonal, psikologiko edo sozialak. Hezkuntza-estrategia honen ondorioz, gizarte integrazioa dator eta “ezberdina” den horren onarpena, orobat. Eskola inklusiboa ez da soilik mesedegarria integratzen diren pertsonendako, baizik eta hezkuntza komunitate osoarendako.

Hezkuntza kalitatekoa izanen bada, guzti-guztiendako izan beharko da kalitatekoa

Desgaitasuna duten umeak eta desgaitasunik ez dutenak elkarrekin ipintze hutsak ez du berez emaitza onuragarririk ekartzen. Eskolan egiazko inklusioa egon dadin, pertsona guztiendako etengabeko plangintza, sostengua, konpromisoa eta laguntza behar dira.

Eskola inklusiboa

- Sustrai humanista. Pertsonen garapen integrala sustatzen du.
- Eskubideen berdintasuna sustatzen du denondako.
- **Aniztasuna**, heterogeneotasuna eta pertsonen arteko harremanak babesten ditu.
- Prozesuak indartzen ditu, **ikasten nola ikasi irakasten du**, pentsatzen irakasten du.
- Antolaketarako autonomia eragiten du bai ikastetxean bai langileen artean.
- **Aniztasuna**, kulturen arteko kontrastea aberatsa dela uste du.
- Kalitatezko hezkuntza erdietsi nahi du, banakoen premiei erantzunez.
- Gaitasun kognitibo, sozial eta afektiboen garapena du xede.
- Gizarte aldaketa solidarioa eragin nahi du, jarrerak aldarazi.
- Eskola berritzea dakar, integrazioarako eta komunitatearen sustapenerako.
- Norbanakoak sozializatzen ditu, bazterkeriaren arriskuak saihestuz.
- Balioetan oinarrituriko hazkunde pertsonala ebaluatzen du, hala nola errespetua, egokitzapena, egokitzeko ahalmena...
- Proiektu kooperatiboak eta batera eginiko programazioak garatzen ditu.
- Diziplina-aniztasunetik egiten du lan.
- Profesionalak etengabe ari dira trebatzen, metodoak, teknikak, Hezkuntza Premia Bereziei erantzuteko tresnak eguneratuz.

Halakoak bermatzen direnean ikusten dira emaitza onuragarri horiek, eta ez soilik haiendako, baizik eta baita gainerako ikaskideendako ere.

Zenbait ikerlanek erakutsi dute onura handiak daudela ikaskuntza arazoak, premia bereziak edo desgaitasunak dituzten pertsonen eta ikaskuntza arazoak ez dituztenek batera parte hartzen dutenean ikasgelan; honatx:

- Giro natural batean ikasten dute. Egiatzko munduan denok bizi gara batera. Eskola barneko inklusio-giro horrek handitzen direnean gizarte inklusibo batean bizitzeko prestatzen ditu ikasleak.
- Aniztasuna aintzat hartzen ikasten dute. Hurrek ezberdintasun hutsak ikusteaz gain antzekotasunak ere ikusten ikasten dutenean, hobeki ulertzen eta errespetatzen dituzte gaitasun ezberdinak, kultura ezberdinak eta abar.
- Trebetasun sozial eta komunikazio hobeak garatzen dira. Elkarreragin sozialekin arazoak dituztenek ikasi egiten dute hartu-emanetan ari diren beste batzuk nola diharduten behatzean, eta onuragarria zaie gaitasun ezberdinak dituzten beste neska-mutikoekin elkarreragin sozialak izatea. Horrek guztiak elkarreragin sozial gehiago ekartzen ditu, oro har, baita adiskidantza iraunkor gehiago sorrarazten ere. Lehen adiskidantza hauei esker, tresna egokiak eskura ditzakete elkarreragin sozial berrietan barrena murgiltzeko beren bizitzan.

- Itxaropen akademikoak handiagoak dira. Ikasgela inklusibo batean pertsona guztiek ikasgai berberak jasotzen dituzte. Desgaitasuna duten umeei buruzko itxaropenak handiagoak dira, bai irakasleen bai gainerako ikaskideen partetik, eta horrek itxaropen horiek betetzeko motibazioa pizten die umeei, onura akademikoak ere ekartzen dizkielarik. Autoestimua ere handitzen du horrek.
- Ikasle guztiek jasotzen ahal dituzte gelan ikaskuntza-estilo eta ikaskuntza-metodo anitz erabiltzeak dakartzan onurak.
- Irisgarritasuna ona izan daiteke bai desgaitasuna duten ikasleendako eta haien ikaskideendako bai gurasoen bileretarako edo bestelako jardueretarako eskola erabili behar duten komunitateko beste kide batzueendako.

Nola jakin kalitateko hezkuntza inklusiboa egiten ari garen

Hezkuntza Premia Bereziak dituzten Ikasleen Hezkuntza Garapenerako Europako Agenciak "Hezkuntza inklusiboari buruzko adierazlearen garapena Europan" osatu zuen 2009an. Hona hemen hezkuntzako arreta inklusiboa den neurtzeko zenbait adierazle:

- Hezkuntzako legeria nazionala bat dator nazioarteko akordioekin (Salamanca Adierazpena, Nazio Batuen konbentzioak, etab.).
- Zer prozedura dauden ezarririk hezkuntzako premia bereziak goiz hauteman eta ebaluatzeko.
- Baliabide nahikoak daude hezkuntzako premia bereziak goiz hauteman eta ebaluatzeko.
- Premia bereziak hauteman bezain laster hasten da hezkuntzako premia bereziak dituzten ikasleen arreta eta irizpide inklusiboak ditu arau.
- Erakundeek eskainitako lanbide heziketak curriculum malguak ditu, ikasle orenen premia eta itxaropenei egokitzen ahal zaizkienak.
- Hezkuntza legeriak irakasle, psikologo, irakaslez bestelako langile eta abarren prestakuntzaren eta profesionalizazioaren kalitaterantz jotzen du eta arreta berezia eskaintzen dio aniztasunari.
- Irakasleen hasierako prestakuntzan eta irakasle lanean diharduten bitartean dauden prestakuntza programen barnean badira hezkuntza bereziari eta inklusioari buruzko gaiak.
- Sektore arteko lankidetzarako arauak/prozesuak ezarri dira (hezkuntza sektoreak, osasunekoak, gizartekoak, etab.)
- Gobernu kanpoko erakundeen eta arautu gabeko hezkuntza sistemen aholkularitzarako prozedurak ezarri dira.
- Onarpen politikek sustatu egiten dute ikasle guztiek badutela sarrera ikastetxe arruntetan.
- Ikasle guztiei norberaren premien arabera laguntza teknikoak emateko arauak ezarri dira.
- Gurasoek eta ikasleek modu erabakigarrian eragiten dute kasuan kasuko ikaslearen premien eta behar diren baliabideen identifikazioan/deskripzioan.

Hortaz, badugu hezkuntza sistema inklusioan oinarritzen duen legeria eta baditugu hainbat adierazle inklusio hori ikasgeletan zenbateraino betetzen den baloratzeko. Errealitatea, ordea, setatia da eta erakusten digu horrek ez duela balio izan inklusioa orokortzeko. Zenbait txostenek nabarmendu dutenez, honako hauek dira, besteak beste, hezkuntzarekin eta desgaitasuna duten pertsonekin loturiko arazo nagusiak:

- Laguntza-irakasleak falta dira derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzan eta halakoak ezinbestekoak dira hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleak goi mailako hezkuntzara igaro daitezen nahi badugu.
- Irakasleek ez dutenez behar beste informazio eta prestakuntza, langile espezializatuen esku uzten dute erantzukizuna eta, hortaz, ez dago laguntza egokia emateko ahalbidetuko liekeen zeharkako ikuspegirik. Bestalde, egoera larriagoa da behar beste espezialistarik ez dagoenean, pertsonala egonkorra ez denean eta ikastetxe ezberdinetan eta are herri ezberdinetan lan egin behar dutenean.
- Begiramenik ez egotea ikastetxeen ordutegietan eta espezialisten eta tutoreen arteko koordinazio lana egiteko ezarritako denboretan; izan ere horrek zaildu egiten du curriculumean behar diren egokitzapenak txertatzea eta haien jarraipena egitea eta, beraz, desgaitasuna duten ikasleen heziketa-curriculuma pobretu egiten da batzuetan. Arazo hori are handiagoa da DBHn eta Batxilergoan, bai ikastetxeetan gertatzen den kultura-aldaketagatik bai maila horietako eskakizun akademikoengatik.
- Ikastetxeek ez dute behar beste hartzen beren gain curriculum eta antolamendu arloetan daukaten autonomia hezkuntza-erantzun dibertsifikatuak eta ikasleen beharrei egokiturikoak eskaintzeko.
- Gizartearen eta hezkuntza-komunitatearen sentsibilitate eskasa, ikasleen gaineko etiketak iraunkortzen dituenak.
- Ez dago prestakuntza iraunkorra jasotzeko eta eguneratzeko planik, ez irakasleendako, ez orientatzaileendako (lantalde edo departamentuetan), ezta zaintzailendako ere, hezkuntzaren, neurozientzien eta hezkuntza-inklusioren esparruetako aurrerapenak eskura ditzaten.

Azken batean, ugariak dira hobetu beharreko alderdiak eta ezinbestekoa da eredia aztertzea zeren, alor operatiboan bederen, ematen baitu geldirik dagoela, baliabideak falta dituela edo ez duela esleipen egokirik, eta sarritan irauten duela norbanakoen boluntarismoaren eta interes bokazionalaren lepotik, zeinak maiz zimeltzen baitira azalduko moteltasun kaltegarri horren ondorioz.

Ikastetxeak eta administrazioa protagonista dituen kudeaketa-arazoa da gehienbat, eta ez hainbeste legeriaren garapen ezak ekarritakoa, hasiera batean ongi planteatua baitago, nahiz eta hura zabaldu eta zehazteko aukerak baliatu behar diren kudeaketa zuzeneko esparruetan errazago orokortu dadin.

Hezkuntza inklusiboa izan behar da hasieratik

Gaur egun inork ez du zalantzan jartzen hezkuntzak 0tik 6 urtera bitarteko zikloan duen garrantzia. Ildo horretan, funtsezko hezkuntza-fasetzat hartzen ari da gero eta gehiago, asistentzia hutseko etapatzat jo beharrean. Desgaitasuna duten ikasleendako eta haien ondoko garapen pertsonalari begira, garrantzi itzelekoa da hezkuntza-etapa horretan

parte hartzea eta, aldi berean, esku-hartze terapeutikoa eta (bir)gaitzailea egotea. Etapa horretan burutzen den esku-hartzearen mende egonen da, hein handi batean, desgaitasuna duen pertsonak ondoko faseetan izanen dituen garapena eta sozializazioa.

Ildo horretan, inklusioa egiazkoa izan dadin Otik 6 urtera bitarteko etapatik ekin behar zaio eta begiratu beharko da bateragarriak direla modu indibidualagoan bideratu beharreko esku-hartze guztiak (logopedia, psikomotrizitatea, fisioterapia...), eta umearen parte-hartzea jolas eta jardueretan gainerako ikaskideekin batera. Horrela baizik ez dugu lortuko desgaitasuna duen pertsona taldeko beste bat dela uler dezaten gainerakoek eta heterogeneotasuna eta ezberdintasuna guztiz naturala dela ulertzea.

Gainera, berdinen arteko harremana akuilu da desgaitasuna duen pertsonarendako. Etapa horretan inklusioaren alde egiten den ahalegin handia pikutara bidaltzen da Lehen Hezkuntzan, eskola gehienetan ez delako erabiltzen ikasleen inklusio erabatekoa lortzeko behar den metodologia eta, salbuespenak salbuespen, inklusioari mesederik batere egiten ez dioten metodologiak erabiltzen direlako. Haurrak, gehien-gehienetan, "espezialista"ren esku daude, zeinak ikasgelatik ateratzen baititu "bere laguntza" jaso dezaten.

Tamala da Haur Hezkuntzan egindako ahaleginak segidarik ez izatea ondoko hezkuntza-etapetan eta esperientzia hori duten profesionalak ez balioestea eta ez aitortzea jardunbide egokien eredu direla, jardunbide horiek edozein hezkuntza-etapatara eraman litezkeelako beste irakasle batzuk prestatzeko.

Familia izan behar da ardatza eta haren gainean egin behar da lan

Azkenik, aintzat hartu behar da familiek bizi duten egoera. Desgaitasunak elkarri loturiko egokitzapen-erreakzioak eragiten ditu, ukituriko funtzioaren eta desgaitasuna duen pertsonaren beraren haraindi doazenak, hura bizi den ingurua ere ukitzen dutenak, inguruari eraginez eta haren eragina jasoz (Sorrentino 1990).

Desgaitasuna duen pertsona bati hezkuntza eman beharreko erantzuna konplexua da, hari eskaintzen zaion arreta zuzenetik haratago doana. Familia, diagnostikoa berretsi bitartean eta ondotik ere, ahulezia handi-handiko fasean barneratzen da, eta ez soilik desgaitasuna duen seme edo alaba artatzeko ahaleginagatik, baizik eta beren dolu-prozesua umearen aurrean iragan behar dutelako, daukan desgaitasunarekin eta, orobat, daukan ahalmen guztiekin onartu behar duten umearekin bizi direla.

"Dolua" landuz eta kontuan hartuz familiako kide bakoitzaren (umeak, nerabeak, helduak) garapen emozionalaren banakotasuna eta desgaitasuna duen pertsonarekin ezartzen duten lotura-mota, familiak posible du egoera berriari heldu eta aurre egitea.

Desgaitasuna agertzen denean, desgaitasuna duen pertsona artatzeko ahalegin osagarriak eta berriak egin behar izate hori (esfortzu ekonomikoa, dedikazio-denbora handitu beharra, erabakiak azkar hartu beharra, etab.) dugu familia baten disfuntzionalitatean eragin handiena izan dezakeen faktoreetako bat. Bestalde, familia gainezkaturik senti daiteke, orain arte bizitza gutxi-asko antolatua zutelako eta, orain, berriz, jarduera biderkatzen zaielako eta zer egin behar duten eta zer ez aholkatzen dieten profesional ugari sartzen zaizkielako bat-batean bizitzan.

Bibliografia

JÁUDENES CASAUBÓN, Carmen, *Atención temprana. Atención y apoyo a la familia. Sordera infantil. Del diagnóstico precoz a la inclusión educativa*, FIAPAS, 2011.

KYRIAZOPOULOU, M. eta WEBER, H. (editoreak), *Desarrollo de indicadores sobre educación inclusiva en Europa*, Odense, Denmark, European Agency for Development in Special Needs Education, 2009.

.....